



HODEI ARREGI

Iñigo Arregiren obra Kanbon

Ekainaren 23an inauguratuko dute | 29

SANJUANAK ARRASATEN
Jaietako protagonistak gehigarrian | 19



Gureia auzorako proiektu
teknikoa onartu dute | 22



Xabalote gaztelekuaren
5. urteurrena ospatuko dute | 14



HERRIAN EZIN HEZI

Leintz Gatzagan dagoen gela desplazatua galtzeko
arriskuan dela-eta, protestaka dabilta udalerrian | 2

Gaur egun bezala, herrian ikasgela izatea
aldarrikatu zuten bertan ikasitako
neska-mutikoeek eta hainbat gurasok.

IMANOL SORIANO

SINADURAK

- JULEN ARRIOLABENGOA | 6
- 6 | MIREN ARREGI
- GAIZKA ERAÑA | 9
- 14 | PEDRO GARITANO
- LUKENE IGARTUA | 17
- 36 | IDOIA ETXEBERRIA

San Martzial osteko okerrak zuzendu guran

Bergarako erromeria prestatzeko lanketan dihardute

Indar handia du San Martzial zaindariaren bueltan Bergaran egiten duten erromeriak. Ekainaren 30a da santuaren eguna, eta osteko domekan egin ohi dute jaiak San Martzial ermitaren inguruan. Aurten, uztailearen 3an egingo dute. Dagoeneko Bergarako udalbatzak badihardu eguna lantzen, bai antolaketa aldetik, baina baita ere urtetan errepikatzen diren biharamuneko argazkiak errepika ez daitezten. | 8

'Hizkuntza erreinu' izeneko obra sinfonikoa KMK 16ren alde

Domeka eguerdian estreinatuko dute, Bergaran | 27

San Juan bezperako suak eta bestelakoak gertu

Udalerrri guztietan pizten dira ekainaren 23an | Ikus 'Herriak' saila

SEAT ATECA BERRIA

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Koldo Saratxaga, enpresaburua
- Ramadana, 30 egunez Debagoiengan ere bai

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Leintz Gatzagako gelaren egoera geroz eta konplikatua da

Astelehenean Eusko Jaurlaritzaren aurrean protesta ekitaldia egingo dute

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Delegazioaren erantzunik ez da iristen eta gaiarekiko jarrera bera mantentzen du hark, aldatzeko zantzurik eskaini gabe. Hala ere, Aitziber Gorosabel Gurel gurasoen elkarteko kideak nabarmendu du aldarrikapenak egiten jarraituko dutela. "Astelehenean Gasteizera joango gara, Eusko Jaurlaritzaren aurrera, gure eskakizunak Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuari helarazteko asmotan", azpimarratu du.

Jarrera aldaketa

1972. urtean Leintz Gatzagako Eskola Unitarioa itxi zen, herriaren gainbehera demografikoaren ondorioz. 1998an, Gurel gurasoen elkarte eskola berriro irekitzeko ahaleginetan hasi zen. Hainbat aukera aztertu ostean, Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolako gela desplazatu bat izatea lortu zuten.

Gaur egun, sei ume daude bertan, baina aurtengoa izan daiteke azken ikasturtea. "Herriaren garapena eta etorkizuna ziurtatzeko ezinbesteko elementu bat da, ezin dugu galtzen utzi", dio



Gela desplazatuko sei umeak. | ENEKO AZURMENDI

Joannes Mendizabal kultura zinegotziak. "Harremanetan jarri gara Donostiako hezkuntza delegazioko arduradun Gemma Gonzalez de Txabarrarekin Gatzagan irakasle bat mantendu dadila eskatzeko, eta bere erantzuna ezezkoa izan da", azaldu du. Udalak ez du ulertzen Jaurlaritzaren jarrera aldaketa. "Iazko otsailean gela desplazatua mantendu eta hobetzeko konpromisoa hartu zuten

eta iruditzen zaigu orain etorri den erabaki hau ez dela onargarria", dio zinegotziak. Gaineratu du "zenbakiei begira" hartu dutela erabakia, kontuan hartu gabe eskolarik gabe geldituko den herri bat dagoela atzean.

Gaur, bilera

Luis Ezeizako zuzendaritzarekin bilera egingo dute gurasoek gaur, 16:00etan, egoeraren berri izateko.

SAIOA URRUTIA GURASOA

"Ezin dugu onartu herria inongo eskola zerbitzurik gabe geratzea"

"Duela urtebete, Hezkuntza Delegaziotik esan ziguten gure eskola propioa ez zigutela emango, baina gela desplazatu hau mantentzeko eta hobetzeko ahaleginak egingo zituztela. Orain, berriz, daukaguna itxi egin behar dela esan digute. Beraz, eskola barik geldituko da herria, ez eskola txiki propiorik, ezta gela desplazaturik ere", azaldu du. Azpimarratu du bi urtetik gorako umetxoak egunero autobusean joan beharko direla Eskoriatzara eta herria, era horretan, ume barik geldituko litzatekeela egunean zehar. "Egoera onartezina da, eta, honen aurrean, herriak planto egiten du", azaldu du.

ARATZ OÑEDERRA IKASLE OHIA

"Gela ixten badute, herriaren zati bat galtzea bezala litzateke"

Oinederrak uste du garrantzitsua dela gela desplazatua mantentzea, hango umeek herriari bizitasun handia ematen diotelako. "Ez dut gela desplazaturik gabeko Gatzaga bat imajinatzen", dio.

Horrez gain, uste du gurasoendako oso eroso dela oraingo egoera, eta, gela itxiz gero, haiendako ere egoera zailagoa izango litzatekeela. "Nik hemen ikasten nuenean, nire gurasoek askatasun handia zuten, herrian bertan egoten nintzelako beti, plazan edo frontoian. Imajinatu egunero Eskoriatzara umeak eramatera eta gero hauen bila joan behar izatea zer izango litzatekeen guraso horiendako", azaldu du.

JON EGIDAZU IKASLE OHIA

"Herriko umeen arteko harreman ona ziurtatzen du gela hau edukitzeak"

"Herriak asko galduko luke gela desplazatua itxiko balute. Hurbiltasuna eta bizitasuna ekartzen dio gela horrek Gatzagari", adierazi du Egidazuk. Gatzagan hazteak eta ikasteak bertan errotzen laguntzen duela nabarmendu du. "Herriaren ikasten baduzu, herriari lotuta zaude, eta, gerora, joera handiagoa da herrira itzultzeko edota herriaren gelditzeko", dio.

Herriko harremanak sendotzen laguntzen duela uste du. "Bailarara ikastera joan izan garenean, beti mantendu izan ditugu herriko lagunak, nahiz eta klase desberdinetan egon", nabarmendu du.

Donostia Zutik mugimendua bailarara iritsiko da astelehenean

Mankomunitate aurrean elkarretaratzea egingo dute; ondoren, kanpaldi bat hasiko dute

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA
Gipuzkoa Zutik mugimendua elkarretaratzea egingo du astelehenean, ekainak 20, 19:00etan, mankomunitatearen aurrean, *Ustelak lurpera, bizitza da handiena* lelopean.

Hori bukatzean, batzar bat egingo dute, eta ondoren, kanpaldi bat hasiko dute. "Mankomunitate honek hartu dituen erabakien eta bultzatzen duen jendarte ereduaren aurrean gure aurkakotasuna adierazteko", azaldu dute. Asteburu honetan hiru aste beteko dira Donostian Gipuzkoa Zutik mugimendua plaza hartu zuenetik.

Kanpaldi horren helburua da denbora honetan errauste-giarekiko eta, oro har, horren atzean dagoen gizarte eredu-

rekiko aurkakotasuna adieraztea, eta orain, protesta hori bailarara eraman nahi izan dute bertako kideek.

Izan ere, debagoiendar talde batek "mugimendu eta filosofia hori bailarara zabaltzeko ordua dela" deritzo. Gaineratu dute Gipuzkoa osoko zaborra bailara honetara bidali behar dutela, eta, horregatik, protesta beharrezkoagoa dela.

Erraustegia pertsonen "zapalkuntzan" oinarritzen den eta gizartea "amildegira" daraman sistemaren ondorioetako bat dela adierazi dute mugimendutik. Horrez gain, "beharrezkoa ez dela" eta "gutxi batzuen patrikak betetzeko" helburu baka-rrarekin eraikiko den azpiegitura dela salatu du Donostia Zutik mugimendua.

Urkuluko eta Epeleko ur-araztegiak bisitatu dituzte bailarako udal ordezkariak

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak antolatuta, legealdi bakoitzean egiten dira bisita hauek, eta Debagoieneko alkate, zinegotzi eta teknikariei zuzenduta egoten dira, uraren gaineko azpiegituren gaineko informazioa jaso dezaten.

Iñigo Elosegi Gipuzkoako Ur Kontsorzioako zuzendariak azaldu du legealdi bakoitzean egiten direla bisita hauek:

"Legealdi guztietan saiatzen gara alkateei, zinegotziei eta udal teknikariei uraren inguruan dauden azpiegiturak erakusten", nabarmendu du.

Ur Kontsorzioa sortu zenetik, legealdi guztietan egiten dira bisita hauek. "Lau urtean behin bisitaldi orokor hau egiten dugu, baina, honetaz gain, bisita pertsonalizatuak egiteko ere eskatzen digute udalek", azpimarratu du Elosegik.



Udal ordezkarietako batzuk, Epeleko araztegiaren. | ENEKO AZURMENDI



EROSKI

ARRASATE

ONDO IBILI SANJUANETAN!



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.eroski.es



Pozik antolatzaileak Puntaik Punta jaiak eman duenarekin

Herriz herri joango da eta datorren urtean Bergaran egiteko asmoa daukate

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Mundumiraren ordez Leintz Gatzagan egindako Puntaik Punta jaialdiarekin pozik agertu da Koldo Azkoitia, Debagoieneko mankomunitateko Garapen Agentziako arduraduna: "Balorazio sakonik ez dugu egin oraindik baina orokorrean pozik gaude, eguraldia ere ez zen izan esandako besteko txarra eta". Hala adierazi du Goiena telebistako *Harira* saioan.



Koldo Azkoitia, Goiena telebistan. | MIRARI ALTUBE

Natura indargune

Debagoienean bidezidor asko daude, 30etik gora, eta mankomunitatearen ardura dira: "Horiek oinarri hartuta egindako jaialdia herriz herri joango da. Datorren urtean, Pol Pol mendizale elkarrearen urteurrena izanik, Bergaran egiteko asmoa dago", argitu du Azkoitiak. 40 mila euro inguruko aurrekontua izan du lehengoak eta horri eutsiko diote; gaineratu du: "Natura da Debagoieneko indarguneetako bat, eta hori aprobetxatuko dugu. Begirunez egiten den naturaren erabilera gora doa eta turismo jasangarria lan egiteko bide polita da".

Eskualdeko azpiegiturak prestatzen dihardute eta azken hamabost urteotan nabarmen hobetu direla dio; ondorioz gero eta gehiago dira turismoari begira bizi direnak: "Garapena geldoa da baina aurrera doa. Horren adibide da Ignaziotar bidea egitasmoa, Loiola eta Manresa lotuko dituen (Arantzazutik pasatuta)".

Enpresak eta ekintzaileak

Enprekin ere egiten du lan Garapen Agentziak: "Enpresa

txiki eta ertainei laguntzen dihardugu, eta bide batez elkarren arteko lankidetzak sustatzen".

Ekintzaileendako zerbitzua ere badute, ideien bideragarritasuna lantzeko batetik, eta abian jartzen laguntzeko, bestetik: "Oraintxe daude abian dirulaguntzak eta uztailean hasita trebakuntza ikastaroak egongo dira". Mankomunitatean laguntza eskatutako enpresak 80tik gora izan direla argitu du, eta horien %55ek bizirik dirauela hamar urtera.

Fan Hemendik Eguna ospatzeko gertu

Bazkaria, manifestazioa eta kontzertuak bihar Oñatin, aldarrikapenak eta jai giroak bat eginda

M.A. | OÑATI

Fan Hemendik Eguna aldarrikapena eta jai bateratuko ditu beste behin, Oñatin. Bihar, ekainak 18, seigarrenez egingo dute eta horretarako egun osoko egitaraua gertatu dute.

Manifestazioa

Trikitilariak lagun hartuta poteoan eginda hasiko dute eguna (12:30) eta ondoren bazkaltzeko elkartzeko dira Azoka Plazan. Arratsaldea girotuko die elektrotxaragak (18:00), eta gero, 19:00etan, manifestazioa izango da aldarrikatzeko guardia zibilak eta indar polizialak herritik "alde egiteko".

Bukatutakoan, ohi legez, ekintza nagusia egingo dute, eta ondoren jai giroak jarraituko du elektrotxaragaren laguntzarekin.

Eguna borobilduko dute kontzertuekin. 21:30ean hasita honako lau talde hauek jardungo dute oholta ganean: Txipittu, Autobus Magikoa, Kolpatu eta Gaitzerdik.

Coviteren eskaera

Terrorismoaren biktimen elkarrekin Covitek eskatu dio Eusko Jaurlaritzari Oñatiko kuartela babes dezala bihar "ezker abertzaleak egingo duen eskra-tzetik".



Fan Hemendik Eguneko manifestazioa iaz. | GOIENA

Debagoieneko ospitalean "ziurtagiriak lortzeko" egin direla kontratazioak dio ELAk

Ospitaleko ordezkariak diote ikuskatzaileen "lanak arindu" gura izan direla errefortzuen bitartez

M.A. | ARRASATE

ELAk salatu du Osakidetza Debagoieneko ospitaleko lantaldea indartzeko egin dituen kontratazioak "auditoretza egin arte" direla. Astean dabilta egiten auditoretza hori Joint Comission izeneko kalitatezko ziurtagiria lortzeko.

Ospitale horretako langileen beharren ganean EH Bilduko

parlamentari Rebea Uberak galdera egin zuela legebiltzarrean dio ELAk, eta hari erantzunez Darpon sailburuak erantzun zuela sartu berri diren erizainen "lanean jarraituko" dutela Joint Comission enpresaren auditoretza egin arte, erizainen erregistroak hala eskatzen duen unitateetan. ELAri "eskandaluzko

erantzuna" iruditua zaio eta sailburuari eskatu dio ziurtagiri horiekin "propaganda egiteari uzteko", eta baliabideak erabil ditzala gaur egungo lantaldea egonkortzeko eta gehitzeko.

Era berean, osasunarekin zerikusirik ez duen "propaganda kanpaina" jarri duela martxan Osakidetza dio sindikatuak, eta, hain zuzen, prozedura judicial bat ireki berri dela "diru publikoa desbideratu izanagatik" propaganda "modu iruzurtian" egiteko.

Ikuskatzaileen lana arindu

Debagoieneko ospitaleko ordezkariak argitu gura izan dute Joint Comission-en oinarritutako "kalitate ezaugarriekin" egiten dutela lan, eta pazienteari ematen zaion arretaren "kalitatea eta segurtasuna hobetzeko" dabilta audito-

toretza egiten. Gaineratu dute "pazienteari onurarako" den eta nazioarteko ospea duen ziurtagiria dela, eta pertsonala "esfortzu handia" egiten dabilela horretarako: "Batez ere erizainak; izan ere, historia klinikoan eta ikuskapen eta trebakuntza jardueretan erregistro berriak garatzeko lan sakona egiten dabilta".

Era berean, argitu gura izan dute "esfortzu handia" eskatzen duen ikasketa fasea bizi izan dutela, beste "edozein hasierako prozesutan" legez: "Baina etapa hau pasatu ostean lan jarduna hasierako mailara itzultzen da. Horregatik, lan egiteko modu berria bultzatu ahal izateko ikuskatzaileen eguneroko lanak arindu behar izan dira errefortzuen bitartez, eta horiek bukatuko dira auditoretza amaitutakoan".

Kaleratzeak Stop plataformak hainbat alegazio aurkeztu ditu

Etxebizitza duina legez okupatzeko aukera izateko eskubide subjektiboaren gainera dekretu proiektua aurkeztu zuen Jaurlaritzak maiatzaren 25ean, eta alegazioak egiteko epea zabaldu. Hala, Kaleratzeak Stop plataformak hainbat eskaera aurkeztu ditu Arrasateko udaltxean Jaurlaritzara bidera ditzan. Batetik, eskatu dute apirilaren 14an, prestazio ekonomiko berrien ganean legebiltzarrak onartutako akordioa betearaztea. Eta bestetik, hainbat alegazio, besteak beste, etxebizitza eskubidearen titularrei salgai dauden babes ofizialekoak alokairuan eskaintzea.



NISSAN
Innovation that excites



EDIZIO MUGATUA
NABIGATZAILEAREKIN

FABRICADO EN ESPAÑA

YOU+NISSAN
GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA.

Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen: nissan.es/promesacliente edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

ARABAUTO
Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - Tel. 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>
Kontsumo mistoa: 5l/100km. CO₂ isurpenak: 117 g/km.

Lurralde antolaketaren gidalerroak lantzeko parte-hartze saioak

Debagoiendarren proposamenak jasotzeko tailer presentziala egin dute martitzenean Arrasaten

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak, lurralde antolamenduen gidalerroei esker, hiri-eremu eta landa-eremuen arteko oreka zehazteko irizpideak zehazten ditu.

Egun indarrean dauden gidalerroak 1997an onartutakoak dira. Hori dela eta, hauek berritzeko eta egungo beharretara egokitzeko prozesua martxan dago. Hiru urte iraungo du, eta, horren baitan, herritarren proposamenak jasotzeko prozedura bat ezarri du Jaurlaritzak. Apiriletik irailera bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko hamasei eremu funtzionaletan tailer presentzialak antolatu dituzte, eta martitzenean Debagoienaren txanda izan zen. Tailerretara agertzerik ez dutenek sare sozialen bitartez egin ditzakete euren ekarpenak. Twitterren #DOT_Euskadi traola erabilita eta Facebooken *Lurraldea* profilean.



Herritarrek azalpenak entzuten. | XABI GOROSTIDI

Ekarpenak taldeka

Saioari eta proiektuari sarrera egin ondoren, bertaratutako herritarrek taldeka bildu ziren. Egungo egoera aldakorra kontuan izanda, 2040ra begira bost gai hauei buruzko ekarpenak egin zituzten: paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; landa-ingurunea; hirigunea; mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; eta zeharkako alderdiak.

Gai bakoitzak hainbat azpizgai zituen barnean. Hauei buruzko hausnarketak egin ondoren, taldeetako bozeramaileek euren ekarpenak aurkeztu zizkieten gainontzeko taldeei. Planteatutako ekarpenak azaroan Donostian egingo den Euskal Hiria kongresuan aurkeztuko dituzte. Lau

fase ezberdinetan banatutako prozesua izango da. Iaz, prozesu parte hartzaileari eman zitzaion hasiera. Aurten, aurrerapen dokumentua aurkeztuko dute eta tramitazioa hasiko da. 2017an hasierako onarpena aurkeztuko dute eta helburua da 2018rako behin-behineko onarpena lortzea.

Arrasateko EH Bilduk parte hartzeko dei egin zuen

Hezkuntza eredu propioa, presoen etxeratzea eta pentsio duinak lortzeko bozka eskatu zuten

X.G. | ARRASATE

Ekainaren 26an, herriko jaietan murgilduta egon arren, herritarrei parte hartzeko dei egin zien

Arrasateko EH Bilduk, asteazkenean egindako agerraldian.

"Datorren astean ez zaigu hitzordu, ospakizun eta entrete-

nimendurik faltako. Hala ere, arrasatearroi, hauteskunde hautan parte hartzeko dei egiten dizuegu, beste inork gugatik erabaki ez dezan", azaldu zuen Xabi Vallinak.

Herritarren arrazoiak

Agerraldian hainbat herritarrek hartu zuten parte. Pentsio duinak bermatzeko eta pribatizatzailea eta baztertzatzailea den LOMCE legearen aurka borrokatzeko, EH Bilduren aldeko botoa eskatu zuten. Horren aurrean, herritik eta herriarentzat eraikitako hezkuntza eredu propioa aldarrikatu zuten.

Erabakitze eskubidearen defentsarako, lan erreformaren aurka egiteko, abortu librea defendatzeko, euskal presoen salbuespen egoera amaitzeko eta gazteen prekaritatea konpontzeko EH Bilduren alde bozkatuko dutela adierazi zuten.



Arrasateko EH Bilduren agerraldian herritarrek hartu zuten hitza. | XABI GOROSTIDI

E-26



Eskoriatzako Pates Zubia lantegian, atzo. | ENENKO AZURMENDI

Debagoiena bisitatu dute EAJko zenbait hautagaik, kanpaina

Gatz Museoa, Pates Zubia lantegian eta Bergarako Munibe plazan izan ziren atzo

ENENKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Kongresurako eta Senaturako EAJren hainbat hautagaik Debagoieneko hainbat herri bisitatu zituzten atzo.

Joseba Agirretxea, Iñigo Barandiaran, Maria Eugenia Iparragirre, Vitoriano Gallastegi eta Jokin Bildarraitz izan ziren, besteak beste.

Gatz museoa sustatu

Bailarako EAJren ordezkariak aukera baliatu nahi izan zuten Gatzagako Gatz Museoa sustatzeko. "Barne turismoa sustatzea da gure asmoa, eta, arlo horretan, barnealdeko gatza oso elementu garrantzitsua da", dio Joserra Zubizarretak, Garapen Ekonomikoko batzordeburuak.

E-26

Nagua Alba, liberalizazioaren eraginez



Bergarako ekitaldia. | AHAL DUGU

X.G. | BERGARA

Podemos Euskadiko Gazteria zirkuluak agerraldia egin zuen Bergaran pasa den egubakoitzean, eta bertan izan zen Nagua Alba.

Zumarragako Arcelor Mittalen kasuari buruz mintzatu zen. Altzairuaren arloan berrikuntzetarako inbertsiorik ez egin izana leporatu zion EAJri. Inte-

res falta horren eraginez hainbat familiak lanpostuak galdu izanaren errua bota zion alderdi jeltzaleari.

TTIPen mehatxua

Ahal Duguko idazkari nagusiak TTIP akordioak Euskadi bezalako tokiko ekonomiei "kalte latza" eragin diezaikeela ohartarazi zuen.

E-26

Odon Elorzak sozialisten aldeko botoa eskatu zuen Arrasaten

E.A. | ARRASATE

Odon Elorzak ekitaldia egin zuen Arrasateko azoka txikian, hainbat alderdikideren laguntzarekin.

Madrilen gobernu sendobaten alde egingo dutela adierazi zuen. "Gertukoa izango den gobernu bat nahi dugu Arcelor Mittaleko arazoa bezalakoei garaiz aurre egiteko", adierazi zuen Elorzak.



Odon Elorza Arrasaten. | GOIENA

Aitor Lejartzegi | LKS Ingeniaritzako presidentea

"Gogoeta estrategikoari ekingo diogu aurten LKS kooperatiba biek"

25. urteurrenko ospakizun handiaren ondoren, LKS S.Coop. eta LKS Ingeniaritzaren proiektu garrantzitsuenak etorkizunarekin du zerikusia

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

25. urteurrena elkarrekin eta 700 lagun eta bazkiderekin ospatu zuten LKS S.Coop. eta LKS Ingeniaritza kooperatibek Donostian, Tabakaleran. Zifra ezin hobeeekin ospatu dute, gainera: LKS S.Coop.-ek 30,1 milioiko salmentak, 2,1 milioiko EBITDA eta 1,3 milioiko emaitza garbi kontsolidatua lortu zuen iaz, eta LKS Ingeniaritzak, 26 milioiko salmentak, 2,2 milioiko EBITDA eta 1,2 milioiko irabaziak.

Gaur egun, LKS marka bi kooperatibak duzue...

Bai, LKS S.Coop. eta LKS Ingeniaritza gara. Biak gara kooperatibak eta bakoitzak bere egitura du; baten 460 lagun dabilta, eta bestean, 376. LKS S.Coop.-en negozioak dira aholkularitza teknologikoa, kudeaketa aholkularitza eta abokatuak; LKS Ingeniaritzarena, arkitektura, azpiegiturak, industria eta energia. **Ospakizun handia egin duzue, Donostian, gainera.**

Hasieratik garbi geneukan bi kooperatibek batera ospatuko genuela, biok egin ditugulako 25 urte. Gainera, hasi, batera hasi ginen; Euskadiko Kutxatik 1991n ateratu ginen kooperatiba bakar bat gisa, eta 97an bide bi jarraitu genituen, baina marka berearekin, eraikin berean eta hartu-eman batuarekin. Eta garbi geneukan, 20. urteurrena bezala, 25.a ere batera ospatuko genuela. Bestalde, Donostian ospatzea pentsatu genuen, kulturaren hiriburua delako eta, Arrasaten gauden arren, enpresa gipuzkoarra garelako. Ilusio handiz antolatu genuen ekitaldi hura, denok batera ospatu genuen eta oso inpresio polita ateratu nuen nik.



Aitor Lejartzegi. | LK.

"Malguak eta azkarrak izan behar dugu mundu ezegonkorrean"

Zeintzuk izan dira LKSren historiako une garrantzitsuenak?

Batez ere, sorrera. Aurretik ere, LKS bazuen bere historia Euskadiko Kutxaren barruan. Hori eta gero, azpimarratuko nuke bereiztu ginen unea, 97an -baina beti eutsi diogu marka eta izaera bakarrari-, mugarri garrantzitsua izan zelako; eta gero, zabalkundea, Mondragon Korporaziotik Euskal Herri osora, lehenengo, eta orain, munduan.

Dena dela, egunero-egunero dago mugarri bat, egunero egin behar da lan, baina hiru une horiek lirateke garrantzitsuenak.

Zein da esku artean duzuen proiektu garrantzitsuenak?

Gogoeta estrategikoa; aurten hasiko gara hori egiten. Gauzak asko aldatzen ari dira, mundua egunero aldatzen ari da, eta ezegonkortasun horretan mugitzen ikasi behar dugu; malguak eta azkarrak izan behar dugu. Gogoeta hori, niretako, presidente naizen aldetik, erronka handia da. Esango nuke une polit eta garrantzitsua dela; krisitik irteten ari garela esaten digute eta guk ere horrela sumatzen dugu, eta orain, gure proiektu garrantzitsuenak da gogoeta hori ondo egitea.

Hortik doa Kaixo future, urteurrenko leloa?

Bai, ideia horixe da. Momentua berezia da, eta lelo horrekin azpimarratu nahi genuen 25 urte egin ditugula baina beste 25 egin nahi ditugula, eta horretan gabiltzala.

Eroskiren galeren %20, Erreserba Negatibora

Batzar orokorrean onartu zuten bazkideek norberaren kontuan hartzea galeren zati bat

JOSU BILBAO | ARRASATE

32,1 milioi euroko galerari bazkideek Norbanakoen Erreserba Negatiboaren bidez aurre egitea onartu du Eroski Taldeak eguaztenean BECen egindako batzar orokorrean. Eroskik iaz galdutako 158,3 milioi euroetatik 32,1 milioi (%20) euren gain hartuko dituzte 12.000 bazkideek, hirugarren urtez. Bazkideek ez dute euren poltsikoetatik ordain-

du beharko, galerak norberaren kontu horretan apuntatuko direlako, eta aurrerago irabaziekin orekatuko direlako.

Galeren beste %80ari dago-kionez, 47,5 milioi erreserben kontura izango dira eta 78,7, erreserba funtsaren kontura.

Aurten irabaziekin amaitzea espero duela esan zuen Eroskiko presidente Agustin Mar-kaidek.

EHUrekin lankidetzan indartu du IK4-Ikerlanek

Masterreko ikasleei bi mintegi eman zien, energiari eta sistema txertatuei buruzkoak

L.K. | ARRASATE

IK4-Ikerlanek bi mintegi egin ditu azken asteotan graduondoko ikasleentzat, eta energiari eta sistema txertatuei buruzko azken joerak partekatu zituen haiekin. Egitasmoaren bitartez, zentroak EHUko bi masterreko ikasleei lehen eskuko ikuspegia eskaini zien arlo horretako ikerketaren azken aurrerapenei buruz. Bi mintegiak Ikerlan

unibertsitateekin lankidetzan indartzeko egiten ari den ahalgintzaren barruan daude.

Alde batetik, zentroak Energia Berriztagarrien Integrazioa Sistema Elektrikoan masterreko ikasleen bisita hartu zuen, Hernaniko Galarretan; eta, bestetik, mintegi bat egin zen Sistema Txertatuen Ingeniaritza unibertsitate masterreko ikasleekin, Arrasaten.

AICk eta MUK hitzarmena sinatu dute automobilgintzaren sektoreko erronkei erantzuteko

Automobilgintzaren sektoreko gaur egungo nahiz etorkizuneko erronkei bien artean lankidetzan-esparrua errazteko helburuarekin hitzarmena egin dute Mondragon Unibertsitateak eta AIC-Automotive Intelligence Center fundazioak. Besteak beste, automobilgintzako profesionalen gaitasunak modernizatu eta garatu ahal izateko aukerak eskainiko dituzte.

Etorkizuneko sektoreen aldeko apustua berretsi du Mondragonek

'Smart city'-en eta fabrikazio aurreratuaren gaineko topaketak egin ditu

L.K. | BILBO

SmartEnCity proiektuaren barruan Gasteizko Coronación auzoaren birgaitze energetikoan egiten dabilen lana azaldu zuen Mondragon Korporazioak astelehenean Bilbon; baita fabrikazio aurreratuaren gaineko hainbat ikuspuntu ere. Horretarako bi jardunaldi egin zituen; goizean, Bilbao Berrikuntza Faktorian, eta arratsaldean, Guggenheimen. Jardunaldiak topaketa egitura izan zuen; bereziki, gazteekin -ekintzaileak, negozio berriak

martxan jarri nahi dituztenak edo ideiak dituztenak- topaketa egin zuten Mondragoneko ordezkariak, korporazioak etorkizunean garrantzia izango duten sektore berrietan egongo dela eta horko aukera berrien aldeko apustua egiten dabilela adierazteko.

Sektore horien artean daude smart city izenekoak (hiri inteligenteak; Coronación auzoan egongo den lana irizpide horien arabera izango da) eta fabrikazio aurreratuak, eta bi horiek landu zituzten topaketetan.

Zortzi ordezkari

Goizeko topaketan, lehenengo, Mondragon Korporazioko lau kidek hitz egin zuten: Lander Jimenez (LKS Ingeniaritza), David Sanchez Bote (MIK), Jesus Hernandez (Fagor Ederlan) eta Oscar Berreteaga (Ulma Embedded Solutions); arratsaldekoan, honako beste lau ordezkariak hartu zuten parte: Iraia Elgezua (Batz), Carlos Garcia (Mondragon Goi Eskola Politeknikoa), Peter Craamer (MSI) eta Nerea Aranguren (DanobatGroup).



Bilboko topaketako irudi bat. | MONDRAGON KORPORAZIOA

Mondragon Korporazioaren esanetan, helburu nagusia zen erakustea Mondragoneko kooperatibek herriarekiko duten "konpromisoa", baita, kasu honetan moduan, gero eta jakin-min han-

diagoa eta aukera gehiago pizten dabilzan esparru berrietan ere, eta haiek bultzatzen edo haietan ekiten dabilzan gazte eta ekin-tzaileekin. Topaketetara jende asko joan zen.

ZABALIK

JULEN ARRIOLABENGOA
goiena.eus/komunitatea/



Ermita-terapia

Gaixoak sendabidea gura dau. Ahalik eta azkarren. Gaur egun, medikuntza tradizionalaz gain, eskura ditu homeopatia, osteopatia, usain-terapia, barre-terapia, akupuntura... Eta herri jakintza ere hor dau, mendez mende, ahoz aho igarotakoa. Landareak dira herri sendakuntzaren protagonista, baina ermitek ere badauke bere lekua. Hona hemen gida laburtxo bat inguruan topau leikezen ermita batzuen senda-ahalmenaz, Azkuren lanetatik atarata:

Haginetako mina kentzeko, Urkiolan Santa Apoloniaren ermita aurreko iturrira joan behar da; aho bete ur hartu eta, ermitari hiru buelta emun eta gero, ura ermita barrura bota.

Umeari ahultasuna kentzeko, Dorletara eruen ume gaixoak pisatzen dauen beste gari. Ume makalak sendatzeko ona ei da bere aitak, praka gainetik alkandora dindilizka dauela, gauerdian etxeari hiru bira emutea.

Arangioko Kurtzetara, San Kristobalen ermitara eroaten dira belarriko mindunak. Hara binajera baten orixua eroan behar da, handik ekarten dan orixua ordezkatzeko -hartzeko emun be egin beharko da!-. Orixo horrezaz bederatzia egunetan belarriak igortzen dittue.

Gerriko mindunak Santa Eufemiara (Irazola auzoa, Abadiño) eroaten dabez eta argizaria gerrian lotu ohi dautse mindunari. Olaetan, gerriko mindunak Aizgorrira joaten dira. Han gerrikoaz santuari ikututa, kurtzeak egin eta ermiteari bueltak emoten dautsez -hori egitten dauenak gerriko min gutxi!-.

Ume negartiak Ubideara sartzean dauen Santa Engraciara eroaten dabez; eta han, altara-gainean umea luze ipinita, errosarioa errezatzen da.

Buruko mindunak Oro-ko Andra Mariaren ermitara joaten dira; bigarren Paskoz eta Asentsio-egunean, kanpai-azpian belarriko jarri eta berrogei bider Kredoa errezatzen da, kanpaia eskuaz dan-dan-dan jota.

Horrelako nekeak hartuta, normala berehalakoan sendatzea!

USTEAK USTE

MIREN ARREGI | miarregi@goiena.eus

Ehiza garaitik kanpo, tiro

Tiro hotsak entzuten ditut noizean behin etxeko balkoitik. Astean ere entzun ditut bi. Eta ez, ez da ehiza garaia. Kasualitatea, astean egin behar izan dut Eguzki talde ekologistako kide batekin elkarrizketa. Oñatin maiatzean tiroz bota zuten belatz handia dela-eta etorri da lantokira. Gipuzkoako fiskaltzak talde ekologistak ipinitako salaketa onartu du eta ikertzeari ekingo dio; izan ere, delitua da babestutako espezie bat botatzea. Oñatiko belatza aurkitu egin da eta horrek ekarri du ondorengo guztia. Sarri entzuten ditudan tiro hotsek zer bota duten jakitea ezinezkoa da, gehienetan. Agian, haiek ere botako zuten babestutako espezia.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Patxito, amatxito!

Leire Narbaiza Arizmendi
<http://goo.gl/8rzCIS>

-Amatxito!

-Zer, bihotzito?

-Eman patxito!

Ez naiz zoratu, ez dut ezer asmatu. Kanean entzundako berbak dira, euskaldunen ahotik.

Familiaren transmisioaren bidezko euskaradunak, sarritan alfabetatuak, euskaraz bizi direnak, herri nahiko euskaldunetan. Aitzakiarik gabeak. Ulertezina!

Badakit gure lagun Marimaistrak oihu eta espantuka jardungo lukeela halakoak entzutean, baina niri neuri negargura sortzen didate; zeharo normaldu eta hedatu direlako, batez ere umei zuzentzen gatazkienean.

Arrunta da guraso eta zaintzaileen ahotik entzutea *kremita, frutita, txaketita, platanito, bokadillito...* horrela zuek nahi dituzuen guztiak! Eredu paregabea gure umeendako.

Etxeko txikienekin erabiltzearen poderioz,

gainera, nagusion hizkuntza ere bihurtzen hasi da.

Lagun batek esan zidan kuadrillako afarian batek "beltzito" esan zuela, mutil beltz batez berbetan zebilela! Beltzito! Ufa!

Baina zer dela eta munstrokeria hau, euskaraz badugunean txikigarrik?

Ez ote du nahikoa txikitzen -txo atzizkiak? -tila-k? -xe-k? -xka-k?

Kontuan hartu *patxito-k* eta *amatxito-k patxo* eta *amatxo* dutela oinarri! -ito gaztelaniazko atzizkia gehitu, zertarako?

Zergatik gertatzen da hau? Ez dakit burmuinean zer dugun, baina argi daukat gaztelaniak agintzen duela gudan.

Izan ere, gaztelaniaz arlo batzuetan txikigarriak oso-oso zabaldua daude.

Esate baterako, sukaldaritzan: *unas verduritas, con patatitas, pescadito, un vinito...* Horrela, badirudi jaten eta edaten dugunak ez gaituela gizenduko, edo kolesterolik sortuko. Arinagoa dela, alegia.

Umeekin gaztelaniaz hitz egiten dutenen artean ere oso zabaldua dago txikigarriena: *un besito, las frutitas, ten caramelito, la cremita, dame*

un abracito, ¿quieres agüita?, límpiame la carita... Esaten zaien ia guztiak dauka -ito/-ita.

Konturatu ez bazarete, zabaldu belarriak! Entzungo duzuenak txundituta lagako zaituzte!

Etengabe ari dira dena txikiago bihurtzen, horrela gozoago balitz bezala.

Betiko moduan, erdararen legeari jarraitu behar diogu. Gaztelera txikigarriak? Guk ere bai.

Jakina, arrotza egiten zaigu *krematxoak, frutatxoak, txaketatxoak, platanotxoak, bokadillotxoak* esatean, euskararen tradizioan txikigarriak gauza txikiak adierazteko balio duelako, ez dira erabiltzen kontu afektibo edo goxoetarako.

Horretarako beste modu batzuk ditugu.

Halere, ezin diot azalpenik eman *patxito* eta *amatxito*-ri! Logika guztietatik kanpora geratzen dira! Norbaitek aurkituko balu, mesedez argitu diezagula!

Azkenean, baina, gure errealitate gordina, beti agertzen dena: gaztelaniari men egiten diogu, etengabe, gurea ahaztuta!

Irauliko ahal dugu jokamolde hau!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Uthane Madera

Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amalia Mundiñano, Zortza Martin,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzerain,

Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-butxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 00

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.850 ale

Difusioa: 18.507 ale



Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Debagoiena ere zutik!

Jone Ojea, Amagoia Muniozguren eta Igor Tome

Debagoiena

Gutxi batzuen mesedetan, gehienok prekarrietatera eta miseriararen kondentzen gaituen sistema ustel batean bizi gara. Gutxi batzuen neurria eraikitzen ari dira herri hau, soilik beraien interesei erantzuten dieten legeak eginez eta guztionak beharko luketen baliabideak mahai baten bueltan banatuz. Burla egiten digute.

Gipuzkoan eman diren atzerapausoei erreparatzea besterik ez dugu. Besteak beste, aberatsenei zuzendutako zergak ezabatu dituzte, gutxieneko diru sarrerak bermatzen zituen AGI diru laguntza kendu duten bitartean. Eta orain, gipuzkoarrok hurrengo 35 urteetarako hipotekatuko gaituen erraustegia eraiki nahi dute, beharrezkoa ez dela jakinda ere. Aipatzen genuen gutxiengo horren mesedetan hartutako beste erabaki politiko baten aurrean gaude, bizi dugun sistema ustel honen beste adibide baten aurrean, zalantzarik gabe. Gutxi batzuk aberastea da erraustegiaren eraikuntzak eduki dezakeen zentzu bakarra. Ez diegu utziko!

Ez dezagun ahaztu: gehiengo gara. Langabeziara edota prekarrietatera kondentatuta gauden gazteak gara, matxismoa pairatzen dugun emakumeak, hilabete bukaerara heltzen ez garen pensionistak, baztertuak garen etorkinak, lan erreformen ondorioak zein eskubide sozialen murrizketak pairatzen

ari garen herritarrek... %99 gara, gure lepotik bizi den %1aren aurka. Eta erraustegia eraikitzen badigute, berriro ere ziria sartuko digute. Betiko berdinek berriro ere patrikak beteko dituzte. Noiz arte? Mundu hau beraien neurria eraikitzen utziko al diegu?

Donostian *Gipuzkoa zutik* ekimenari hasiera eman zitzaionetik ia hiru aste pasatu diren honetan, bertan sorturiko olatua Gipuzkoa osora zabaltzeko unea iritsi dela deritzogu. Gure bailaran ere baditugu betikoen interesen zerbitzura daudenak, eta horiei ere parean izango gaituztela erakutsi behar diegu. Hona gure proposamena: astelehenean (ekainak 20) 19:00etan mankomunitate parean (Arrasate) elkarretaratze bat egingo dugu *Ustelak lurpera, bizitza da handiena* lelopean. Osteen, asanblada bat egingo dugu, borroka honetan gure bailaran eman beharreko pausoak zehazten joateko. Guztiok izango zarete ongietorriak. Animatu eta parte hartu, erraustegia gelditzera goaz eta! Ekarki bizipoza eta lotarako zakua!

Telebista aurrean lau ordu, kaltegarri osasunarendako

Josu Garitaonandia

(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Mikolajczyk doktoreak 1987an atera zuen konklusio hori.

Saguak eduki zituen telebista emititzen duen kutsadura elektromagnetikotik 30 zentimetroa egunean lau orduz, eta konparaketa egin

zuen kutsadurarik hartu gabeko sagu talde batekin.

Ondorioen artean, esaten zuen telebista aurrean egon ziren saguek garunetan sodio gutxiago zutela eta polikiago handitzen zirela.

Aholkatzen dute telebista aurrean denbora laburragoa egotea, eta, egoten garenean, tarte dezente batera egoteko; behintzat, telebistak duen diagonalaren neurria baino sei aldiz gehiago.

Kilometroak 2016, guztiok batera

Ekaitz Aranberri

(Kilometroak 2016ko koordinatzailea)
Bergara

Urte osoko bidea da Kilometroak 2016, eta Aranzadi Ikastolako hezkuntza komunitate osoak badihardugu egiten. Urtean zehar sortzen ditugun ekimen eta dinamikek urriaren 2an ospatuko dugun jai erraldoiaren pareko garrantzia daukatela badakigu.

Horrela, benetan txalotzekoa da proiektu hau egikartzeko lan egiten dutenen jarduna. Joan den asteburuan, esaterako, garagardo azoka antolatu genuen. 250 pertsona baino gehiago gogotsu lanean. Harro egoteko modukoa.

Bergarako herriarengandik jasotako erantzuna ere ez da makala izan. Eguenetik domekara arte, aurreikuspen guztiak gaindituz, beteta izan dugu garagardo azoka. Eskerrik asko etorri zareten guztiok, demasak zarete!

Bestalde, Usurbilen lekukoa hartu genuenetik dioguna ere badoa gorputza hartzen. Kilometroak 2016 herriarentzat

beharrean herriarekin antolatu nahi genuela genioen. Asmo horrekin jarri genuen martxan herri eragileekin parte-hartze prozesua. Lerro hauek parte hartu duzuen guztiok eskertzeko ere erabiliko ditut.

Joan den domekan Seminarioan egindako ekimena horren fruitu izan da, eta ekainaren 19an, datorren domekan, frontoian izango den kontzertu berezia ere horrela sortu da. Ohiko emanaldiaz gain, Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak, bere ekimenez, Kilometroak 2016ri idatzi eta eskainitako pieza aurkeztuko dute 12:30ean Bergarako Udal Bandak eta Orkestra Sinfonikoak. Maddi Iñarra bergararraren hitzak ditu eta Aranzadiko haurren parte-hartzea ere egongo da. Demasa izango da honako hau ere, seguru.

Aste Zapatista 2016

Oihana Irazu eta Ahinara

Zubizarreta

(Eskozap elkartearen izenean)
Eskoriatza

Ekainaren 6tik 11ra Aste Zapatistaren 16. edizioa ospatu genuen. Lan handia da baliabide gutxirekin ekintzaz beteriko astea antolatzea eta berau aurrera eramatea; hala ere, elkarlana eta ilusioa uztartzen direnean, esfortzuak merezi duela zalantza izpirik ez daukagu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu aurten eta aurreko urteetan ekimen hau bizirik jarraitu dezan lagundu dutenei:

Lander Besari eta Ioni kartelak egiteagatik. Haritz Bediari eta Rakel Askasibarri euren ezagupenak gurekin

konpartitzearen.

Donostialdeko Iargi Berdea-koei eta Mikel Blascori. Lumaltik eta Txiapasekin elkartetako Ceciri, Arkaitzi eta Javiri Mexikoko egoeraren berri emateagatik. Aretxabaletako Irri-Barreko Oskari eta Gu Haziak Gara elkartekoei elkarlanean eta pazientziaz gauza politak egin daitezkeela erakusteagatik. Jose Arana egoitzako egoiliarrei, senitartekoei eta langileei, baita Alaitzen taldeari ere, urterik urte egoitzakoek egunak alaitzearen. Auzoko taldekoei, Eskoriatzako Udalarari zein Luis Ezeiza eta Almen ikastetxeetako.

Sukaldean lagundu zutenei; bereziki, Durangoko Mariluri eta Rafari. Txotxeri, ama Olgari eta Carlos, Xenia eta Alaitz Constanziari. Txalapartariei eta Eskuernagako Kaxkabar dantza taldeari. Bazkarira etorri zineten guztiok. Abraham Arzateri barre algarak sorrarazteagatik eta Rosa Sanchez duen arteagatik eta urtero etortzeagatik. Aldo Milari eta bere bandari plaza dantzan jartzeagatik. Gatzagako Puntatik Puntako antolatzailerei.

Goienari; bereziki, Imanol Beloki kazetariari. Plazako tabernakoei; espezialki, Inkernukoei. Jubilatuen elkartari. Gazta-porran parte hartu zutenei, Mendibitzukoei eta errifak erosi edo saldu zituztenei. Baita Amuska emakume elkartekoei ere.

Halaber, esker ona adierazi nahi diegu eskoriatzar guztiei zein beste herri eta herrialde batzuetatik etorritakoei, modu batean edo bestean Aste Zapatistaren parte izateagatik.

Bihotz-bihotzez mila esker. Beste mundu bat posible dela biziki sinesten dugulako.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

HERRIAK

BERGARA



Kuadrillak San Martzialen, iazko erromerian. | GOIENA

San Martzial, erromeria iraunkorragoa helburu

- Biharamun-argazki deigarriak utzi ohi ditu jaiak ingurune naturalean
- Aurten ere hartu dituzte zenbait neurri hondakinik ez uzteko

JULEN IRIONDO | BERGARA

Bergaran tradizio eta indar handiko erromeria da San Martzialekoa, ekainaren 30a –santuaren eguna– osteko domekan izen bereko ermitaren inguruan egin ohi dena; eta aspalditxoan tradizio bihurtua da, baita ere, jaiak biharamunean ingurune natural hartan utzi ohi duen panorama, bertan botata utzitako hondakinak sortzen dutena, batez ere.

Hondakinak murrizteko eta horien kudeaketarako, Bergarako Udalak zenbait neurri berri hartu ditu aurten: honela, mahaiak eta aulkiak alokatzearekin batera, mahai bakoitzeko zortzi eda-

lontzi berrerabilgarri eta hondakinak gaika biltzeko poltsak banatzen ari dira –egunean bertan txosnetan ere eskuratu ahal izango dira–, eta edukiontzien puntu bat gehiago ere jarriko dute: "Jaia bukatu ondoren, eta San Martzial zegoen egoeran garbi uzteko, hondakinak bilketa gunera eraman beharko dira, egoki sailkatuta", diote Udaletik.

Hondakinekin sortu ohi den egoerak hor jarraitzen du –iazko argazkietan ikus daitekeen bezala–, baina Obra eta Zerbitzu batzordeko buru Lander Arregik nabarmentzen du erromeria egunean gertatzen diren kalteak,

gaur egun, ez direla, behintzat, egiturazkoak, "azken urteetan ingurumena babesteko egindako lanak emaitza dezente" eman dituelako; "hobekuntza izugarria" izan dela dio: Arregik gogora dakar lehen *terrazak* egin ohi zituztela, sua lurrean egiten zela, zuhaitzetako adarrak moztu, egurra bildu...

Salbuespenen bat izaten da oraindik; iaz, adibidez, kuadrilla batekin "arazo txiki bat" izan zela dio zinegotziak: "Sua egin zuten lurrean, eta aitzurrekin terraza luzatu apur bat"; kaltearen ordainetan, kuadrilla horrek lan sozial bat egin behar izan

zuen San Martin jaietan. Egingoaren ondoren, kuadrilla hartakoek jarrera ona erakutsi zutela eta gauza "konpondu" zela dio Obra eta Zerbitzuetako buruak.

Mendia Bizirik-en aldarria

Aurtengo hartutako neurriak "azken urte askotan egindako lanaren jarraipena" direla dio Lander Arregik. Izan ere, urteak dira, adibidez, Mendia Bizirik taldea –Pol-Pol barrukoa– ingurune natural harekiko errespetuzko jarrera lortzeko lanean jardun zela, taldearen aldarripenak Udalak bere egin zituela ikusi zuten arte; hain justu, aurre-

Mahaiak alokatzea

San Martzialerako mahaiak eta aulkiak alokatzearekin eta haiekin emango dituzten edalontzi berrerabilgarriekin lotutako zenbait ohar jakinarazi ditu Udalak.

ALOKATZEA Ekainaren 16tik 22ra –hau barne–, astegunetan, udaletxean, 18:00etatik 20:00etara. Eskatzaileko bost mahai gehienez. Mahai bakoitzaren alokairua, 28 euro. Bermea: 150 euro; 300, hiru mahai edo gehiago eskatuz gero.

ALOKATUTAKOAK

HARTZEA Uztailaren 2an, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialgo kanparako sarreran.

ITZULTZEA Mahaiak eta aulkiak: erromeriaren ondoren, 18:30etik 21:30era. Edalontziak txosnetan ere itzuli ahalko dira (edalontziko, euro bat bueltatuko dute).

BERMEA ITZULTZEA

Uztailaren 7tik 13ra, udaletxean, 18:00etatik 20:00etara.

ko agintaldian Udalak arau eta debeku sorta jasotzen dituen bandoa osatu zuen.

San Martzialekiko Mendia Bizirik taldearen aldarria, ordea, ez zen mugatu erromeria egunera; duela hamar urte, Udalak ingurua berreskuratzeko eta biodibertsitatea babesteko aktuzio garrantzitsu bat egin zuen; hori euren eskaria ere izan zela dakarte gogora Mendia Bizirik taldek.

Alderdien arteko bilerak

Orainaldira itzulita, erromeria eguna gertu dela –uztailaren 3an izango da aurten–, gaia esku artean darabilte udalbatzako alderdie-tako ordezkariak; gaia aztertze-ko bilera bat egin dute, eta dagokion batzordean ere jorratu dute. Ira-baziko Aiert Lizarralde txosten bat aurkeztu zuen duela zenbait aste, hainbat neurri proposatuz; EH Bildutik ere garrantzitsu jotzen dute gaia, eta aurtengotik harantzago festa iraunkorragoak lortze aldera lanean jarraitu beharra nabarmendu dute.

Gertukoena uztailearen 3koa da eta, amaitzeko Lander Arregiren mezua: "Jendeari gogorazi behar diogu baietz, jai bat dela, baina arduratsu jokatu behar dugula inguruarekiko".



Mahaiak eta inguruak hondakinak beteta, iazko biharamunean. | GOIENA



Lurrean sua eginda. | IRABAZI

Frutak nola ontziratu ikasteko "tailer praktikoa" biharko azokan

Jakion-ek emango du, Seber Altube plazan, 10:00etatik 12:00etara; aurrez izena emateko azken eguna gaur, BAZen edo Udalaren webgunean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ekaineko hirugarren zapatua izanda, baserriarren azoka egingo dute bihar Seber Altube plazan (09:00-14:00). Biharkoan 16 postu egongo dira, ohiko kopurua. Sasoi-ko eta bertako produktuak erosteko aukera izateaz gain, marmelada egin eta nola kontserbatu ikasteko aukera egongo da.

Marmelada tailerra 10:00etatik 12:00etara izango da; komeni da alde aurretik izena ematea. BAZen edo Udalaren webgunean (www.arrasate.eus) eman daiteke izena eta gaur da azken eguna. 15 bat lagunendako lekua aurreikusuten dute; zapatuan bertan lekurik balego egingo lukete leku bat, baina komeni da alde aurretik izena ematea.

Ez da lehen aldia Jakion ontziraketa enpresa baserriarren azokatik pasatzen dena: "Duela pare bat urte egin genuen Jakionekin antzeko tailer bat eta oso ondo irten zen. Orduan, barazkiak ontziratzeko saioa izan zen", adierazi du, asteon, Arrasate



Rakel Perez de Arenaza baserriarra Seber Altubean, artxiboko irudi baten. | IS.

Irratian, Udaleko Enplegu eta Garapen Saileko Marga Garmendiak. Marmeladaz gain, almibarreran edo pure eran kontserbatzeko azalpenak ere emango dituzte: "Zenbait ohar emango dituzte prozesuaren ordena, neurriak eta bestelakoak zehazteko".

"Tailer praktikoa" izango da biharko eta parte hartzaileek beharko duten material guztia Jakionekin jarriko du.

Saskia, Asubeko baserriatik

Biharko azokan egongo da, azken hilabeteetan ohitura duenez, Asubealde baserriko Jon Azkoaga gazte arrasatearra.

Arrautza ekologikoak ekoizten ditu Azkoagak, eta, dioenez: "Beste ekoizpen mota batzuekin alderatuta, oilo oso gutxi dira. Gutxi dituzunean mimo handiagoarekin tratatzen dituzu eta eurak ere hobeto egoten dira. Esker oneko

animalia da, ondo zainduz gero eman ematen du-eta", dio. Ekoizpen ekologikoa denez, baldintza minimo batzuk bete behar izaten dituzte Asubeko arrautzek, animalien ongizatearen zein ematen dien janaren kalitatearen aldetik: "Ezin diet edozein pentsu eman, egiaztatutako jaki ekologikoak eman behar dizkiet", adierazi du. Horrez gain, beste baldintza batzuk ere bete behar ditu oiloen ongizatera begira; esaterako, oilo bakoitzarentzat lau metro koadro izan behar ditu kanpoan dabilenean.

Gainera, azoka bakoitzean egiten den zozketarako otarrea Azkoagak berak prestatu behar du ekainean; arrautza ekologikoez eta jogurtaz gain, ortuko beste zenbait produktu ere sartuko ditu saskian.

Izan ere, Garmendiak gogora ekarri duenez, irabazleek "oso gustura" jasotzen dute saskia: "Hil bakoitzean baserri bati tokatzen zaio; oso ondo funtzionatzen duen ekimena da".

NIRE USTEZ



GAIZKA ERAÑA

Pilota

Fan dan zapatuen Debarroko pelota txapelketako finalak Atxabaltan jokatu die: kadetietan Bergara Oñatin kontra txapelkun eta gazte mailan bergararrak be arrasatearren, Ander Llodionen eta Ander Muruaren, kontra irabazle. Seniorretan, barriz, Soraluze garaille barrero be Bergarakuak kontrario ziela -Ibai Bolinaga arrasatearra bikotekide zalarik-.

Wikipediara jo dot pelotaren jatorrixe zein dan jakituko, eta, antza, antxiñako zibilizaziñotan jokatzan ei zan pelotan. Erdialdeko Amerikan, Ekialde Hurbillien eta Mendebaldeko European, oin dala mende asko jokatu izan da.

Euskaldunok geure egin eta jokuan ezaugarri batzuk aldatu dutsegu: jokalekua, joko arauak, jotzeko tresnak eta pelotie bera be aldatu dogu. Honi kiroloni gaur egun eusko pilota esatan dutsie mundu osuen.

Kontue da antzekotasun asko hartzen dutsetela pelotiai bertan berba egitten douen euskeriaz. Euskerian jatorrixe be nunbait aurreindoeuropar mundu ixilliko behelaiño artien dau gure pelotaren jatorrixa letxe.

Ezaugarri antzeko gehixau be badauko, tamalez: bixen egoerie ez da erabillerari dago-kixonez baikor agerketako modukue, bixak bihar daue, kultur ondare dien neurrixen, beranduau agertu dien hizkuntza edo kirolengandik babestie.

Zer egin geinke, ba, diruz laguntziatz gain bixak susper-tu daixien?

"Zer egin geike bixak [euskara eta pilota] suspertu daixien?"



ZAHAR-BERRI

Ikasturte amaierako berbalagunen afari-merienda

Zahar-Berriko berbalagunak oso gustura aritu dira, ikasturtean zehar, asteen behin euskara praktikatzan. Diotenez, ordubete konturatu gabe pasatzen zaie eta batzuek euskaraz hitz egiteko beldurra kendu dute. Gainera, datorren urtean ekimenarekin jarraitzeko asmoa agertu dute gehienek. San Juan egunean elkartuko gara berriro, Dragoi Janean.

KOMUNITATEA GOIENA | ZAHAR-BERRI
AED ELKARTEA | ARRASATE

Ibai-Artek bidaiatzeko aukera eskaini nahi die bere bezeroei

Ibai-Arte merkataritza elkar-teak beste fidelizazio kanpaina bat abiatu du asteon: *Bidaia-tu Ibai-Arterekin*. Ohikoa dutenez, Arrasate Txartela erabiltzen duen bezeroak erosketa egiterakoan jakingo du saritua izan den edo ez: "Ekimen hauekin, bezeroen fidel-tasuna saritu gura du Ibai-Arte", diote, ohar bidez. Bi sari sortu dituzte kanpaina berri-rako: *Lurraren Bihotzeraino Bidaia* eta *Hogei mila legoako bidaia itsaspetik*. Sari banaketa ekitaldian zehaztuko dute zer izango diren sari horiek; uztailearen 21ean izango da, Seber Altube plazan, 20:15ean.

Gora, sanjuanak!

BOKATA + KAÑA HANDIA edo KALIMOTXOTZARRA = 5,99€

Olarte kalea 12 • 20.500 ARRASATE | Tel.: 943 79 81 56

Calburu

Vasco Navarro trenak interes handia piztu du herritarrengan

Lehen bi egunetan 320 bat lagun pasatu ziren Kulturateko erakusketatik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Ez genuen halako jendetzarik espero. Aurkezpenean, Kulturateko Loramendi gela goraino bete zen, jendea zutik geratu behar izateraino, eta lehen bi egunetan 320 lagunetik gora pasatu ziren erakusketatik". Arrasate Zientzia Elkarteko Jose Angel Barrutia-bengoaren hitzak dira, Vasco Navarro trenaren erakusketaren irekieraz berbetan.

AZEkoek, "oso pozik", esker on hitzak izan dituzte. Batetik, Azpeitiko tren museoko arduradun Juanjo Olaizolarentzat: "Altzairua ikustearekin bakarrik badaki zein lokomotorarena den, zenbat bidaia egin dituen... Gaietan aditua da, erabat espezializatua, eta luxu bat guretako irekieran egon izana", dio AZEko Xabier Bengoak. Bestetik, Javier Susori ere aipamen berezia egin diote: "Ez da trenaren profesional bat,



Azpeitiko tren museoko arduradun Juanjo Olaizola bisita gidatua egiten. | E.A.

baina treneko langile baten semea da. Txikitatik du afizioa eta erretiratu denetik, trenaren munduan dago murgilduta, bereziki Vasco Navarroa-rekin. Tren berezi hori gehien ezagutzen duen pertsonetako bat da, Gasteizkoa". Susok "izugarri" lagundu die AZEko dokumentazio lanetan: "Aurkezpenean egon beharra zuen".

Uztailaren 8ra arte zabalik

Oraindik Kulturateko klaustrotik pasatu ez denak uztailaren 8ra arte izango du horretarako aukera. Honako hau da ordutegia: asteleheneetik zapatara, 17:30etik 20:30era. AZEkoen bat egongo da erakusketa zabalik dagoen bitartean, herritarrei edozein zalantza argitzeko gertu.



ARRASATEKO UDALA

Kooperatibismoak senidetuta

Sunchales kooperatibismoaren eredu da Argentinan eta harreman berezia du Arrasatekin, bi herriak senidetuta daude. Argentinatik bisita izan dute asteon, eta bisitak balio izan du bi herrien arteko harremanetan sakontzeko. Kooperatibismoari dagokionez, Arrasate "mundu mailako erreferentea" dela adierazi du Fundacion del Grupo Sancor Seguros kooperatibako ordezkari Javier Di Biasek.

Identifikatu dute igogailu publikoa erre zuen ustezko egilea

Jose Luis Iñarra kaleko igogailu publikoa erre zuen ustezko egilea identifikatu du Udalak bertako bideokamerari esker: "Arrasatear guztien poltsikotik ordainduko dira igogailuaren konponketak, 8.741,21 euroko kostua izango dutenak. Hala ere, legeak ahalbideratuz gero, Udalaren asmoa da egileak berak ordaintzea kaltea". Horrez gain, azkenaldiko "ekintza eta jokabide bandalikoak" salatu ditu Udalak, Udala plazan eta Obenrrekan edukiontzia erre zituzten eta. Horregatik, erresetua "bizikidetzarako ezinbesteko oinarri gisa" defendatu dute Udaletik.

'Jul' Bolinagaren omenaldiko DVDa, hilaren 21ean Amaian

2015eko ekainaren 27ko JULHNE27 (Jul Harro Nago Ekainak 27) kontzertu "errepikazina" jasotzen duen DVDa estreinatuko du Jul-en Lagunak taldeak ekainaren 21ean Amaia antzokian (20:30). DVD bikoitza izango da eta estreinaldian bertan jarriko dute salgai, hamar eurotan. Amaia antzokian estreinatu ostean hainbat tokitan jarriko dute salgai ikus-entzunezkoa. Antolakuntza taldea harro dago kontzertu harekin lortu zutenarekin: "Harrotasunez eta hunkituta esan dezakegu belaunaldi oso ezberdinetako testigantza esanguratsuak eta egiazkoak lortu genituela".

Eskerrik asko herri galdeketa egia bihurtzen lagundu duzuen guztioi

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARRASATE

Herri mugimendutik antolatutako ekimenak ez lirakeke posible izango herritarren parte hartzerik gabe. Ekainaren 5eko herri galdeketa ere, ez legoke, zu gabe, aurrera eramateko aukerarik.

Egun horri begira lanean esku-zabal aritu zineten boluntario guztiei eskerrik asko! Bozkatzera eta giro onean kaleak alaitzera hurbildu zineten guztiei... mila esker! Eta nola ez, gure eskerrik beroenak laguntzaile izan ditugun herriko enpresa, taberna, denda... Guzti-guztiei! Bidearen lehen pau-

soa besterik ez da; asko dugu oraindik egiteko. Eta horretarako daukagu etorkizuna gure esku. 2013ko giza katean 3.000 arrasatear baino gehiago bildu ginen eskuak elkarlotzeko ilusioz. Bi urte geroago, 4.505 pertsona izan gara hautetsontzietan gure nahia zein den erakutsi nahi izan dugunak. Lortutakoarekin harro egonagatik, ziur gaude askoz gehiago izan gaitzekela. Horregatik, laster, erabakiaren bidean elkar ikusiko dugulakoan... Besarkada bat!

Sagardo garaia amaituta, erretegi moduan orain.

Udako menuak.
Abuztuan eta irailean ere zabalik!

Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Zaindu maite duzun hori!
Ondo pasau sanjuanetan!

Ferrerias 28C - Arrasate
Tel.: 943 79 96 55

Gora, sanjuanak!

Adara
ILE-APAINDEGIA

Tel.: 943 08 10 68
Biteri etorbidea 15 behea
adarailapaindegia@gmail.com
Arrasate

JOSE MARI SALEGI
HARATEGIA • URDAITEGIA

Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu (txorizo, tripakiak...)

943 79 45 55
Olarke kalea 20
ARRASATE

SAN JUAN
JAI ZORIONTSUAK!

eya Ondo pasatu sanjuanak!

Etxetresna elektrikoak eta dekoraziorako lanparak

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA

BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDAIAZPIKOAK
TXORIZOAK

Gora, sanjuanak!

Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

Vene Herrero | Antzerkilaria

"Obratik gehien gustatzen zaidana giza erlazioen gainbeherak dira"

'Aingeru ala kurriloi' antzezlanaren zuzendaria da eta domekan antzetzuko dute Amaia antzokian

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Vene Herrero idazleak erronka berri bati heldu dio duela gutxi. Antzerkiarekiko daukan zaletasunak bultzatuta, Doke Antzerki Taldearen *Aingeru ala kurriloi* antzezlanaren zuzendaritza lanetan murgilduta dabil.

Nolatan suertatu zaizue obra hau antzetzeko aukera?

Arrasatekoa naizen arren, urte asko pasa ditut kanpoan bizi izaten. Berriz itzultzerakoan, Doke Antzerki Taldeko partaideekin erlazio handia izan dut eta urtarrilean obra hau zuzentzea proposatu zidaten. Hori entzute-rakoan, ilusioz beterik baietz esan nien.

Zenbat denbora eskaini diezue obra honen prestaketa lanei?

Kasu honetan, urtarrilean hasi ginen lehen urratsak egiten eta maiatz hasieran estreinatu genuen. Asteazken hiru edo lau aldiz entzuten aritu gara. Taldean sartu nintzenerako, aktoreek testu gehiena buruz zekiten. Gogorlan egiten duen taldea da.



Vene Herrero. | X.G.

Zein gai jorratzen ditu antzezlanak?

Batez ere, zapalketaren eraginez gizakien arteko loturarik leialenak nola apur daitezkeen ikus daiteke antzezlanean. Kasu honetan, familia arteko erlazioetan ikusten da gainbehera hori. Protagonista bakoitzak bere erara egiten die aurre gainbeherak eragindako arazoei.

Gaur egun ikus daitezkeen gaiak dira. Mezu konkreturen bat bidaltzeko asmorik baduzue?

Guk egoera bat ekartzen dugu taula gainera, ondoren bakoitzak bere ondorioak atera ditzan. Egia da pasarte batzuk oso muturrekoak izan daitezkeela, baina ikusle asko identifikatuta sentitu daitezke, errealitatearen parte diren egoerak direlako.

Arlo pertsonalean, zer gustatzen zaizu gehien antzezlanetik?

Erlazioen gainbeherak. Nola sor daitezkeen inkomunikazio basamortu bat oso gertukoak diren pertsonen artean. Bestalde, Doke Antzerki Taldean aurkitu dudana giza talde zoragarria ere azpimarratu nahiko nuke.

Maiatzean estreinatu zenuten antzezlanaren, Aramaion. Orduetik hona, zer-nolako harrera izan du?

Ba, egia esan, jaso ditugun iritzi guztiak oso positiboak dira. Bai entzun ditugunak eta baita irakurri ditugunak ere. Era horretako inputek ilusioz beterik jarraitzeko bultzada ematen digute.

Domekan Arrasaten aurkeztuko duzue. Etxekoen aurrean antzetzeko urduritasun handiagoa eragiten al du?

Alde batetik, bai. Ezagunen aurrean antzetztean, dena bikain ateratzea nahi izaten da. Baina, bestalde, ikustera datozenak abegikortasun handiagoz jasotzen dute norberaren lana.

Zein proiektu dituzue Doke taldean etorkizunari begira?

Bagabiltza testu berriak aztertzen. Baina oraindik ez dugu erabaki zein bidetatik joango garen. Kalitateari dagokionez, beste urrats bat egitea gustatuko litzaiguke.



Arrasate musikalekoak pasa den urtean kontzertua ematen. | IMANOL SORIANO

Arrasate Musikaleko kurtso amaierako jaia

X.G. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita egingo dute urteroko kurtso amaierako jaialdia Arrasate Musikaleko ikasleek. Amaia antzokian izango da eta sarre-ra debaldekoa izango da.

Udaberri musikala jada azken txanpan sartuta dago. Ekaina izan da aurtengo musikaldiko ekintza gehien pilatu dituen hilabetea. Hamar ekintza antolatu dituzte, eta, hain zuzen, nagusien artean kokatzen da kurtso amaierakoa.

Askotariko musikariak izango dira protagonista gaurko emanaldian. Tailerreko ikasleak,

talde mistoak, hari-talde gazteak eta ballet taldeak izango dira Amaia antzokiko oholtzara igozko direnak, eta urtean zehar ikasitakoak erakusteko asmoz aterako dira guztiak.

Zapatuan danborradan

Hala ere, ez da izango asteburu honetako ekintza bakarra. Tradizioari eutsiz, Arrasate Musikaleko Bandakoek umeen danborradan hartuko dute parte. 19:00etatik aurrera, Arrasateko danbor-jole gazteekin batera, herriko kaleak girotuko dituzte. (Informazio gehiagorako, ikus gehigarria 10. orrian)

Elai abesbatzak kantaldia egingo du parrokan

X.G. | ARRASATE

Aramaioko Elai abesbatzako kideek San Juan jaien aurretik egiten duten kontzertua eskainiko dute zapatuan.

San Juan Bataiatzaile parrokan izango da, 20:30ean hasita. Elai Txikikoek emango diote hasiera saioari. Ondoren, Elai abesbatzakoak bakarrik arituko

dira. Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez abestuko dute. Eta amaitzeko, elizako koruko gizonetakoekin batera bost abesti abestuko dituzte.

WAVE
THEM

San Juan jai zoriontsuak guztioi!

Otalora lizentziaduna kalea 21, Arrasate
'On line' denda: www.wavethem.com

errekak
taberna - jatetxea

Ondo ibili sanjuanetan!

Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
errekajatetxea.eu

harresi
ILE-APAINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!

Zerkaosteta 16 Behea
943 79 77 59
ARRASATE

Gora, San Juan jaiak!

ARPE
Ile apaindegiko artikulua

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Ondo ibili sanjuanetan!

sarrailagintza
RAUS - 24h - RAOS

SARRAILAGINTZA-LANAK
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
OINETAKOEN KONPONKETA
Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak

Bañez doktorea 6, behea • Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57
raoscerrajero24horas.com

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

'Basque Nation' padel Txapelketa jokatu da asteburu honetan

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

AKE Padel taldeak *Basque Nation* izeneko padel txapelketa antolatu dute astebururako Musakolako kiroldegian. Emakumezko, gizonezko eta bikote misto kategorietan banatu zuten izen ematea. Gizonezkoetan hamabi bikote lehiatuko dira, baina, denbora faltagatik, ezin izan dira emakumezko eta misto kategoriako koadroak osatu.

"Oso justu ibili gara denbora aldetik eta pena handia eman digu kategoriaz horiek ez osatu izanak. Egia esan, gero eta neska gehiago ikusten ditugu padel kantxetan, eta eurek ere parte hartzea nahi genuen. Baina

aurtengoan ez bada datorren urtekoan lortuko dugu", adierazi du Markel Gomez antolatzailerak.

Izen berezia

5 euro ordaindu beharrean 20 ordainduta, 31 euroko betaurreko batzuk lortzeko aukera eman diete antolatzailerak parte hartzaileei. "Beste txapelketa batzuetan horrelako ekimenak ikusi ondoren, gurera ekartzea pentsatu genuen antolakuntzatik. Betaurreko etxearen izena *Nation zenez*, Txapelketari *Basque Nation* izena jartzea erabaki genuen", azaldu du Gomezek.



Ointxe!-ko infantil taldekoek maila aparta erakutsi dute Espainiako Txapelketan. | OINTXE! SASKIBALOI TALDEA

Ointxe!-ko infantil mailakoak gogor borrokatu dira Espainiako onenen aurka

Ligaxkako hiru partidua galdu dituzte, baina bitan, bi puntuko aldeagatik

X.G. | ARRASATE

Infantil mailako Espainiako Saskibaloitza Txapelketan parte hartu dute Ointxe!-ko neskek. Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde geratu ondoren lortu dute estatu mailako talde gogorrenekin lehiatzeko aukera.

Malagako El Palo, Kanariar uharteetako Spar eta Valladolideko UVA taldeen aurka jokatu dute. Ez dute partidarik irabazterik lortu, baina gehienetan garaipena eskura izan dute azken unera arte. Izan ere, hirutik bitan, bi puntugatik eman dute amore.

Onenen artean lehiari

Emaitzek ez lagundu arren, maila ezin hobea eman dute Ointxe!-koek. "Partidu guztietan %200 eman dute neskek, eta, zentzu horretan, ezin dezaket gehiago eskatu", azpimarratu du Iñaki Ogara taldeko prestatzaileak.

Lehen norgehiagokan Malagako El Palo taldearen aurka jokatu zuten. Markagailuan atzetik joan ziren, baina alde oso txikiarekin. Azken laurdenaren amaieran 6 puntuko alde zuten arrasatearrek, baina, taldeko antolatzailerak kaleratu ondoren, partidua ihes egin zien azken bi minutuetan, eta bi puntuko aldearekin galdu zuten debutean.

Bigarren neurketan, Spar Gran Canariak 41 puntuko aldearekin irabazi zien, baina emaitzak ez zuen kantxa barruan gertatutakoa islatu. "Zortzi puntu bera heldu ginen atsedendira. Hirugarren laurdenaren nekea nabaritu genuen eta 18 puntuko aldearekin amaitu zen laurdena. Momentu hartan, ohiko jokalariei atsedena eman, eta denen parte hartzea lehenetsi nuen. Kanariarrek ez zuten kiroltasun handirik erakutsi, eta estu hartu zituzten arrasatearrek

azken laurdenean. "25 puntuko aldean izan arren, azken bi minutuetan 21-2ko partziala sartu ziguten", azaldu du Ogara.

Lehen bi partidua galdu arren, final-laurdenetarako sailkatzeko aukerarekin heldu ziren ligaxkako azken partidura. Valladolideko taldea txapelketa irabazteko faboritoen artean zegoen; beraz, gauzak oso ondo egin beharra zuten Ogararen neskek. "Euren jokalaria garrantzitsuak gelditzeko planteamenduak fruituak eman zizkigun. Espainiako selekzioan dabilen jokalaria bat zen euren izarra, eta talde lanari esker gelditzea lortu genuen", azaldu du Ogara.

Hirugarren laurdenean, Valladolidekoek 17 puntuko alde lortu zuten, baina, bost minutuan lortutako 19-2ko partzialari esker, berdinketa ezarri zuten arrasatearrek. Tamalez, 30 segundoren faltan baloia galdu eta aurkariak saskiratu ondoren, bi puntugatik galdu zuten, 64-62.

Urteko balorazioa

Lorpenez beteriko urtea amaitu ondoren, zera adierazi du Ogara: "Taldearen denboraldia 10ekoa izan da. Saski eskolako lan onaren emaitza ere izan da".



BESAIDE MENDI ELKARTEA

Besaideren Artzaintzaren Bidea

27 lagun batu ziren domekan Besaide MEk antolatutako Artzaintzaren Bideko laugarren etapa egitera. Hasierako ibilbidea zertxobait laburtzea erabaki zuten, eta 17,5 kilometroko ibilbidea egin zuten Sarriako parketxetik Lizarraraino. Irudian, Goiuriko ur-jauziko behatokia ateratako familia argazkia.

Nua

ESTETIKA ZENTROA

GORA, SANJUANAKI!

Sebero Altube plaza 7
ARRASATE
943 79 62 14

oihane@nuaestetika.com

ZUBI-LAN

KONPONKETAK ETA SALMENTAK

ONDO PASA SANJUANAKI!



Husqvarna

TRESNAK


Nekazaritza
Lorezaintza
Basogintza



MOTORRAK

Salmenta
Konponketa

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4, 17. pabilioia
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33 - jmabizeta@gmail.com
Arrasate



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

San Juan jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK GUZTIO!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

"Koherentzia" eta "parte-hartzea" nabarmendu ditu Udal Gobernuak urteurreneko balorazioa egiterakoan

Parte-hartzearen gaia gai "transbertsal" moduan jorratzen ari direla azpimarratu du alkateak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Koherentzia nabarmentzerakoan, Letek dio oposizio zirenean eta kanpainan, bietan, esandakoei jarraitu diotela Gobernuaren urtebete honetan, eta gaineratu du koherentzia horrek, besteak beste, erraztu zuela alkate aldaketa: "Harro esaten dugu atzera pausorik eta geldialdirik ez dela egon, eta ez dela egon koherentzia horrekin jarraitu dugulako lanean, talde oso baten lanak lagundu duelako, eta alkate ohia- ren ekarpena eta laguntza momentu guztietan agerian izan dugulako".

Alkateak azpimarratu duen bestea, Gobernuak parte-hartze-ari eman dion garrantzia, par-

te-hartzea gai "transbertsal" moduan; parte-hartzea arlo politikoan, Bozera maileen Mahaia sortuz -lehenengoz-, adibidez: "Lau alderdietako ordezkariak hasi gara biltzen, egutegi bat daukagu horretarako, eta denok gaiak proposatu eta aztertzen ditugu".

Herritarren parte-hartzeari dagokionez, berriz, hondakinen gaineko galdeketa, Seminarioko aretoko prozesua, Zubietako urbanizazioari buruzko bilerak, Ipintzako harmailaren gainekoa edo Labegaraietako kirolgunearen gainean eta landa auzoetan egitekoak direnak aipatu ditu.

Era berean, Letek azpimarratu du sortu dituztela gune finkoak

eragileen ekarpenetarako eta parte-hartzerako: kultura batzarra, kirol eragileen batzarra eta gizarte eragileena; azkenekoari dagokionez, Berdintasunaren Mahaia sortzeko lehen urratsak egin dituztela jakinarazi du.

Ezustekoei erantzuna

Urtebete honetan ezustekoei erantzuteko hartutako erabakiak ere nabarmendu ditu, Errekalde jau-regiko hormarena, Espoiloiko kioskoarena eta luiziek hondatutako baserri bideen gainekoak, adibidez.

Eta legegaldi osorako Udalak diru laguntzen plan estrategiko bat eta bakarria izatea ere azpimarratu du: "Hor nabarmen gertatzen da ze arlo sustatu nahi dugun, gizarteak ze eskatu digun eta ze diru laguntza bideratzen ditugun horretarako".



Gobernuko kideak balorazioa egiteko deitutako agerraldian. | JULEN IRIONDO



Zubietako urbanizazioari buruz astean egindako bilera. | MAITE TXINTXURRETA

Harmaila igerileku aldera, Seminarioko aretoa Pazkoetarako

Aurreko astean kirol eragileekin egindako bileraren ostean, Ipintzako harmailaren gaia lasaiago aztertu eta ekarpenetarako tarte bat eman diete eragileei. Dena dela, Udaletik jakinarazi dute harmailaren kokapena erabakita dagoela; saihebidetaren aldean kolektorea doala kontuan izanda, beste aldean, Agorrosinekoan jarriko dute harmaila. 30 metro luze izango ditu, eta 150 jarleku, hiru ilaratan.

Bestetik, Seminarioko aretoari dagokionez, Goiena telebistako *Debagoiena zuzenean* saioan Elena Lete alkateak adierazi du hurrengo urteko Pazkoetarako espero dutela erabilgarri egotea.

HELDUEN HEZIKETA

"BERAIEK BEZALAKO PERTSONAK PRESTATZEN DITUGU"

ETORRI INFORMATZERA ETA BIDERATUKO ZAITUGU!

Mery Nkuba, 20 urte,
(Ruanda)

Helduen Eskolan Bigarren Hezkuntzako Graduatu lortu ondoren, ikasten jarraitzea erabaki nuen. 8 ordu egun batxilergoa ikasten dihardut.

Majid Hussain naiz eta 31 urte ditut.
Cartelania ikasi nuen Helduen Eskolan. Gero Pakistanen nituen ikasketak kontsolidatu nituen. Ondoren Aituna Institutuan Goi Mailako fabrikazio mekanikoa Gradua ateratu nuen. Gaur egun lanean nabil.

Miguel Mari Jauregi 52 urte,
(Antzuola)

Langabezian nengoenez, Helduen Eskolara horbildu nintzen Bigarren Hezkuntzako Gradua ateratzeko asmoz eta bertako irakasleek Goi Mailako sarrera proba prestatzera animatu ninduten. Aorten bukatu dut Goi Mailako elektronika Gradua.

18 urte baino gehiago badituzu, ez laga aukera pasatzen. Atera ezazu Bigarren Hezkuntzako Gradua eta zabal itzazu formatzeko eta lana topatzeko aukerak.

OHO ko titulua ez da nahikoa Lanbide Heziketan sartzeko. Doakoa eta Ikastetxe publikoen berme guztiekin.

EZAGUTU GURE ESKAINTZA

- * Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko aukera.
- * Unibertsitatera eta Goi Mailako Zikloetara sartzeko prestakuntza.
- * Ingelesa, Frantsesa, Informatika.

BERGARA: Irizar jauregia. Barrenkalea 33. Tel.: 943 76 44 52
Oñati: Larrañaga Institutua. San Lorenzo auzoa. Tel.: 943 78 35 77
Sorluze: Ballegietan 18. Tel.: 943 753017

Egun osoko festa egingo dute Xabalote gaztelekuaren urteurrena ospatzeko

Bost urte bete dira Zabalotegiko gunek ateak zabaldu zituenetik

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

2011n zabaldu zuten Zabalotegiko frontoiaren alboan Xabalote gaztelekua. Urteurren berezi honen harira, egun osoko egitaraua prestatu dute biharko, zapatua.

Xabi Solanorekin solasaldia

Egitarauaren barruan nabarmen-tzekoen artean, Xabi Solano musikari ospetsuaren solasaldia dago. Besteak beste, Esne Beltza taldeko liderra da Solano. Berarekin berriketan egiteko aukera izango dute gazteek.

Ikasturte bukaera

Hurrengo asteburua izango da gaztelekua zabalik egongo den azkenengoa, ondoren, udako oporretan, gunea itxita egongo da eta. Hala ere, uztailean ere hain-



Xabi Solano. | GOIENA

bat ekintza antolatuko dituzte. Beraz, urteurrena ikasturteari agur esateko jaia ere izango da.

Urteurrenetik aurrera, gainera, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako neska-mutikoen ere gaztelekuko zerbitzuez gozatzeko aukera izango dute.

GAZTELEKUKO URTEURRENEKO EGITARAUA

11:30 Gaztelekua zabaldu.

12:00 Solasaldia Xabi Solanorekin.

13:00 Paella lehiaketa. Ondoren, bazkaria.

18:00 Jolasak.

20:00 Kontzertuak gazteek osatutako herriko hiru talderen eskutik.

21:30 Afaria.

00:00 Gaztelekua itxi.

Liburutegiko zerbitzua zabaltearen alde Osintxun

M.T. | BERGARA

Osintxuko eragile eta auzokideak Udal ordezkariekin bildu ziren eguaztenean auzoko liburutegiari buruz hausnartu eta eztabaidatzeko.

Liburutegiak hogeita urte baino gehiago daramatza Osintxun. Orain, baina, horretaz arduratzen den pertsonaren lan jarduna bukatu egingo da, eta Udaleko kultura zinegotzi Maite Agirrek azaldu du momentu egokia iruditu zaiela auzokide eta eragileekin batera zerbitzua birpentsatu eta proposamenak jasotzeko. Osintxuaren aldetik ere eskaera hori jaso zutela azaldu du.

Hausnarketaren emaitzak

Liburutegiaren alde positiboak, alde negatiboak eta proposamen berriak zerrendatu zituzten. Positiboen artean, auzoan liburutegi zerbitzua izatea oso ondo baloratu zuten guztiek, baita bere baitan antolatutako ekintzak ere, umeen bisitak edota irakurketa kluba bezala.

Negatibotan, komunikazio falta nabarmendu zuten, jendeak liburutegian antolatzen diren berri izan dezan eskatuz, eta Bergarako Udalarekin ere komunikazio zuzenagoaren falta aipatu zuten. Liburuak sarriago berritzea ere eskatu zuten, baita oporretan zenbait egunez gunea zabalik egotea ere, besteak beste.

Proposamenen artean, bizi-lagunak liburutegiko zerbitzua zabaltearen alde agertu dira, eragileen elkargunea izan dadin eskatuz, eta liburuazain soila beharrean dinamizatzaile profila ere izango duen pertsona baten beharra azpimarratu zuten.

NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO



Esperientzia interesgarria

Hartua nuen Julenekin konpromisoa gehiezin 1240 karaktereko iritzi artikulua idazteko. Idazten hastera noanean konturatu naiz ez dudala merezi duen ezer buruan. Irtenbidea, burua txuri laga, inguruko zaratatetik isolatu, telefonoa pikutara, eta ea zer ateratzen den Word-en bitartez. Zorionez ez dago Olivettiren beharrik...250 karaktere minutuan, akatsik gabe azterketan... (gorroto barik).

Pasatu dira 30 minutu, lana bukatu dut; zentzurik gabekoa irten zait, hitz asko errepikatu egiten dira, nik maite ditudan izenak, herriak, nire problemak, kezak eta beste hainbat inongo zentzurik ez daukatenak ere, baina ikusten dut atentzioa eman didan zerbait.

Sarri errepikatzen diren hitzak: Afrika, beldurra, gosea, ura, kinkis... izen asko mai-tagarriak, baina, hau da hau, inoiz ez Mariano, ez PePe, ez PP, ez Napoleon, eta aldiz, sarritan kolekta, (ez Koleta) nire ustez, Stoltz-Freres organoaren aldeko diru bilketan egiten dihardugun ahalegina-gatik. Zergatik izango da ba? Atera zait ere sarritan sozial, eta ez dut uste zerikusirik daukanik alderdi sozialistarekin, garai bateko Kooperatiben kontseiluarekin baizik. Eta agertzen da Erroma ere, nire ustez, Koru Parrokialak hara joateko nahian gabiltzalako. Batean ere ez da irten Espainia, ez Peru, ez Malta, ez inongo paradisu fiskalik; ostera, hiri afrikarrak eta beste hiri batzuk bai.

Argi dago buruan prozesatu ditudan hitzak, azkenaldian niretzat merezi duten ideiekin zeharo lotuta doazela.

OHARRAK

OPARITU ZUHAITZ BAT

Ekainaren 23an, 19:30ean, berbaldia: kutsadura elektromagnetikoa, Fiare eta banku etikoak, kooperatiba energetikoak eta Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoa.

EGUAZTENEN AZOKA

Ekainaren 22an, tokiko eta garaiko produktuen salmenta eta 19:00etatik aurrera umeendako ur jolasak Oxirondo plazan.

ODOL EMATEA

Ekainaren 22an, osasun zentroan, 18:00etatik 20:00ak arte.

San Juan jaietako ospakizunak, auzoan zein herrigunean

Bihar hasiko dituzte jaiak San Juan auzoan, 19:00etako makal altxatzearekin. Jarraian, triki poteoa eta Tartufon afaria egingo dute. 23an, eguena, suak piztuko dituzte baserrietan. Bestalde, San Martin plazan solstizio gaua egingo da, Xaxauk antolatuta, 22:30ean.

San Joxepekoek mendi irteera egingo dute ekainaren 23an

09:30ean irtenda, Mekolalde-Gallastegi Torre-Basalgo-Zubi berri-San Joxepe ibilbidea egingo dute, hamarretako eta guzti. Bestalde, hilaren 27, 28 eta 29an jolasak egingo dituzte egoitzaren kanpoaldean: boloak, igela, toka...

Aurkeztu dugu aurtengo Kilometroak jaiko zirkuitua

KOMUNITATEA GOIENA
KILOMETROAK 2016 BERGARA

Zirkuitu eroso, atsegin eta praktikoa prestatu dugu Kilometroak 2016koek. Lau kilometro eta erdi inguru ditu, 2007an Bergaran Kilometroak egin zeneko zirkuituan oinarrituta dago eta haren ibilbide oso antzekoa du. Laua eta urbanoa da, eta segurtasun neurri guztiak betetzeaz gain, herritarrei ahalegin txikia eskatzen diena.

Bost gunek

Bost gunek izango ditu zirkuituak: lehen gunea Aranzadiko jolas lekua izango da; bigarrena, Espoloia; hirugarrena, Labegarietako kiroldegi ingurua; laugarrena, Matxiategiko hilerri ondoko aparkalekua; eta

bosgarrena, Oxirondo-Usondo ingurua. Hiru sarrera-irteera izango ditu: Labegarietan, Matxiategin eta Ibargaraiko autobus geltoki nagusian.

Zirkuitu luzeagoa egin nahi dutenendako Udalarekin batera Goiko trenbidetik Toki Eder eta Basarte inguruan tarte bat gehitzeko aukera aztertzen gabiltza.

Balioak

Zirkuitua balioak lantzeko espazioa ere izan behar da; bereziki, prebentzioa eta jasagarritasuna. Alkoholaren prebentziorako zirkuitu aproposa dela uste dugu, baita parekidetasunaren aldekoa ere. Bestalde, hirigunean kokatuta egotea hondakinak kudeatzeko lagungarria izango da.



BERGARAKO UDALA

Goiko estazioa txukuntzen

Bergarako Udaleko langileak Goiko estazioa bezala ezaguna den gunea txukuntzeko lanetan hasi dira aste honetan. Hondakinak erretiratu eta gunea ondo jarri ostean, berdegune bat ipiniko dute. "Modu honetan, urte askoren ondoren, bergararrek leku txukun baten ondoan paseatzeko aukera izango dute", dio Udalak oharrean.



M.T.

Axolagabetasuna aparkatzeko deia

Aparkatu zure axolagabetasuna izeneko erakusketa jarri du Caritas erakundeak, non eta Ibargaraiko lurrazpiko parkingean. Zortzi aparkalekutan instalazio bana jarri dute, gizarte bazterketaren aurpegi desberdinak irudikatzen dituztenak. Herritarrengan arazo horrekiko kontzientzia piztea du helburu ekimenak. Astelehenera arte dago ikusgai.

Potato taldearen kontzertua izango da biharko gaztetxe egunaren baitan

Gaur gau erotikoa izango da kartzela zaharrean, Martxanterak-ek antolatuta

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Hilabete oparoa izaten ari da ekaina Bergarako gaztetxean; izan ere, 16. urteurrena ospatzen dihardute. Horren baitan, biharko izango da egun handia, gaztetxe eguna egingo baitute.

Horren aurretik, gau erotikoa izango da gaur, Martxanterak talde feministak antolatuta. Hala, 20:00etan *Mantazpitik* poesia musikatuena saioa izango da Soraluzeako Korner Morea taldeko kideen eskutik. Bukatzean, "piskolabis parte hartzailea" egingo dute, eta 22:30ean, berriz, *Sexijentziak askatuz clown* antzezlan izango da.

Gaztetxe eguna

Biharko gaztetxe egunari ekingo diote dagoeneko ohitura bilakatu den *pati-poteo-mozorro-musikatua*rekin, 11:00etan.

Gero, bazkaria izango dute (14:30ean), eta arratsaldean, berriz,



Zapatuko auzolan erraldoiaren ostean bazkaria egin zuten patioan. | BGA

Traka-traka elektrotzaranga kaleetan zehar ibiliko da. Gauean, 22:30ean, 30 urte baino gehiagoko ibilbidea duen Potato ska-reggae talde mitikoak kontzertua eskainiko du. Segidan, DJak izango dira: DJ Elvis Caino AKA Plinio Garum vs DJ Angiolillo. Ordu txikiak arte luzatuko da jaia.

Ekintza oparoak

Egunotan hainbat ekintza antolatu dituzte gaztetxean. Nabarmenezkoen artean, egubakoitzeko bertso saioa, areto nagusia bete zuena. Bestalde, zapatuan auzolana egin zuten gaztetxea txukundu eta garbitzeko, eta 40 pertsona baino gehiago batu ziren.

Mariaren Lagundia jaia giro onean

Kurtso bukaera inguruan urtero egiten duten moduan, Mariaren Lagundia ikastolako jaia egin zuten zapatuan. Jolasak, puzgarriak, bazkaria... denetarik izan zuten, eta, eguraldiaz lagunduta, primeran ibili ziren.



MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

Juan Luis Goenagaren artelanak Aroztegin ikusgai gaurtik

Donostiako margolari ospetsuak erakusketa jarriko du Barrenkaleko aretoan. Gaur irekiko da, 18:00etan, eta uztailearen 3ra bitartean izango da ikusgai. Donostiarak espresionismo abstraktua lantzen du, eta ibilbide luze eta oparoa dauka, munduko hainbat txokotan izan dira bere lanak.

Udako euskarazko V. postal lehiaketa martxan da

Jardun euskara elkarteak bosgarrenez antolatu du lehiaketa. Postalek jatorrizkoak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Jardunen bulegora eraman edo bidali behar dira irailaren 18a baino lehen. Edozein pertsonak har dezake parte eta nahi beste postal bidal ditzake.

Bubani eta Petit de Meurvilleri buruzko hitzaldia museoan

Zumalakarregi museoan Mikel Alberdi historialariak bi landare-zale atzerritarri buruzko hitzaldia eskainiko du bihar, zapatua, 11:30ean, Laboratoriumen. Museoan ikusgai dagoen Loreak Asmatzen erakusketaren inguruko egitarauaren baitan kokatzen da berbaldi hau.

Kadete eta gazte mailetako pilotari bergararrak Debarroko irabazle

M.T. | BERGARA

Domekan Aretxabaletan jokatutako Debarroko pilota txapelketako finaletan, maila guztietan izan zituen ordezkariak Bergarak, eta bi irabazi zituen.

Kadeteetan, Etxanizek eta Gartzia 22-13 emaitzarekin menderatu zuten Oñatiko bikotea (Perez-Perez). Gazte mailan, berriz, Zubizarretak eta Oterminek 22-18 irabazi zieten Murua eta Llodio arrasatearrei.

Nagusietan, Soraluzeren aurka ezin izan zuten ezer egin

Perezek (Muguruzaren orde) eta Iñarrak. 22-6 bukatu zuten.

Gaurko finalak

Gaur, lau terdiko Udaberri txapelketako finalak izango dira. 18:30ean, alebin errendimendu finalaurrekoa: Bergara-Asteasu.

19:00etan, finalak: kadete 2. maila: Arakistain-Euskal Jolas; kadete 1. m.: Gallastegi (Bergara)-Gure Txeru); gazteak: Mendizabal (Beloki)/Oiarbide (Intxurre) eta nagusiak Iñarra (Bergara) / Egiburu (LAPKE).



Bergarako ordezkariak domekan Aretxabaletan. | REYES AZKOITIA

Kaco Forns eta Juanjo Albiñanaren bakarrizketak

M.T. | BERGARA

Umorezko bakarrizketa saioa izango da bihar, hilak 18, Juanjo Albiñana eta Kaco Forns komedianteen eskutik. 20:00etan izango da Zabalotegi aretoan, eta sarrerak zortzi eurotan egongo dira salgai leihatilan.

Telebistan aritzen dira biak, saio ezagunetan umorezko bakarrizketak egiten. Gainera, aktore lanetan ere aritu izan dira, umorezko hainbat telesailetan kolaboratu dute.

Albiñana Albacetekoa da, eta sarritan erabiltzen ditu bere jatorriari buruzko erreferentziak umore errekurtsu gisa. Egunerokotasuneko gauzak umorez kontatzea da Fornsaren ezaugarri bereizgarria.

Pol Poleko beterranoen irteera asteburuan, gazteena hurrengoan

Pol-Poleko beterranoak Picos de Urbion aldean ibiliko dira asteburu honetan zehar, zapatu goizean aterata eta domekan itzulita. Bestalde, gazte taldeak datorren asteburuan egingo du irteera; hain zuzen, Donostiaraino zeharkaldia egingo dute 25ean eta 26an. Izen ematea Pol Polen bulegoan.

Ariznoako gimnasten ikasturte bukaerako erakustaldia

Gaur, egubakoitza, 18:30ean Bergarako gimnasia erritmikoko kideek ikasturte bukaerako erakustaldia egingo dute Labegaraletan. Gimnastek kurtsoan zehar ikasitakoa plazaratuko dute. Adin eta maila desberdinetako gimnastak hainbat modalitatetan ikusteko aukera izango da.

Musika eskolako diplomoen banaketa eta dantza ikuskizuna gaur

18:30ean, Mariaren Lagundian, instrumentu desberdinak jotzen dituzten hainbat ikasleri diplomak banatuko dizkiete. Segidan, kontzertua eskainiko dute. 22:00etan, dantza ikuskizuna izango da Espoloian. Dantza eskolako ikasleek hartuko dute parte, musika eskolako eta Gazte orfeoiko kideen musikaz. Zumarragako dantza taldekoak ere izango dira.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

MIZPILDI
OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Musika, antzerkia eta zinema eskaintza jaso du aurtengo Kalean egitarauak

Musika eskolako ikasleek gaur egingo dute ikasturteko azken kontzertua, 18:30ean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Uda sasoirako kontzertuak, antzez-lana eta film emanaldia Kalean egitarauaren barruan sartu ditu beste behin Oñatiko Udalak. "Aurten ere saiatu gara disziplina ezberdinak sartzen udako kultura agendan. Herriko taldeen presentzia ere bermatu gura izan dugu eta euskararena eta emakumearena ere bai", adierazi du Nerea Zubiak, kultura zinegotziak.

Ekitaldi gehienak eguaztentean izango dira aurten. "Horixe izango da, akaso, aldaketa handiena. Beti asteburuarekin lotzen ditugu horrelako ekitaldiak, baina edozein egunetan gozatu daiteke kulturaz eta proba hori egin dugu", adierazi du Nerea Zubiak. Tokiei buruz ere badago

berritasun bat. Iaz Bidaurretan egin zuen bezala, aurten San Migel parrokiaren atarian egingo du Ganbarak emanaldia. Elektrotzarangaren kalejirak, bestalde, Esait-ek abuztuaren 2an Oñatin bukatuko duen mendi martxarekin bat egingo du.

Erakustaldia

Gaur, egubakoitza, da Kalean egitasmoko lehen kontzertua. Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen ikasturte bukaerako kontzertua izango da. "Musika estilo ezberdinak entzungo dira eta taldeka hartuko dute parte. Urte guztian ikasitakoaren erakustaldia izango da. Ea eguraldi ona egiten digun", dio Aitor Madinak, musika eskolako zuzendariak.



Musika eskolakoak joan den ikasturte bukaerako kontzertuan. | GOIENA

EGITARAUA

EKAINAK 17

18:30 Musika eskolako kontzertua. Foruen plazan.

UZTAILAK 1

22:00 Udako gabak. Ganbara abesbatza. Parrokiako atarian.

UZTAILAK 6

19:00 D'Capricho Habanako duo musikala. Lazarragako lorategian.

UZTAILAK 13

19:00 Lekord taldea. Musika eta poesia. Lazarraga lorategian.

UZTAILAK 20

19:00 Arcana Has Soul taldea. Atzeko kalean.

UZTAILAK 27

22:15 'Chef' filma, euskaraz. Plazako frontoian.

ABUZTUAK 2

19:00 Elektrotzaranga. Herriko kaleetan.

ABUZTUAK 28

19:00 'Letter' antzez-lana. Foruen plazan.

Harrobiari buruzko bilera egingo dute astelehenean

Handitzeak ingurumen eta hirigintza arloetan ze eragin izango lituzkeen azalduko dute

O.E. | OÑATI

Aridos Aloña enpresak kudeatzen du Arantzazuko harrobia, eta handitzeko baimena eskatu dio Espainiako industria ministerioaren barruan dagoen meatzaritza sailari. Onartuz gero, Kortakogaineraino helduko litzaiteke, herri lurak hartuta. Egoera zein den eta handitzeak zer esan gura duen azaltzeko, herritarrei zuzendutako bilera informatiboa egingo dute datorren

astelehenean, hilak 20. 19:00etan izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

"Arantzazuko harrobiaren handitze horrek ingurumen arloan eta hirigintza arloan ze ondorio izango lituzkeen azaltzeko, bi departamentu horietako teknikariak egongo dira bileran, Aitor Gerenabarrena eta Iñaki Landa. Eurek emango dituzte azalpenak", adierazi du Mikel Biain alkateak.



Arantzazura bidean dagoen harrobia. | O.E.

Aholku batzordea

Herriko hirigintza antolamendua lantzeko proiektua jarri du martxan Oñatiko Udalak, eta aholku batzordea ere eratu da. Ekainaren 29an egingo du lehen bilera era-

tu berri den batzorde horrek eta harrobiaren handitzea izango da hizpide izango duten gaietako bat. Asteleheneko bileran emango dituzte gaiari buruzko xehetasunak.



Semaforoa jarri dute berriz

San Martin auzoan bizi diren herritarrek eskatuta eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko, semaforoa jarri dute berriz Martzelino Zelaia eta Aita Lizarralde kaleen bidegurutzean. Zebra-bidearen alde bietan jarri dute semaforoa, eta botoiduna da, oinezkoek zapalduta gorri jartzeko. Goialdean sentsore bat jarri dute ibilgailuak eta oinezkoak detektatzeko.

Trautik jolasak ekarriko ditu bihar plazara

O.E. | OÑATI

Trauti elkarteak urtero egin ohi duen Trauti Eguna ospatuko du bihar, zapatua, goizean. "Aurreko urteetan bezala, jolasak egongo dira elbarrien tresnekin eta laguntza teknikoaren erakustaldia egiteko asmoa ere badugu", adierazi du Rafael Kortabarriak, Trauti elkartearen kideak.

Foruen plazan egingo dituzte jolasak, 11:30etik aurrera. Elkartearen kideak hantxe egongo dira, laguntzen, eta baita elkartearen inguruko informazioa ematen ere. Bazkide egiteko aukera ere egongo da.

50. urteurrena ospatuko du bihar Kurtze Baltzek

O.E. | OÑATI

Kurtze Baltz elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten, eta bihar, zapatua, ospatuko du urteurrena.

Elkartearen bazkideek hartuko dute hitza, lehenbizi, 11:45ean, eta 12:00etan, Jose Antonio Azpiazu historialariak *Lehenagoko gure jende modernoak* izenburuko hitzaldia egingo du. Hori bukatutakoan, 13:00 aldera, jatekoa eskainiko zaie elkartera joaten diren guztiei. Domekan, berriz, hildako elkartearen aldeko meza egingo dute Bidaurreta monasterioan, 12:00etan.

Munduko arrazolatarrak Oñatira datoz asteburuan

Arrazola abizena duten 200dik gora lagun elkartuko dira gaurtik domekara bitartean Oñatin. Kolonbiatik, Belgikatik, Gaztela-Mantxatik eta Madrildik etorritakoak egongo dira tartean. Bihar, 10:30ean, ongi-etorria egingo die alkateak unibertsitatean eta hitzaldiak izango dituzte gero, 14:00ak arte. Etzi, Olabarrrieta eta Arrazola bisitatuko dituzte.

Astelehenean bilera irekia egingo da jai nagusiak antolatzeko

Astelehenean, hilak 20, bilera irekia egingo dute aurtengo San Migel eta Errosarixoko jaiak antolatzeko. Kultura etxean izango da, 18:30ean. Bestalde, kultura etxeko eta udaletxeko sarreretan kutxa batzuk jarri ditu kultura sailak, herritarren proposamenak, ideiak eta antolakuntza parte hartu gura duten herritarren datuak jasotzeko.

Udaleku irekietako umeen gurasoek bilera dute eguaztentean

Aurtengo udaleku irekietara joango diren umeen gurasoekin bilera egingo dute Txaloka ludotekako arduradunek datorren eguaztentean, hilak 22. Gaztelekuan izango da, 18:00etan gazteleiaz eta 19:00etan euskaraz. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra dira aurtengo udaleku irekiak, eta ze plangintza prestatu duten azalduko zaie gurasoei.

Guadalupe Arregi eta Felix Arregi omenduko dituzte domekan

Guadalupe Arregi (95 urte) eta Felix Arregi (90 urte) omenduko dituzte domekan. Erretiratuen Asteari bukaera emango dion bazkaria egingo dute Zubikoa kiroldegian, 14:00etan, eta han jasoko dute omenaldia herriko bi adineko hauek. Udal musika bandak, Oñatz dantza taldeak eta herriko bertsolariek ere parte hartuko dute bazkarian.

Madalenako ermitara bisita berezia egingo dute etzi eguerdian

Ignaziotar Lurralde egitasmoko Ezkutuko Altxorrek egitarauaren baitan, Santxolopeztegi auzoko Madalenako ermitara bisita gidatu berezia egingo dute domekan, 12:00etan. Izena aurrez eman behar da: 943 79 64 63 edo 943 71 89 11. Borjako San Frantzisko bi urtez bizi izan zen ingurua hobeto ezagutzeko irteera izango da.



Iazko San Juan sua, plazan. | GOIENA

Dantzez gain, antzerkia egongo da San Juan suan

Ekitaldiaren hasieran, Irazan taldeak antzezlan bat eskainiko du, jatorria eta historia azalduz

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Urtero bezala, hainbat ekitaldi egongo dira San Juan bezperan, ekainaren 23an. Urteroko dantza ekitaldiaz gain, aurten berritasun bat ere egongo da. Izan ere, Irazan taldeak San Juan suaren jatorriaren eta mitologiaren gaineko 10-15 minutuko antzezlan bat eskainiko du gaueko ekitaldiaren hasieran, 22:30ean, plazan.

Hori baliatuta, sua piztuko da eta ondoren dantza ekitaldiari hasiera emango zaio. San Juan

dantza, fandangoa eta arin-arina egingo dituzte. "Soka dantza ere egin izan dugu, baina aurten ez dugu dantzatu", dio Axier Alonsok, Oñatz dantza taldeko kideak. Nabarmendu du 40 bat dantzari inguruk hartuko dutela parte.

Horrez gain, gerturatzeko dei egin die herritarrei. "Oso egun polita izaten da, eta plaza beteta egongo dela uste dugu", azpimarratu du, baikor.

Dantza ekitaldia bukatzean, *Herria Dantzan* taldearen eskutik

dantza herrikoiak ikasteko eta dantzatzeko aukera egongo da. "Herritarrek dantza egitera animatzea da asmoa, guztion artean momentu on bat pasatzea", adierazi du Alonsok.

Pintxo-pote tematikoa

Gaueko ekitaldiaren aurretik, arratsaldean ere zenbait ekitaldi egongo dira San Juan bezperan.

18:30ean buruhandiak eta erraldoiak egongo dira herriko kaleetan zehar.

Horrez gain, pintxo-pote tematikoa ere egongo da. Izan ere, San Juan bezpera eguna da eta pintxo-potearekin bat egiten du. Horregatik, herriko tabernekin adostu ostean, hauek San Juane-kin lotutako pintxoak -formaren bat emanda edota izenen bat jarrita- egingo dituzte.

Torreauzoko kroserako izen-ematea zabalik dago

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Uztailaren 3an izango da Torreauzoko krosaren XIX. edizioa, 11:00etan. Dagoeneko izena eman daiteke www.herrikrosa.eus webgunean, Mendizabal Kirolak dendan, Aloña Mendi tabernan edota Arrasateko Intersport Loramendi dendan.

Aurrez izena emanda 8 euro ordaindu beharko dira eta egunean bertan, 12.

Aurten, lehen aldiz, Abixaran taldeak antolatu du lasterketa.

Sailkapenei dagokionez, lehenengo emakumezkoak eta gizonezkoak saria izango dute eta lehenengo oñatiar emakumezkoak eta gizonezkoak ere bai.

Horrez gain, emakumeen parte-hartzea eta lasterketa taldeka egitea sustatuko da, hainbat sariren bitartez.

Izan ere, babesle asko dauka lasterketak, eta, horren ondorioz, mota guztietako sariak egongo dira.

Lasterketak 7,5 kilometroko luzera izango du, Torreauzotik Olaterako joan-etorria, Bukaeran, luntxa egongo da.

NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA



Hauteskundeak, hezkuntza, eskola

Aste honetako iritzia emateko gaiari buruz pentsatzen, irakasle onop garaiari buruzko umorezko zutabe bat nuen buruan, ekainaren lehen astetik behin eta berriz "Oporrentan zauzei?" galderari nola erantzuten diogun, edo horrelako zer bait.

Baina, umorea joan zait kurtso amaiera honetan. Hauteskundeetan gauden garai honetan politikarien hitz hutsalek amorrazioa eragiten dituzte. Gobernuan dauden alderdiek hezkuntza dute ahotan une oro; egunerokoan, berriz, eskola publikoari dioten errespetu falta nabarmena da.

Donostialdeko ikastetxe publikoko zuzendariak agiri bat plazaratu zuten asteazkenean, esaldi honekin amaitzen zutena: "Eskatzen duguna zera da, erakunde publikoek irakaskuntza publikoa benetan zaintzea".

Esajeratzen ari ote dira? Adibide bat: Eskola publikoko irakasle bat gaixotzen denean bost egunetan Hezkuntza sailak ez du ordezkorik jartzen. Baina lasai, datorren kurtsoetik aurrera, hamar egunetan ez da ordezkapenik egingo. "Ikasleak bitartean?", galdetuko duzue, galdera ona!

Guztia konpontzeko gobernarien taktika erraza da, "errua beste gobernuak dauka, beste alderdiak". Bestela, irakasle onordutegi, opor eta alferkeriak plazaratuta iritzi publikoan dudak sortzen dituzte.

Nerea egiten dut Donostialdeko zuzendarien aldarrikapena.

"Eskola publikoari dioten errespetu falta nabarmena da"

Gaur egingo ditu Aloña Mendik batzar nagusia eta denboraldi amaierako afaria

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

19:30ean izango da batzar nagusia, Atzeko kaleko egoitzan. Aurreko aktaren irakurketa, denboraldiko kirol balantzea eta balantze ekonomikoa izango dira jorratu-ko dituzten gaiak.

Horrez gain, denboraldi amaierako afaria ere egingo du kirol elkarteak, eta bertan, ohiko sariak banatuko dituzte: kirolzaletasunari sariak, kemenari saria, erregulartasunari, golegile nagusia, eta abar.

Futboleko bi taldek, saria

Gipuzkoako Federazioaren eskutik, ohorezko erregional mailako taldeak eta ohorezko infantil mailako taldeak kirolzaletasunaren saria jasoko dute ekainaren 24an, eta gaur aipamena egingo zaie.

Elkar Hezi eguna ospatuko dute bihar, egun osoko egitarauarekin

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Bihar, zapatua, askotariko ekin-tzak egongo dira langile, irakasle, ikasle zein familientzat, Elkar Hezi egunean.

Goizean, altxorraren bila mitologikoa, punkari buruzko tailerra, bizikleta konponketa eta zirkuitua, Txokolatexara bisita eta beste hainbat ekitaldi egongo dira. Bestalde, LHko zelaian, puzgarriak eta ohe elastikoak, aurpegi margotzea, xaboi ponpa erraldoiak eta globoflexia ere izango dira.

Bazkaria kiroldegian izango da eta 13:30ean kalejiran hur-bilduko dira bertara. Bazkaria girotzeko, argazki proiektzioak izango dira, musikarekin batera. Arratsaldea, berriz, kontzertuek, kantaldiek eta dantzaldiek osatuko dute.

Azkenik, ikastetxeak esker-rak eman nahi izan dizkie antolakuntza lanetan ibili diren ikasle, irakasle eta guraso guztiei.

Badoazen ikasleei omenaldia

Urteroko ohiturari jarraituz, Batxilergoa bukatu eta eskola uzten duten ikasleei omenaldi txiki bat egingo zaie.

Horretarako, orlak banatuko zaizkie eta bertso batzuk abestuko dizkiete beste ikasleek.



Iazko Elkar Hezi egunean. | ELKAR HEZI



ALOÑA MENDI

Sebas Sierra txapeladun

Pasa den domekan Oñatiko Udaberriko Tenis Txapelketako finala jokatu zen eta Sebas Sierrak irabazi zuen. Kepa Aranbarri izan zuen aurkari Sierrak, eta final lehiatua jokatu zuten biek. 6-3/7-6 izan zen bukaerako emaitza. Alberto Muñoz oñatiarra hirugarren izan zen.



Deskontu bereziak:

- Astearteetan, gizona koentzat
- Asteazkenean, %20ko deskontua emakumeentzat.
- Egunero, 20 urtetik beherakoentzat

WALESKA MAGER

Ile apaindegia

Larunbat arratsaldeetan zabalik  

Errementari plaza 1. Oñati
Tel.: 943 03 91 70 – 605 72 64 43

Kirol zaparrada dator aste bukaeran UDAREN eskutik

- Maila goreneko emakumeen gomazko paleta partidua izango da bihar
- Herriko eskalatzaileek elizaren kanpandorrera igotzeko asmoa dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kirol zaparrada izango da aurten ere UDAREN eskutik, hirugarrenez dagoeneko. Helburua da beste behin kirola kalera atera eta herritarrei gerturatzeko, batez ere "ezagunak" ez direnak. Horretarako, herriko hainbat elkarte eta eragile izango dituzte lagun: Basotxo erretiratuen elkarte; Loramendi; Aresko saskibaloia taldea; Arizmendi ikastola; ASPACE; Urbaltz; Boulder taldea; eta UDAko gimnasia erritmikoa eta pilota taldea. "Eskerrik asko guztiei, baita Udalari eta Aretxarteri ere".

Paleta partidua

Gaur hasiko dituzte ekitaldiok patineteen esprintak eginda Durana kalean. "Iaz bizikletekin jardun genuen eta ume mordoa elkartu zen. Aurten patinetei emango diegu aukera", jakinarazi du Nerea Zubillagak, UDAko kideak.

Egun nagusia zapatua izango da. Aurreko ekitaldian legez, Errekararren kaleko lorategian doke txapelketa jokatu hasiko

dute eguna. Nor baino nor gehiago izango dira lau elkarte: Basotxo, Loramendi, Aretxarte eta UDA.

Ondoren, herriko pilotari gazteek partiduak jokatu dituzte pilotalekuan, eta 12:00etan, pilotalekuan bertan, aste bukaerako ekitaldirik garrantzitsuenetako izango da: gomazko paleta partidua. "Munduko pilota batzarra zirkuituari dagokion partidua da. Ikuskizun handia emango dute eta herritarrek gonbidatu gura ditugu. Era berean, antolatzaileok eskerrak eman nahi dizkiegu horrelako partidua bat jokatzera Aretxabaletera etortzeagatik", dio Matak. Izan ere, goi mailako pilotariak izango dira nor baino nor gehiago: Nagore Martin eta Itsasne Agirre, Miren Goikoetxea eta Laura Saezen aurka.

Ordu horretan, gimnasia erritmiko erakustaldia egingo dute plazan, eta eguerdi partean, herriko hainbat eraikinetan gora jardungo dute eskalatzaile gazteek; aurten, gainera, erronka polita dute: elizako kanpandorrera igotzea.

Arratsaldeko ekitaldiak 17:30ean izango dira: bolo txapelketa bolatokia Urbaltz elkarte-koekin; cricket erakustaldia pilotalekuan, Auzoko egitasmoko kideen eskutik; eta hiruko saskibaloia partiduak Arlutzeko kantxan, Aresko saskibaloia taldearen laguntzarekin.

Paella dastatzea

Patinen gainean hasiko dituzte domekako ekitaldiak; Eskoriatzara joan-etorria egingo dute, bi gidarik lagun eginda (derrigorrez behar da kaskoa). Ondoren, Aspacoko lagunek erakutsiko dute zein kirol egiten dituzten. Eta aste bukaera jai giroan bukatzeko, paella dastatzea izango da. *Atxabalta ez da gatz bako herrixe* izenarekin, Aretxabaleto eta Getxoko sukaldariak egingo dute paella. *Kirolez busti* ekimenean parte hartutakoek txarteltxo bat jasoko dute balde jan dezaten, eta Aretxarte merkatarien elkar-teak 600 euro zozketatuko ditu horien artean, 10 euroko 60 bonu.



Nerea Zubillaga, Agurtzane Elkoro eta Oihana Mata. | MIRARI ALTUBE

EGITARAUA

EGUBAKOITZA

17:00 Patinete esprintak, Durana kalean.

ZAPATUA

10:30 Doko txapelketa, Basotxo aurreko lorategian.

10:30 Esku pilota, Iturigorri pilotalekuan.

12:00 Gomazko paleta partidua, Munduko Pilota Batzarra zirkuitua:

- Nagore Martin - Itsasne Agirre
- Miren Goikoetxea - Laura Saez

12:00 Gimnasia erritmikoa, Herriko Plazan.

13:00 Street boulderra, herriko eraikinetan.

17:30 Bolo txapelketa, bolatokia.

17:30 Cricketa, pilotalekuan.

17:30 Hirunako saskibaloia, Arlutzeko kantxan.

DOMEKA

11:00 Patinen irteera: Eskoriatzara joan-etorria.

12:00 Kirol egokitua, plazan.

13:00 Triki-poteoa.

13:30 Paella dastatzea (Aretxabaleta vs Getxo), plazan.

Omenaldia, bazkaria eta kontzertuak Elkartuz Herrira Egunean

Ramon Eraña izango dute gogoan bihar eguerdian

M.A. | ARETXABALETA

Atxabaltako Elkartasun Batzordeak antolatuta, Elkartuz Herrira Eguna ospatuko dute bihar, ekainak 18. Ramon Eraña gogoan izanda hasiko dute eguna. Horretarako, Eskuernagako Kaxkabar dantza taldeko kideak eta Aretxabaleto txistulariak elkartuko dira Mitarte plazan, 12:00etan. Dantza erakustaldiaren ondoren, herritarrek ere parte hartu ahal

izango dute, eta banakoa, aurrakua eta fandangoa dantzatu, besteak beste. Ondoren, txistu doinuei jarraituta egingo dute txikiteoa herrian.

Herriko presoen aldeko bazkaria izango da gero, 14:00etan, Mitarte plazan (txartelak Urbaltz tabernan dituzte salgai: ume eta gaztetxoek, 8 euro eta helduek, 15 euro). Eta eguna borobiltzeko, kontzertuak izango dira plazan



Trikitalariak, iaz. | GOIENA

bertan. Estilo ezberdinak jorrazten dituzten Aretxabaleto hiru talde elkartuko dira: D-Skarga, Asunto Txarra eta Bixentak. Doinu dantzagarriak ekarriko dituzte hirurek ere.

Igeriketa eta 'nordic walking' ikastaroak Ibarra kiroldegian ekainean eta uztailean

M.A. | ARETXABALETA

Ikastaro bi egingo dituzte kiroldegian udan: gaztetxoendako igeriketa hobekuntza eta *nordic walking*-a. Izena emateko epea zabalik dago kiroldegian (943-03 98 42).

Igeriketa hobekuntza ikastaroan bi txanda egongo dira: ekainaren 27tik uztailearen 8ra eta uztailearen 11tik 22ra. Eta eskolak egunero izango dira, 09:15etik 10:00etara. Prezioa da abonatu-

dako 10,53 euro eta abonatuta ez daudenendako, 31,58 euro. Lehenengo txandakoek ekainaren 22rako izena eman beharko dute eta bigarren txandakoek, uztailearen 5erako.

Nordic walking ikastaroa, ostera, ekainaren 27tik uztailearen 20ra egingo dute, astelehen eta eguaztenetan (17:30-18:30). Izena eman behar da hilaren 22rako eta balde dira eskolak.

Uztailaren 1ean abian jarriko dituzten udaleku irekiak aurkezteko bilera egingo dute martitzenean

Herriko neska-mutikoen udaleku irekietan jardungo dute uztailearen 1etik 22ra. Egunotako ekintzak aurkezteko eta hezitzaileak ezagutzera emateko bilera egingo dute datorren martitzenean, ekainaren 21ean, Arkupe kultura etxean; euskaraz izango da 19:00etan, eta gazteleraz, 19:30ean.

Aurten, 3 eta 12 urte arteko 311 neska-mutiko elkartuko dira udalekuetan, eta horiekin lanean 36 hezitzailek jardungo du; 34 ibiliko dira umeekin eta bi koordinatzaile lanetan.



JOXE MIGEL URIBARREN

Habia arrautzaz beteta ibaian

Ur-oiloez habiak jarri dituzte Deba ibaian. Joan den aste bukaeran gertatu zuten argazkiko habia, txukun gertatu ere, eta martitzenerako zazpi arrautza zituzten. Iluntzean, baina, euri zaparrada izan zen eta urak eraman egin zien, arrautza eta guzti. Errekararren kale osteko ibai tartean hainbat habia daude egunotan; eta Lausitta kaletik behera ezkailu mordoa ere bai, herritarrek diotenez.

Jou Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

ARRASATE
JAIETAN!


SANJUANAK 2016

Atarikoak
Egitaraua
Errementari Dantza
Danborradak
Zaldibarko pilota partidu mitikoak
Pilota partidu profesionalak
Eguzkilaruk 20 urte
Jan-edan herrikoiak
Jaietan beti fin
Txosnetako ekarpena
Goikobalu eta Etchegoyen
Raimundo Amador
Arrasate Musikal eta RIP



IMANOL SORIANO



Gora, San Juan jaiak!

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

☎ 943 71 48 45


www.hemen-garbiketak.com



Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.





ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Motorrak berotuta, sanjuanetan gogotsu murgiltzeko gertu

► Umeeek hartuko dute asteburuan lekukoa: haur dantzarien egunarekin eta danborradarekin

UBANE MADERA | ARRASATE

Sanjuanetako makinatxo bat bisitari hartuko duen Monterron parkeak aurreko zapatuan izan zuen jaietako estreinaldia; estreinaldi indartsua, gainera. Bete egin zen parkea Arrasateko Trikitixa Eskolaren zilarrezko ezteien ospakizunera batu zen ikusle eta partaideekin, eskolak bidelagun izan zituen-eta Arrasateko Goikobalu abesbatza, dantza taldea, erraldioen konpartsa... Guztien artean gorai-patu zuten eskolak egindako 25 urteko ibilbide oparoa.

Historia zatia ikusgai

Bestalde, Kulturatek ere zabaldu dizkie ateak sanjuanei, erakusketan eran. Egubakoitzean inauguratu eta uztailaren 8ra arte klaustroetan ikusgai da Debagoienan 50 urtez gora eta behera ibili zen Vasco-Navarro trenaren gaineko historia, ehun argazki baino gehiagoz, ikus-entzunezkoz, dokumentu historikoz eta hainbat maketaz -taratean Mondragon lokomoto-rearena- osatutako erakusketa, alegia. Zabalik dirauen astebete eskasean dagoeneko ehunka lagun bisita izan du erakusketak. (Informazio gehiago 10. orrian)

Motordun altxorrek

Eta sanjuanen atarikoia izan zen, besteak beste, joan den domekan Arruena parkeak hartu zuen erakusketa: 1991. urtetik atzerako ibilgailu klasikoena. "Egun ederra gaurkoa. Ibilgailuekin etorri zaretenoi edota hauek ikustera gerturatu zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu", esan dute Goiena Classik Clubetik, erakusketaren antolatzaileek.



Arrasate Trikitixa Eskolakoekin doinuak kantuz lagunduta.



Maixa Lizarribar irakaslea.



25 urte baino gehiago dituzten ibilgailuak, Arruena parkean.



Klasikoetan klasikoena.



Argazkietarako aproposak.



Ikusle ugari izan zen Vasco-Navarro trenaren erakusketaren irekieran.



Erraldoiak eta batukadako kideak, Trikitixa Eskolakoekin.



Ondo pasa
sanjuanetan!

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain,
txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



AGURRA

**MARIA
UBARRETXENA**
Arrasateko
alkatea



Alkatearen agurra

Uda iristear dagoela, sanjuanak ere ate joka ditugu dagoeneko. Eta sanjuanekin batera, heldu dira eguraldi ona, egun argi eta koloretsuak eta, zenbaitentzat, baita oporrak ere. Eta, zer hobe hau guztia festa giroan ospatzea baino?

Arrasatearrok irrikaz itxaroten ditugu urtero sanjuanak, eta haur, gazte zein helduek, arrasatear edo kanpotarrek festez behar bezala gozatzeko aukera izan dezaten, ekintza egitarau zabala prestatu dugu, aurtengo sanjuanak ere ezin hobeak izan daitezzen.

Egitarau hau ilusioz eta esfortuz beteriko lanaren emaitza da, lerro hauen bidez jaien antolakuntzan parte hartu dutenei modu berezian eskertu nahiko nieke egindako esfortzua.

Baina festak ez dira festa herritarren parte hartzerik gabe. Beraz, udal guztiaren izenean, jai egun alai, bizi eta zorionsuak izan ditzazuen opa dizuet. Utzi ditzagun atzean eguneroko arazoak, kezak eta ardurak eta gozatu dezagun guztiok, elkartasun eta errespetuan Arrasateko jaietz. Murgildu gaitzen festa giroan, alaitu dezagun herria, eta ospatu ditzagun guztiok San Juan jaiak!!

JAIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA

17

18:30 Amaia Antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako EMANALDIA.

19:00 Uarkape frontoian ESKU PILOTA PARTIDAK. San Juan txapelketaren finalak.

21:00 KANTU AFARIA Jose Letona plazan SEI PISTOLS ETA TRABUKO BAT taldearekin.

ZAPATUA

18

09:00 Seber Altube plazan hileroko III. Larunbateko baseritarren azoka.

09:30 Herriko plazan elkartuta eta goiz osoan SANJUANETAKO 2. SKETCHCROWL-a. Arrasate Margo Taldeak antolatuta.

13:00 BATZEN jolas-dantza herrikiaren estreinaldia Jokin Zaitegi enparantzatik abiatuta



Gazteak makala igotzen, iazko Sanjuanetan. | GOIENA

Herriko Plazaraino. Arrasateko musika eta dantza taldeen partaidetzarekin eta herritar guztiei –haur, gazte zein helduei– irekia. Zatoz eta har ezazu parte jolas-dantza honetan!

19:00 HAURREN DANBORRADA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCek antolatuta. Ibilbidea: Biteri plaza, Zerkaosteta, Garibai etorbidea, Maalako errebala, Erdiko kalea, Herriko plaza.

20:30 San Joan Batailatzailearen parrokiaren KONTZERTUA: Elai abesbatza.

22:30 BERTSO JAIALDIA Monterron parkean AEDK antolatuta. Partaideak: Nerea Elustondo, Julio Soto, Arrate Illaro eta Joanes Igeregi. Gai jartzailea: Altutik! Bertso eskola.

EDOMEKA

HAUR DANTZARIEN EGUNA

19

10:00 Zaldibar pilotalekuan batuko dira haur dantzarien taldeak. Ondoren txistulariekin KALEJIRA.

11:15 Herriko kaleetan zehar DANTZA ERAKUSTALDIA.

13:30 Talde guztiak plazan elkartuko dira.

16:00 Buenaena Jatetxean 20. MUS TXAPELKETA.

17:15 Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeek antolatuta, Herriko plazan dantza talde guztien JARDUNA eta AGURRA. Gero, DANTZALDIA DJ AMAIArekin.



Bertan
igogailuak | ascensores

... 250 bezero berri azken 9 hilabeteetan

**ONDO IBILI
SANJUANETAN!**



www.bertan.eus | info@bertanigogailuak.eus
GARAIA Goiru 1A - 20500 Arrasate
Tfn: 943 90 34 50 | 691 64 79 65

20:00 Amaia Udal Antzokian Doke taldearen *Aingeru ala kurriloi* antzezlanaren emanaldia. Sarrerak: www.arrasate.eus orrian.

EGUENA SAN JUAN BEZPERA

23

Ekainaren 23tik 26ra bitartean Artgazki elkarteak antolatuta eta jaietan zehar SAN JUAN JAIK II. ARGAZKI LEHIAKETA.

12:00 Txosna batzordek antolatuta TXUPINA herriko plazatik.

12:30 Txosnagunearen irekiera.

13:00 TRIKIPOTEOA txosnagunetik hasita.

14:30 Herri BAZKARIA Biteri plazan.

16:30 ETXAFUEGOAK eta GRANADA JAPONIARRAK Seber Altube plazan.

Ondoren, Seber Altube plazan TXALOKA taldearen *BUALÁ* izeneko haurrentzako dantzaldia.

16:30 MAKAL POTEOA plazaraino makalarekin INCANSABLES txarangaren laguntzarekin.

18:00 Herriko plazan MAKALA jasotzea.

19:30 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren SALBE SOLEMNEA.

21:00 ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

23:00 Biteri plazan hasita eta herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN DANBORRADA. SUDCEK antolatuta.

Horren ostean, Herriko Plazan, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.

00:00 Fan & Go taldearen kontzertua txosnagunean.



Errementari Dantza Herriko Plazan, eta ikusle ugari begira, iaz. | GOIENA

EGUBAKOITZA SAN JUAN EGUNA

24

08:00 TXOKOLATE-JANA Arbolapetan, txosna batzordeak antolatuta.

08:30 DIANA, ARRASATEKO GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta J. M. Arizmendiarieta plaza. Gero, zaleentzat bigantxak zezen plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, MEZA NAGUSIA.

11:00 Arrasateko Erraldoien eta Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA.

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA. 11:30ean Seber Altube plazan elkartuko dira Konpartsarekin eta gaiteroekin.

12:00 Herriko Plazan ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa.

12:30 Etxaluzen (Abaroa) OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI.

13:00 Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN.

• *El Barbero de Sevilla* (G.

Rossini).

• *Mirentxu* (J.Guridi).

• *La boda de Luis Alonso* (J. Jimenez).

• *The legend of Maracaibo* (G. Gimenez).

• *Soul Bossa Nova* (Q.Jones).

• *R.I.P* (R.I.P)

ZUZENDARIA: MIKEL MARKIEGI

16:00 Txosnagunean herriko artisauen AZOKA.

17:00 Herriko kaleetan zehar STREET BOULDER txapelketa.

18:30 Seber Altube plazan Zirika Zirkus taldearen *TREN GELTOKIA* ikuskizuna.

19:30 Zezen plazan ERREKORTADOREEN ERAKUSTALDIA.

19:30 Erdialdeko kaleetan zehar KALEJIRA Arrasateko gaitero eta Arrasate Musikaleko haize taldearen eskutik.

21:00 Herriko plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.



Herritarrek eta bisitariak gustura, 'Zeuk iñ zeuk jan' bazkari herrikoian. | GOIENA

Jai zoriontsuak guztiori

%15eko deskontua
gorputz tratamenduetan

LIRAIN
Estetika Zentroa



RPS: 48/14
Ez da osasun zentroa

www.lirainestetika.com

Bixente Ferrer, 1 20500 Arrasate Tel.: 943 79 52 17

23:00 Santa Barbaratik SU
ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa
pirotekniaren eskutik.

23:15 Monterron parkean eta
GOIKOBALU Abesbatzaren
laguntzarekin ANNE ETCHEGOYEN
abeslariaren kontzertua.

23:15 Herriko Plazan OIHAN
VEGArekin, DISKOFESTA.

ZAPATUA
HAURREN ETA GAZTETXOEN FESTA

25

08:30 DIANA ARRASATEKO
GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko
eguneko ibilbidetik; gero,

zaleentzat bigantxak zezen
plazan.

PATXIMATXIN SKATE JAIA.

10:00 Zaldibar frontoian eta
egun guztian zehar.

11:30 - 12:30 Skate Skola
(umeentzako ikastaroa)

15:00 - 16:00 Txapelketa

16:15 - 17:00 Kill Da Spot
(saria truko hoberenai toki baten)

17:15 - 18:00 Kontzertua.

18:00 - 19:00 S.K.A.T.E
(taldean jolasteko skate jokua)

10:30 Biteri plazan Haurgunea
eta Zaldibarren Gaztegunea
jarriko dira martxan 14:00ak
arte.

12:00 EGUZKILARUri ongietorria
eta makal txikiaren igoera
trikitilarien laguntzaz Biteri
plazan. Ondoren kalejira.

12:00 Arrasateko trikitilarien
eskutik, kalejira.

12:00 Azokan *Zeuk in zeuk jan*
BAZKARIAren prestaketa.

12:15 DANTZAOKEA (karaokea
eta koreografiak) Biteri plazan.

12:30 BODY PAINT Jokin
Zaitegin.

13:00 KALEJIRA HERRIKOIA
txistularien eskutik.

13:30 APAR JOLASA Jokin
Zaitegi plazan. Bainujantziak
ekarri eta igerilekura... apar
artean jolastera.

14:30 *Zeuk in zeuk jan* kuadrillen
arteko BAZKARI HERRIKOIA
azoka plazan. Udalaren eskutik
sagardo kupel bat egongo da
parte-hartzaileentzat.

16:00 Azoka plazan *Zeuk in zeuk*
jan bazkalostean haurrentzako
JOLASAK.

18:00 ANE ETA PIRATAK



Korrikalaria zezenengandik babestu nahian, entzierroan. | GOIENA



Su artifizialek Arrasateko zerua koloreztatzen dute. | ARITZ GORDO

PARRANDAN! Zuzeneko
dantzaldia, Biteri plazan.

18:30 ERREKORTADOREEN
ESKOLA gaztetxoentzat zezen
plazan.

20:00 Seber Altube plazan Trapu
Zaharraren A CAL Y CANTO bere
azken ikuskizuna.

22:30 Herriko Plazan GOLDEN
ORKESTRArekin dantzaldia.

22:30 ARKADA SOCIAL + NON
SERVIUM taldeak txosnagunean.

05:30 Sokasalto gaupaseroa
txosnagunean.

DOMEKA

26

08:30 DIANA ARRASATEKO
GAITEROEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko
eguneko ibilbidetik. Gero,

zaleentzat bigantxak izango dira
zezen plazan.

11:00 Arrasateko Erraldoien eta
Kilikien Konpartsaren kalejira.

12:00 Herriko plazan eta Eusko
Labelen eskutik EUSKO
LABELEKO PRODUKTUAK
DASTATZEA Goikobalu
abesbatzaren laguntzarekin.

17:00 Profesional mailako PILOTA
PARTIDAK Uarkape frontoian.

18:30 MARKELIÑE taldearen
eskutik CRUSOE antzezlanaren Biteri
plazan.

18:30 ERREKORTADOREEN
ESKOLA gaztetxoentzat zezen
plazan.

19:30 Seber Altube plazan Lore
Gazteak taldearen DANTZA
EMANALDIA.

19:30 Txosnagunean Urrezko
Dragoiaren ematea.

20:00 KONTZERTUA Herriko
Plazan: RAIMUNDO AMADOR

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABAETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

*Ondo ibili
sanjuanetan!*





Ondo pasau
sanjuanak!

Diseinua • Prototipoak • Rapid Tooling-a • Fabrikazioa • Kontrol-gailuak • Ikusmen artifiziala



ekide-k sanjuanak aprobetxatu nahi ditu,
bere **deki** markaren produktu berria aurkezteko:



BabyBalanz^z
Bilakatu zure karrotxoa kulunkatzaile




Kulunkaria
leun eta erritmikoa



Unibertsala
edozein karrorentzat



Eramangarria
arin eta ergonomikoa



Kargagarria
3 orduko autonomia



Edonorako
etxe eta parkerako

deki

www.dekiproducts.com

Arrasateko historia suaren inguruan biltzen duen dantza

- ▶ Jose Ramon Vitoria izan zen Errementari Dantzaren sortzaile nagusia
- ▶ Aspaldiko ospakizuna dirudien arren, 23 urte beteko ditu aurten

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Errementari Dantza eta San Juan jaiak banaezinezko kontzeptuak dira arrasatearrentzat. Musikatik, dantzatik eta herriaren historiatik edaten duen ikuskizuna da, eta, horregatik, aspaldiko tradizio bezala barneratu daiteke. Baina duela 200 urteko ikuskizuna dela ematen duen arren, 1993an egin zen lehen aldiz.

Jose Ramon Vitoria arrasatearra izan zen ikuskizunaren sortzaile nagusia. Errementari Dantza egin aurretik, ekainaren 23an bi ekitaldi nagusi egoten ziren: salbea eta danborrada, eta bi horien artean hutsune handia igarri zuen Vitoriak. "Normalean, jendeak afariak egiten zituen bi ekitaldi hauen artean, eta, herriko plazan dantzariak eta sua egon arren, nahiko giro gutxi izaten zen San Juan bezperan".

Txerri Dantzaren aurrekaria

Errementari Dantza sortu aurretik, Santo Tomas Dantza Kantua sortu zuen Vitoriak, gerora herriak Txerri Dantza izenez bataiatu zuena. Apustu edo erronka moduko batetik sortu zen. San Frantzisko Xabier ikastolaren 25. urteurrenerako abesti bat



Errementariko dantzariak San Juan suaren inguruan. | ARITZ GORDO

sortu zuen Vitoriak. Hau aurkezteko, ikuskizun bat antolatu zuen, Arrasateko gaiteroen, txistularien eta trikitilarien, Arrasate Musikaleko musikarien, Goikobalu abesbatzaren eta Dantza taldeen ekarpenekin. Hau ikusita, santamas egunerako talde bakoitzeko agerraldia egin beharreen, talde guztiekin batera zerbait berria egitea Vitoriak proposatu zuen. Orduan, norbaitek esan zion Vitoriari ezinezkoa zela akustikoki musika instrumentu horiek guztiak bateratzea. Erronka horri heldu, eta Txerri Dantza abestiaren doinua konposatu zuen, Jon Iñaki Isazelaiak egindako koplekin osatuta.

Idea ereiten

Txerri Dantzaren esperientziari esker, dantza taldearekin eta herriko musikariekin gauzak egin zitezkeela sentitu zuen Vitoriak. Garai hartan, Olarte kaleko lokal baten entseatzuten, eta kalearen izenak Arrasateko historiar burdingintzak izandako pisuaren kontzientzia piztu zion. Hortik sortu zen Errementari Dantzaren ideia.

Lehenik eta behin, doinua konposatu zuen. Horretarako, Legazpiko Mirandaolara joan zen, eta bertan entzun zituen kolpe gordinen hotsetan oinarritu zuen Errementari Dantzaren doinua –abestiaren klunka, eta klunka pasarteko lehen klunka horren atzean dagoen erritmoan, hain zuzen-. Abestian zehar badao doinu goibela duen zati bat, eta horrek ere badu bere azalpena: XV. mendean burdingintza ofizio arriskutsua zen, eta jende asko hiltzen zen lanean ari zela. Hori dela-eta du hileta kutsua abestiaren zatietako batek.

Baina ikuskizuna San Juan jaiekin eta, batez ere, Arrasate-ekin lotzen duen elementu nagusi



Opel Astra berria 14.995 eurotik aurrera

Ondo pasa sanjuanetan!!!



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

Uarkape
HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL

RPS: 294/13

- Odontologia orokorra
- Endodontziak
- Implantologia protesiak

Ondo pasa
San Juan
jaixetan!

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

sia sua da. San Juan sua herri askotan egiten da, baina, dra-goiairen presentziari esker, Arrasateko kondairarekin lotura zuzena egiten du ikuskizunak.

"Ikuskizuna prestatzen ari ginela ideia bat izan zuen Aritz Solupek, Arrasate Musikaleko Orkestrako musikariak. Bera Ingeniaritza ikasketak egiten ari zen garai hartan, eta dragoi baten maketa egin zuen. Udalarari bost metroko dragoi bat egin nahi genuela esan genionean, zoratu-ta geundela esan ziguten, baina erokeria hura errealitate bihurtzeko gai izan ginen", azaldu du Vitoriak.

Orduan, Xabier Zubizarreta Txiron zen Arrasateko alkatea, eta haren inplikazioa nabarmen-tzekoa izan zela adierazi du Vitoriak. "Ikuskizuna plazara hel-tzearekin bat, herriko agintariak dragoiari harrera egitea polita izango zela pentsatu nuen. Alka-teari proposatu nionean, prestu-tasun osoz baietz esan zidan. Ez hori bakarrik. Dantza egin ondo-ren alpagatak sutara botatzea-rena berari bururatu zitzaion. Hain zuzen, urtean zehar jaso ditugun hondarrak sutan erretzea sinbolizatzen".

Koordinazio lanak

Era horretako ideia bat erreali-tate bihurtzeko, koordinazio-lan itzela egon zen atzetik. Herriko bi dantza taldeak, txistulariak, trikitilariak, gaiteroak, musika banda... hainbeste elementu batzen dituen ikuskizuna gauzatzea ez da lan erraza, eta guztia urtebe-teko epean koordinatzea lortu zuten.

"Arrasateko hainbat ikur bere egiten dituen ikuskizuna da: dra-goia, burdingintza... baina hau gauzatzeko orduan oso arrasa-tearra den beste elementu bat gehitu genion: lan kooperatiboa,

hain zuzen. Ikuskizuna presta-tzeko orduan, talde-lana eta elkar-lana izugarriak izan ziren. Beste askoren artean, Aritz Solupek dra-goia eraikitzeke hartutako ardura, Enrique eta Esteban Dola-ra anaiek musikaren koordina-zioan egindako lana eta, batez ere, Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeek egindakoa azpi-marratuko nituzke".

"Gogoratzen dut euren loka-lera joan nintzela akordeoiarekin, eta abestia grabatu genuela. Bai-na kasete bat eman ostean, eurek egin zuten ondorengo lan guztia. Nik musika eta ideia sortu nituen, baina hau jende askoren artean sortutako ikuskizuna da, eta horregatik lortu da herriak bar-neratzea eta urteetan zehar arra-kastatsuki irautea".

Arrakasta progresiboa

Lehen edizioetan, ikuskizuna birritan egin zuten, 23an eta 26an. Jaiaren hasieran eta bukaeran egi-tea ideia polita zen, baina lau eguneko festan zehar pilatutako nekea nabaria zen parte hartzaile-en artean, eta 26koa ez egitea erabaki zuten. Lehen urtean, ikuskizunak harrera ona izan zuen, orokorrean, baina kritika zorrotzak ere jaso zituen. Luze-gia zela, errepikakorra edota beste ikuskizun batzuen antza zuela.

Edozelan ere, urteek aurrera egin ahala, ikuskizunaren arra-kasta handituz joan zen, eta, gaur egun, herriaren eta San Juan jaiaren ikur bilakatu da. Jendea kale-argietara igota ikustea ohi-koa da, eta, urterik urte, herriko plaza txiki geratzen da. Musikak eta dantzak herria batzeko duten indarra ikusita, beste egitasmo bat sortu du Vitoriak. *Batzen* du izena eta ekainaren 18an estreina-tuko da, Arrasateko kaleetan zehar.



XABI GOROSTIDI

JOSE RAMON VITORIA
HUHEZI-KO IKERKETA
ETA TRANSFERENTZIA
ARLOKO ZUZENDARIA

"Musika eta dantza gizartea eraikitzeke tresnak direla ikasi dut"

Txerri Dantza eta Errementari Dantza irudimenetik errea-litatera eraman ondoren, buruari bueltak ematen jarraitzen du Vitoriak. Beste proiektu bat garatu berri du, *Batzen* du izena eta ekainaren 18an estreinatuko da. Jokin Zaitegi plazan, urtero egiten den Errementari Dantzaren entse-guaren ostean izango da.

Zertan datza Batzen egi-tasmoa?

Herritar guztientzako jolas-dantza bat da. Ez da egun konkretu baterako sortatuko zerbait, baizik eta edozein ospakizun dela-eta herritarrek batu eta momentu atsegina bizi izateko helburua duen dantza da.

Nola bururatu zitzaizun ideia?

Aurreko esperientziak ikusita, gogoeta garrantzitsu bat bar-neratu dut: musika eta dantza gizartea eraikitzeke tresnak direla. Askotariko jendea batze-ko potentzia dutela, alegia. Beraz, oraingo honetan, ikus-learen papera irauli eta herri-tarrak ikuskizunaren partaide izatea izan da helburua. Horre-gatik, ez da dantza bat, jolas-dantza bat baizik.

Nori dago zuzendua?

Herriari zuzendutako zerbait da. Berdin dio haur, gazte, hel-du, gizon, emakume, kanpotar edo bertakoa izatea. Nahiko segmentatuta bizi gara, eta *Batzen*-en helburua, nolabait, hori iraultzea da. Dantzariak jendeari parte hartzeko gon-bita egingo diote. Hasieran kostako da, baina lortuko dugu.

Dantzari dagokionez, kon-plexutasun maila txikia izan-go du, ezta?

Dantza ikuskizunak oso arau zorrotzak izan ohi dituzte. Hanka honaino altxa behar duzu, mugimendu guztiak koordinazio baten menpe dau-de, jantzi konkretu batzuk eraman behar dira... *Batzen* kalejira moduko bat izango da, non posizio arau minimo batzuk egon arren, jendeak nahi due-na egiteko askatasuna izango duen. Librea izango da. Bost minutuz dantza ikusten duen edonork dantzaren arau mini-mo horiek ikasiko ditu.



**KONDENA
BETETA DUTEN
PRESOAK
ASKATU!**

**Irati - Iluntz - DAT
Osorik - Ekaitz
Etxoste - Amaiur
Taupa - Arrasate
Jai Zale**



AINHOA NAFARRATE
ARROSTITZ-EKO DANTZARIA

"Suaren argiarekin dantzatzea eta bero hori sentitzea oso polita da"

Noiztik dantzatzen duzu Errentari Dantza?

Ba, duela sei edo zazpi urtetik. Azken bi urteetan ezin izan dut parte hartu.

Zer sentitzen duzu dantzatzen duzun bakoitzean?

Urduritasuna eta emozioak, biak. Urteekin, emozio handiagoa urduritasuna baino, baina bien nahasketa bat. Herri-tar askok bazkariarekin eta makalaren igoerarekin hasten dituzte jaiak, bai-na dantzariontzat jaiaren hasiera sinbolizatzen du.

Dantzako unerik kuttunena?

Plazan eta gauzez. Dra-goiak sua piz-terakoan, suaren argiarekin dantzatzea eta bero hori sentitzea oso polita da.



EDORTA BOLINAGA
LORE GAZTEAK-EKO DANTZARIA

"Herriaren parte den dantza denez, pozgarria da bertan dantza egitea"

Noiztik dantzatzen duzu Errentari Dantza?

Hamalau edo hamabost urterekin hasi nintzen; beraz, bizitza erdi.

Zer sentitzen duzu dantzatzen duzun bakoitzean?

Oso dantza polita da; luzea izaten da, baina, momentu oro jendea gainean daukazula sentitzen duzu. Azken finean, herriaren parte den dantza bat da. Sanjuanak Errementari Dantza gabe ez lirake berdinak izango, eta ber-tako parte izatea pozgarria da.

Dantzako unerik kuttunena?

Balkoiak eta plaza gainezka daude-larik, sua piztu osteko polkak. Argita-sunagatik eta dantzagatik beragatik.

Ibilbide berria, ohiko jaia

Haurren danborradak helduenaren bide berbera egingo du, aurten hasita

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bihar, zapatua, alaituko ditu haurren danborradak herriko kaleak. Bost konpainiatan banatuta irtengo dira 200 ume eta gaztetxo (iaz baino zertxobait txikiagoa da kopuru hori: hain zuzen, iaz 250 ume inguru izan ziren eta zazpi konpainia osatu zituzten); hiru konpainia kupelekin irtengo dira, eta beste biak, danborrekin.

Ibilbideak izango du berezitasunen bat aurreko urteetakoan aldean, helduen danborradako ibilbide berbera egingo baitute umeek ere; beraz, aurten honako hau izango da: Biteri plazan hasiko da danborrada, 19:00etan; handik Zerkaostetara joango da eta, Ecuador bidaia agentzia paretik, Garibai etorbidean behera egingo dute; handik Maalako errebalera, gero Erdiko kalera, eta, bukatzeko, Herriko Plazara joango dira; une oro, Arrasate Musika Bandako Musika Bandak lagunduko die. Antolatzaileek, SUDCeko kideek, esan dute aurrerantzean ibilbide hori egingo dutela ume eta gaztetxoek ere.

Zifrekin jarraituz, hona hemen aurtengo haurren danborradako beste batzuk: lau zaldun joango dira, zazpi gastadore, 19 kantinera, 10 sukaldari eta beste 50 ume karrozan.

"Gutziz menderatuta"

Arizmendi Ikastolako Gaztelupe gunean zapatu guztietan 11:00etan elkartu dira umeak entseatzeko.



Goian, iazko danborradako une bat eta aurtengo banderadunak; azpian, aurtengo entsegu bat. | GOIENA

SUDCek antolatzen du, ohi bezala, danborrada hori; bada, haurren danborradako arduradun Jesus Mari Egidazuren esanetan, ume eta gaztetxo guztiak "oso formal" ibili dira entseguetan, eta, danborradarako bi aste falta zirenean, dagoeneko "menderatuta" zeuz-

katen erritmoak, doinuak eta mugimenduak. Kantinek euren entseguak egin dituzte; bigarren eta azkena bihar bertan dute, 11:00etan.

Karrozan joan behar diren umeak 18:30ean elkartuko dira Nafarroa etorbideko geltokian.

Herriko dibertsitatearen isla

Banderadunak ere jaietako eta danborradako protagonista garrantzitsuak dira. Aurten, Arrasateko kultura eta jatorri dibertsitatearen isla dira banderadunak; izan ere, horietako bat Mauritania jaietako neskatxo bat

da; eta beste bat, gurasoak kolonbiarrak dituen arrasatear bat. Gainerako biak euskal jatorriko arrasatearrak dira. Honako hauek dira banderadunak: Brian Mena (jenerala), Tara Banamou (ikurrina eramango duena), Ainhoa Usatorre (SUDCen banderaduna) eta Yerling Segura (Arrasateko banderaduna).

DATUAK

200

UME

Iaz baino 50 bat gutxiago ibiliko dira aurtengo danborradan: 200 ume.

5

KONPAINIA

Bost konpainia irtengo dira; hiru, kupelekin; eta bi, danborrekin.

IBILBIDE BERRIA

18:30: Karrozan irten behar diren umeak Nafarroa etorbideko autobus geltokian elkartuko dira, Gamei lantokiaren parean.

19:00: Danborrada hasiko da.

IBILBIDEA:

- ▶ Biteri plaza
- ▶ Zerkaosteta
- ▶ Garibai etorbidea
- ▶ Maalako errebala
- ▶ Erdiko kalea
- ▶ Herriko Plaza



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46



Soinua, kolorea eta harmonia

San Juan Jai Zoriontsuak!!



Aitor Mendizabal | Pilotari profesional antzuolarra

"Lau t'erdia gustuko dut, nire ezaugarrietara oso ondo egokitzen delako"

- ▶ Jaunarenaren aurka neurtuko ditu indarrak 26an
- ▶ Irujoren lesioak utzitako hutsunea beteko du

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Pasa den maiatzaren 21ean promozio mailako txapeldun izendatu ondoren, lehen mailan jokatzeko txartela eskuratu berri du Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra.

Hori irailetik aurrera izango da, baina, Juan Martinez de Irujok sanferminetako lau t'erdiko txapelketa jokatzeari uko egin ostean, Iberokoaren lekua beteko du Aitor Mendizabalek. Final-zortzirenetako partida jokatu du ekainaren 26an Uarkapen, Jon Jaunarena aurrelari leitzararren aurka.

2011. urtean bigarren mailako lau t'erdiko txapelduna izan zen; beraz, gustukoen duen modalitatean lehiatuko da maila goreneko pilotariek.

Sorpresa izan al da Irujoren hutsunea betetzeko enkargua?

Ba, bai, egia esan, sorpresa handia izan da. Oporretara bidean harrapatu ninduen notiziak; beraz, are sorpresa handiagoa.

Nola zaude sasoi aldetik?

Ongi nago. Orain, oporraldian nago, baina sasoi onean helduko naiz.

Lau t'erdia zure distantziarik gutunena da. Zergatik?

Partidu asko jokatu ditut lau

t'erdian eta gustura egoten naizen distantzia da, nire ezaugarrietara oso ondo egokitzen delako.


Jaunarena ez dabil bere mailarik onenean. Nola ikusten duzu?

Azkenaldian, ez dabil bere onean Jaunarena, baina, berak dakien moduan jokatzen duenean, edozeini aurre egiteko gai da. Izugarritzko dohainak dituen pilotaria da.

Bere errendimendu txarra justifikatzeko, autoestimua eta konfiantza arazoak dituela aipatu izan du. Nola lantzen duzu zuk alderdi psikologikoa?

Ba, egia esatearren, ez da lantzen dudana zerbait, baina ingurukoek asko laguntzen didatela uste dut; momentu txarretan, batez ere.

Nola ikusten duzu zure burua datorren urteko erronkaren aurrean?



Aitor Mendizabal pilotalekuan. | XABIER URZELAI

Zein helburu jartzen dizkiozu zure buruari?

Oraingoan, lasai nago datorren urtera begira. Momentua heltzen denean, ahalik eta ilusio handienarekin prestatu, eta dena ematera irtengo naiz.

Gustuko al duzu Arrasateko Uarkape frontoia?

Ez dut askotan jokatu frontoi horretan, baina oroitzapen onak ditut. Bertan, Xabier Biterirekin batera Debarroko txapelketa irabazi nuen.

"Dakien moduan jokatzen badu, edozeini aurre egiteko gai da Jaunarena"

ALDEDI

Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Zaldibarko lehengo pilota partiduak

Kalejira egin ostean, ikusmin handiko partiduak jokatzen zituzten lagun arteko giroan

XAB GOROSTIDI | ARRASATE

San Juan jaietan badaude urterik urte errepikatzen diren ekintza arrakastatsuak. Zezenketak, su artifizialak eta danborrada dira horren adibide. Baina badaude garai batean arrakasta izan arren gaur egun jada ospatzen ez diren ekintza batzuk. Zaldibarren jokatzen ziren pilota partiduak dira horietako batzuk.

1988an antolatu zituzten lehen aldiz eta 1997an egin zuten azkena, Zaldibarko herri bazkariaren azken edizioarekin batera. Francisco Mateos *Txikuri*, Agustin Ibarluzea *Txispas*, Agustin Beitia *Xipri*, Jose Angel Langa *Txikito de Beneras*, Reyes Azkoitia, Irazola, Isturitz... profesionalak ez izan arren, ikuskizun aparta eskaintzeko gai ziren pilotari hauek. Lagun artean eta giro umoretsuan antolatutako partiduak izaten ziren eta Zaldibarko frontoia jendez betetzea lortzen zuten. Lehen laurak batu ditugu, garai hartako bizipenak gogora ekartzeko.

Pilota eta jai batu

1987a zen eta *Txispas*-ek eta *Txikuri*-k desafioa egin zuten pilotan. *Txispas*-ek argi eta garbi galdu zuen apustua, eta, gorputz txarra geratu arren, errebantxa gogoz geratu zen.

"Garai hartan hiru Habanos pakete eta bi Farias erretzen nituen egunero. Amorruez beteta geratu nintzen partidu hura galdu ostean, eta, *Txikuri*-ri irabaz-



Pilota partiduko kalejira Portaloitik Zaldibarrera bidean. | ARRASATE PRESS

teko gogoak eraginda, erretze-ri utzi nion. Gaur egun, kalkuluak eginez gero, egunero 15 euro aurrezten ditut ez erretzeagatik; beraz, harro esan dezaket pilotari esker aberastu egin naizela". Beraz, mendekua hartzeko partidu horren bueltan, zerbait berezia prestatzea polita izan zitekeela pentsatu zuen *Txispas*-ek.

Garai hartan jaietako zinegotzia zen. San Juan jaietako

azken egunean, herri bazkaria egiten zen Zaldibarren, eta, jende asko pilotzen zela baliatuta, partidua bertan egin zitekeela pentsatu zuen. "Partiduari bizitasun handiagoa emateko, udaltxean hasi eta Zaldibarreraino paseo moduko bat gehitzea pentsatu nuen. Jendea erakartzeko eta jai giroan egiteko, musika bandaren laguntza izango genuen. Horrela, kuadrillek ere parte

hartzea lortu genezakeela pentsatu nuen".

Eta halaxe egin zuten. 1988an lehen aldiz antolatu zituzten pilota partiduak. Jai giro apartean egin zituzten eta dena ondo atera zen.

Hainbat ziren arrakasta lortu izanaren arrazoiak, baina garai hartako protagonistek argi dauzkate. "Garai haietan diru gutxiarekin herriaren gustukoak

ziren gauzak egiten genituen. Txarangarekin eta umore apur batekin, jende asko batzen zuen ikuskizuna antolatzea lortzen genuen. Rosi Otadui *Katanga* erizain bmozorrotzen zen eta pilotariei pultsua-eta hartzen zigun partidua hasi aurretik. Oso dibertigarria zen eta umore puntu horrekin jendeak ondo pasatzea lortzen genuen", azaldu du Jose Angel Langak.

Diru kontuak edo apustuak tarteko zeuden galdetuta, ez dira ados jarri. Langak apusturik ez zegoela esan arren, noizean behin diru kontuak edo afariak jokatzen zituztela esan du *Txikuri*-k.

"Afariren bat edo beste jokatu izan dugu gure artean, partiduari bizigarri handiagoa emateko, baina, batez ere, ikusleen artean egoten ziren apustuak".

Txikuri-k berak beste garai batzuk zirela azpimarratu zuen. "Garai hartan, jendea gehiago inplikatzeko. Egia esan, aisialdirako aukera gutxiago zegoen, eta ekintza bakarraren inguruan jende gehiago pilotzen zen. Orain, jendea individualistagoa da, diru gehiago dauka eta beste interes batzuk ditu. Gu gazteak ginenean frontoian sartuta pasatzen genuen denbora. Ez zegoen apenas telebistarik, ez beste aisialdirik, eta futboleko edo pilotan jokatzen denbora luzea pasatzen genuen. Lanetik abisatu gabe irtetera heltzen ginen pilotan jokatu ahal izateko".

Sanjuanak 2016 Arrasate

Ezkiña, Itzala, Monte, Okoretegi, Rumba eta Txoko II

Gurea frontoiko hazia

Pilotaren inguruko zerbaitek arrakasta izateak badu bere azalpena. Arrasaten betidanik izan da kirol horrekiko afizioa, eta, gaur egun indarra galdu duen arren, orduan oso errotuta zegoen kirola zen. Horrela azaltzen du Txikuri-k. "Arriarandarrek, Zurditok eta konpainiak jokatzeko zuten garaie-tatik hona, gauzak asko aldatu dira. Garai haietan, Gureako frontoi-zinean aritzen ginen. Bertan ematen genituen orduak, eta bertako *kantxeroa* zen Jose Luis Elustondo Txepas zoratu egiten genuen. Ni hamasei urterekin etorri nintzen kanpotik Arrasatera, eta garai haietan integrazioa ez zen kontu erraza izaten. Baina, nire kasuan, esan beharra daukat pilotari esker integrazioa askoz errazagoa izan zela niretako. Afizio horren bueltan lagun asko egiteko aukera izan dut".

Esan bezala, gaur egun Amaia antzokia dagoen tokian zegoen Gurea frontoi-zinea. 1963ra arte bi erabilera horietara bideratzen zen, baina Udalak zinera bideratzeko asmoa zuen. Urte hartan Iturripeko futbol zelaia eta frontoia eraiki zituztenez, Gurea eraikina eskusiboki zinera bideratzea erabaki zuten orduko agintariek.

"Interesak zeuden eraikin horretatik frontoi-zaleak ateratzeko. Hala ere, gureari etsi genion eta ez genuen amore eman. Iturripe berrira eraman genuen gure afizioa eta jende mordo batzen zitzaigun pilotarekin eta bertako giroarekin gozatzen. Eta begira, urte mordo pasa diren arren, gaur egun ere horrela izaten jarraitzen du", azaldu du Txikuri-k.

Erro pilota enpresa

San Juan jaietan antolatutako pilota partiduen harrera ona ikusirik, Erro pilota enpresa sortu zuten bertako partaide batzuek. Herriko jaietan pilota partiduak antolatzen zituzten. Reyes Azkoitiak eta Jose Angel Langak makina bat partidu jokatu zuten elkarren aurka Euskal Herriko hainbat txokotan. "Lehia oso parekatuak ziren eta jendea erakartzea lortzen genuen. Gogoratzen dut, behin, Berrizen jokatu genuela. Bertan zebilen Pablito Berasaluze, eta, oker ez banabil, orduan hamahiru urte zituen. Reyesen aurkakoa amaitzerakoan, beraren aurka jokatzeko aukera izan nuen. Aitortu beharra daukat, gutxiatik bada ere, berak irabazi zuela".



Xipri, Txispas, Langa eta Txikuri, San Juan jaietako partidu bat hasteko gertu. | AGUSTIN IBARLUZEA



Txikuri, Langa, Xipri eta Txispas, lehenengo garaiki gogora ekartzen. | XABI GOROSTIDI

ESANAK

"Diru gutxirekin gauza handiak egiten ziren, herriaren gustukoak zirenak"

JOSE ANGEL LANGA | PILOTARIA

"Txarangarekin eta umorearekin herritarrak inplikatzeko eta erakartzea lortzen genuen"

AGUSTIN IBARLUZEA | PILOTARIA

LIDERRAREN BERTSIORIK ONENA

Ondo pasa sanjuanak!



CITROËN

CITROËN
BERLINGO

20 URTEURRENA
SERIE BEREZIA
1996-2016

ESEKIDURA ALTUA
NABIGATZAILEA OPARI
AURREKO RADARRA
UKIMEN PANTAILA
ATZEKO KAMERA

13.950€-TIK AUERRERA



Profesionalek ondo dakite. Mitoa erreal da. Citroën Berlingo du izena eta 20 urtean herrialde honetako kaleetan ibili da uneoro, edozein eguraldirekin. Ondo, minutuz minutu, gogor lan eginez landu den lidergoa. Salmenta errekor guztiak hautsi dituen "Made in Spain" liderra. "Made in Spain" profesional guztien oroimenez irudi ikonikoa utzi duena, lehenaren irudia.

Hilabete honetan gala-jantziarekin, eta gama osoa ere bai: baldintza onenak Citroën merkataritza-ibilgailuetan, maiatzaren 10etik 31ra arte.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN nahiago du TOTAL "Salneurri gomendatua (13.950 € "Berlingo Multispace PureTech 110 S&S 20. Urteurrena" autoarendako (zergak, garraioa, eskaintza eta Pive-8 plana barne), euren izenean dagoen ibilgailu bat entregatzen duten bezeroendako CITROËN PREMIUM produktuaren eta PSA Finance Services Spain EFC SAREN bidez gutxienez 6.000 euro finantzatzeko badituzte 36 hilabeteko gutxienezko iraupen-konpromisoarekin. Eskaintza baliagarria 2016ko maiatzaren 31ra arte parte hartzen duten saltokietan, penintsulan eta Balear uharteetan. Eskaintza ez bateragarria. Baldintzak kontsultatu zure kontzesionarioan. Salneurri gomendatua finantzatzeko ez duten bezeroendako: 15.750 euro.

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 ISURPENA (g/km): BERLINGO 20. URTEURRENA: 4,3-5,1/113-119

f t y i+ citroen.es

TALLERES CHAPIME S.C.L. - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE



Iazko boulder txapelketa eta Patxi Matxin skate jaialdiko irudiak. | GOIENA



ESKALADA ETA SKATE FESTA

EKAINAK 24

STREET BOULDER

17:00 Boulder txapelketaren hasiera.

EKAINAK 25

PATXI MATXIN

11:30 Skate eskola

15:00 X Games Txapelketa.

16:15 *Kill da spot* lehiaketa (trikimailu onenari saria)

17:15 Crap-en Kontzertua.

19:00 S.K.A.T.E. (taldean jolasteko skate jokua)

Kirola eta jaia bat eginda

'Street boulder'-a eta Patxi Matxin skate festa jaien parte izango dira

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

San Juan jaietan dena ez da parranda izaten, eta kirol ikuskizunez gozatzeko aukera izango da aurten ere.

Ez edonolako kirolak, gainera. Prentsa eta telebista saioetan gutxi ikusten diren horietakoak izango dira, jaietan euren tartertoa izango dutenak.

'Street boulder'-a

Horietako lehena ekainaren 24ko *street boulder* txapelketa izango da. Beste behin ere, rokodromoa

alde batera utzi eta Arrasateko kaleetan zehar paretak igotzeko aukera eskainiko dute antolatzaileek.

Aurtengoa San Juan jaietako Txosna Batzordeak antolatzen duen zazpigarren edizioa izango da. Aurrekoetan, parrokian, Portaloian, Monterron jauregian eta Zurgin kantoian dauden blokeak igo izan dituzte. "Aurtengo blokeak oraindik definitu gabe dauzkagu, eta horretan lanean ari gara" adierazi du Kepa Bruñasek, iazko irabazleak. "Aurten ere

bospasei bloke egitea da gure helburua", adierazi du.

17:00etan hasita, alde zaharreko paretak igotzen hasiko dira eskalatzaileak. Ahalik eta saiakera gutxien erabilita bloke guztiak egiten dituen izango da txapelduna. Izen ematea librea izango da eta egunean bertan egin daiteke.

Patxi Matxin

Jaietako hirugarren egunean ere egongo da kirolaz gozatzeko aukera; kasu honetan, skatearekin.

Arraskak, Arrasateko skate taldeak, VI. Patxi Matxin jaialdia antolatu du. Goizean hasi eta arratsaldera arte, lau gurgipen gainean egiten den kirol honekin lotutako hainbat ekintza antolatu dituzte.

11:30erako skate eskola antolatu dute. Skatean lehen urratsak egiteko oinarritzko aholku batzuk emateko asmoz antolatu dute.

15:00etan, X Games txapelketari hasiera emango diote. Zaldibarko frontoian kokatutako arrapaletan zehar, euren trebeziak

erakutsi beharko dituzte parte hartzaileek estilo librean.

16:15ean, *Kill da spot* lehiaketaren txanda helduko da. Bertan, leku edo arrapala konkretu batean, partaide guztien artean egindako trikimailu onenak sarituko dituzte antolatzaileek.

Jarraian, Crap punk-rock taldeak kontzertua eskainiko du. Iazko *demo*-ko eta Martin Capsularekin grabatu berri dituzten abestiak joko dituzte. Bertako taldekideetako bik skatea praktikatzan dute, eta aukera polita izango dute euren bi zaletasunak leku berean plasmatzeko.

Jaia borobiltzeko, *Skate* talde-jokoa egingo dute. Taldekideen trikimailuak imitatzean datza. Ondo egiten ez den bakoitzeko letra bat jasotzen da, eta *Skate* hitza osatzerakoan kanpoan gelditzen da. Kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek saria jasoko dute.



OLGETA

Ondo ibili sanjuanetan!

GOZATU - HEZI - MAITATU

JOLAS ETA JOSTAILUEN AHOLKULARITZA,
MAILEGUTZA ETA SALMENTA ZERBITZUA





Zerkaosteta 4 behea • Tel.: 628 67 35 50 • www.olgeta.eus • olgeta@olgeta.eus

II. Argazki Lehiaketa San Juan jaietan

Ekainaren 23tik 27ra aurkeztu beharko dira eta sari banaketa uztailaren 8an izango da

IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Artgazki elkarteak Arrasateko II. Argazki Lehiaketa antolatuta du aurtengo San Juan jaietarako. Argazkiak aurkezteko epea ekainaren 23tik 27ra izango da.

Rallytik lehiaketara

Aurtengo lehiaketa ezberdina izango da; aurreko urtean jende gutxi aurkeztu zela diote antolatzaileek, rallya izan baitzen, eta presioa handiagoa zen lanak entregatzeko orduan. Aurtengo dinamika, beraz, ezberdina izango da, jaiak amaitu arte izango da argazkiak aurkezteko aukera. Anibal Carmona antolatzailearen hitzetan: "Edizio ona izan zen, argazki politik jaso genituen, baina, rallyaren kontuagatik, gutxi aurkeztu ziren, eta pena eman zigun." Antolatzaileen helburua herriko jaiak sustatzea da. Argazki lehiaketaz gain beste ekintza batzuk egiteko konpromisoa hartu du Artgazki taldeak.

Sari potoloak

Sari banaketa uztailaren 8an izango da, Kajoï tabernan, 19:00etan. Bi kategorია badaude ere, zazpi sari lortzeko aukera izango dute debagoiendarrek.

Argazki onenaren kategorian, hiru sari banatuko dituzte; hirugarren argazki onenarentzat 100 euro eta garaikurra; bigarren argazki onenari 150 euro eta garaikurra eta lehen argazki onenari 300 eta garaikurra. 16 urtetik beherako gazteek ere izango dute parte hartzeko aukera, eta argazki kamera bana -Canon Eos M- jasoko dute bi irabazleek. Horrez gain, aurkeztutako argazki guztietatik originalenak 100 euroko saria irabaziko du eta parte hartzaile guztien artean afari bat zozketatuko dute Arteaga jatetxean bi pertsonarentzat.

Izen ematea

Izen ematea dohainik izango da eta, gehienez, parte hartzaile bakoitzak bi argazki bidaltzeko aukera izango du. Argazki guztiak lehiaketak@artgazki.org posta elektronikora bidali beharko dira, ekainaren 27ko gaueko hamabiak baino lehen. Argazkiekin batera izen-abizenak, posta elektronikoa, telefonoa eta argazkiaren izenburua bidali beharko dira. Antolatzaileek esan dute ez dela argazki edizio edo muntaiarik onartuko. Argazkigintzan eta artean murgilduta dauden epaimahaiak aukeratuko ditu argaz-

kirik onenak, San Juan jaiak bukatu eta astebetara. Iazko epaimahaikideak Antonio Murillo antolatzaile eta argazkilaria eta Iñaki Riviere pintorea izan ziren. Aurten ildo beretik jarraituko dutela dio Carmonak.

Iazko irabazleak

Maila paregabea erakutsi zuten iaz irabazleek. 16 urtetik beherako gaztetxoan mailan, bigarren argazkirik onena Maria da Silvak irabazi zuen; lehena, ordea, Jon Elosegik. 16 urtetik gorako sailean hiru saritu egon ziren: hirugarrena, Leire Murillo; bigarrena, Isabel Muñoz; eta lehena, Aive Trujillo. Azkenik, argazkirik originalenaren saria Kontsuelo Errastik irabazi zuen.

Mugikorretatik harago

Gaur egun mugikorrek edozein argazki ateratzeko aukera badago ere, Artgazki taldeak argazkilaritza profesionalagoa sustatu nahi izan du lehiaketa honekin. Carmonaren hitzetan: "Betiko argazkilaritza sustatu gura dugu guk: enkoadraketa, konposaketa eta teknikak hobeto lantzeko." Jaietan herritarrek argazkilaritza disfrutatu ahal izateko ekintza paregabea dela diote.



Su artifizialak Muru aldean. | AIVE TRUJILLO



Su artifizialak gertutik. | JON ELOSEGUI



Erraldoiak udaletxepean. | KONTSUELO ERRASTI

JMA®

*belaunaldiz belaunaldi
herriko sena landuz*

*gora arrasate,
gora san juan*



Eguzkilaru | Haurren eta gaztetxoek laguna

"100 umerekin antolatu dut etorrera eguna"

► Eguzkilaruk 20 urte ditu aurten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eguzkilaruk 20 urte ditu aurten; 1996an hasi zen herriko haur eta gaztetxoak alaitzen; hori ospatzeko, elkarrizketa egin diogu.

Dena gertu berriz ere Arrasatera etortzeko?

Bai, dena prest, eta gogotsu nago. Aurten, gainera, Arrasateko haurrek lagundu didate eguna antolatzen. Izan ere, apirilean Arrasateko kaleetan ibili nintzen haurren iritzi eta ideia berriekin 2016ko Eguzkilaru eguna antolatzeko asmoz. Aurten bereziki oso pozik nago, Eguzkilaru eguna 100 umerekin batera antolatu baitugu.

Nola etortzen zara Arrasateraino?

Ez naiz etortzen; Arrasateko zeruan bizi naiz Iretargirekin batera. Aurten tirolina jarriko dugu; beraz, bertatik jaisten ahalginduko naiz.

Dagoeneko urte mordo bat Arrasateko jaietan parte hartzen. Zenbat, zehazki?

Oraindik gaztea naiz: 20 urte ditut. 1996an hasi nintzen herriko haurrak eta gaztetxoak alaitzen. Eta oraindik gazte ikusten dut nire burua; beraz, urte askotan jarraitzeko asmoa daukat.

Zer gustatzen zaizu zuri gehien jaietatik?

Sanjuanak suaren eta dragoiaren laguntzarekin hastea asko astegin dut; dantza pixka batekin, herria alaituz kolore ezberdinetako munduak sortzeko aukera dago jai hauetan. Haur eta gaztetxoek Arrasaten egun horietan sortzen diren mundu ezberdinak koloreztatzen dituzte eta nik beraiekin gozatzen dut.

Aurtengo ekintzetatik zein gomendatuko zenieke bereziki haur eta gaztetxoek?

Dena probatzea gomendatuko nuke, dena esperimintatzea, esperimintatuz gozatzen baita.

Hunkigarria izango da zuretzat Arrasateko umeek ongi etorria egiten dizuten momentua, ezta?

Beraien eguna beraien irribarre batekin hastea oso hunkigarria

"Haurren eta gazteen besarkadek indarra ematen didate eguna gozatzeko"



Eguzkilaru, iazko sanjuanetan. | GOIENA

da. Haurren eta gazteen besarkadek indarra ematen didate eguna indarrez hartu eta gozatzeko.

Zu etorri eta berehala, makal txikia jasoko da, trikitaliak etorriko dira... Sekulako giroa sortuko da, ezta?

Trikiti soinuak lagunduta beti sortzen da giro bikaina, makala gaztetxoekin batera jasotzean ere giro aparta sortuko da, eta Txatxilipurdiko lagunek hau indartzen lagunduko dute, denetarik ekintza eta tailerrekin.

Urte hauetan guztietan gertatu zaizun bitxikeriarik edo anekdotaren bat kontatuko diguzu?

Anekdotak ugari dauzkat, bai: denok daukagu Eguzkilaru eguneko anekdotaren bat kontatzeko, baita haur eta gazteek ere, baina niretzako gordeko ditut, sekretutxoak ere izan behar baititugu.

"Aurten tirolina jarriko dugu eta bertatik jaisten ahalginduko naiz"

Umeendako ekintzak jai guztietan zehar

Ekainaren 25a da Haur eta Gaztetxoek Festa, eta egun horretan etorriko da Eguzkilaru. Egun osoan zehar, hainbat ekintza izango dira txikiendako: 10:30etik aurrera, Biteri plazan Hurgunea eta, Zaldibarren, Gaztegunea; 11:30etik 12:30era, umeendako Skate Skola, Zaldibarren; 12:00etan, Eguzkilaruri ongi etorria, Biterin, eta makal txikia jasotzea; 13:30ean, apar jolasak Jokin Zaitegi plazan; 16:00etan, umeendako jolasak Azoka plazan; eta 18:00etan, *Ane eta piratak parrandan!* izeneko zuzeneko dantzaldia.

Baina, egun berezi horretaz gain, jai guztietan egongo dira ume eta gaztetxoek zuzendutako ekintzak: batzuk aipatzearren, San Juan bezperan, hilaren 23an, etxafuegoak eta granada japoniarrak izango dira Seber Altuben, eta, segidan, umeendako dantzaldia Txaloka taldearekin; San Juan egunean, *Tren geltokia* izeneko umeendako ikuskizuna Seber Altuben, 18:30ean; eta, jakina, jaietako barrakak ere bai, Maiatzaren 1a plazan. Aipatu behar da ere *Batzen* izeneko jolas-dantza herrikoia, adin guztietako jendearendako.

mondragonLingua

It's different!

Programa desberdina,
klase desberdinak,
metodologia desberdina
eta emaitza desberdinak ere bai.



Udalekuak



Ingeles,
aleman eta frantses
ikastaro trinkoak



Ikastaroak
atzerrian



Informa
zaitez zure
MondragonLingua
zentroetan



Lan elkarrizketak
prestatzeko tailerra

ARRASATE
Araba etorbidea 4.
Tel.: 943 71 20 55.

OÑATI
Motxon kalea.
Tel.: 943 71 60 00

this
Summer
is different

Mahaiaren bueltarako aukera ugari

Gazteen bazkaria, Dragoi Jana eta 'Zeuk iñ zeuk jan'; hiru egun, beste horrenbeste otordu

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Sanjuanak eurak bezala, lagun artean mahaiaren bueltan gozatzeko hitzorduak ere bata bestearen atzeko egunetan datoz aurtan. Honela, jaiei hasiera emateko gazte kuadrillek San Juan bezperan egin ohi duten bazkariari Dragoi Janak hartuko dio lekukoa San Juan egunez, eta *Zeuk iñ zeuk jan* izango da biharamunean. Dragoi Janaren kasuan, aurtengo nobedadea da hitzordua San Juan egunera itzuli izana –jaiak ofizialki hasi aurretik egin dute azkenaldian–, eta beste bi kasuetan lekua: kuadrillen bazkaria Biteri plazan egingo dute Uarkapen beharrean eta *Zeuk iñ zeuk jan*, berriz, azokan, eta ez Arano eta Gartzia Maisu-maistra kalean.



Gazteak, umore onean, San Juan bezperako bazkarian. | GOIENA



Zeuk iñ zeuk jan, orain arte egiten zen lekuan. | GOIENA

Gazteen bazkaria

San Juan jaiei hasiera behar den bezalako tenplez eta giroan emateko, eguerdian txosnagunean txupina bota eta arratsaldean makalari heldu aurretik, bazkaritara batuko dira gazteak, ohi bezala.

Bazkaria Biteri plazara aldatuta, kalera atera nahi izan dute festa hasierako otordua. 400 pertsona inguru batzea espero dute Txosna batzordekoek, eta txartelak Irati, Iluntz eta Jaizale tabernetan eskuratu ahal izango dira, 15 eurotan, kamiseta eta zapia barne: "Bazkariaren helburuetako bat da gazte denak batzea eta indarrak hartzea gero makala plazara eramateko", dio te batzordetik.



Kuadrilla, topa egiten, Dragoi Janean. | GOIENA

Dragoi Jana

AEDk eta AEK-k antolatzen duten afaria San Juan egunera itzultzeko arrazoia izan da ezin zela aurreko zapatuan –bihar– egin, haurren danborrada amaitzen delako Herriko Plazan.

400 lagunendako lekua egongo da, eta txartelak erosi ahal izango dira Monte, Jaizale eta Irati tabernetan eta AEDn eta AEKn, 8 eurotan AEK-ko ikasleek eta AEDko eta herriko beste euskara elkarteetako bazkideek –baita Goiena Klubekoek ere–, eta 10 eurotan gainerakoek. Afalostean, jolasak eta Oihan Vegaren disko-festa izango dira. Euria egiten badu, azokan izango da Dragoi Jana.

'Zeuk iñ zeuk jan'

Azokan izango da –eguraldia dena dela–, baita ere, norberak eramanakoa edo bertan kuadrillan prestatutakoa jatea ezaugarri duen bazkaria ere: "Erretiratuek gustuko lekua dute Portaloia, eta azken hiruzpalau urteotan kexa ugari entzun izan ditut, eta erabaki dugu lekuz aldatzea", dio Kultura batzordeko buru Juan Ramon Mendietak.

500 lagunek izango dute aukera, gehienez. Izena BAZen eman behar da –hilaren 21era arte–, eta han eskatu ahalgo dira sute-giak ere –zozketa egingo dute eskatzaileen artean–. Mahaiak, aulkiak eta sagardo kupela jarriko ditu Udalak.

LEIHOEN ETA PERTSIANEN
ERAKUSKETA

ONDO PASA JAIK!

LEIHOEN ETA PERTSIANEN
KONPONKETAK

ELTXO SAREAK

PERTSIANAKO MOTORRAK

ESTOREAK-VENEZIARRAK

KONTRALEIHOAK

LEIHOKO OSAGARRIAK

Zatoz ezagutzera
Zerkaosteta Kalea 15
20500 ARRASATE- (Gipuzkoa)

MAKOR
DENDA

PVC
RPT
ALUMINIOA
KONTRALEIHOAK
MISTOAK



DEITU 943 10 62 35
673 198 143
makortienda@gmail.com

San Juanak bizi izateko modu ugari

Arrasateko jaietatik zer duten gustukoen azaldu dute herritarrek

I. BELOKI / M. BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko jai nagusiak dira sanjuanak, eta ekainaren 23tik 26ra ospatzen dira –bezperako egunetan ere ekitaldiak izaten dira, hori bai–.

Bada, jaietan urtero parte hartzen duten edo ekitaldietan zuzeneko protagonista diren hainbat arrasatear ezagunekin izan gara, eta jaiak nola bizi dituzten kontatu digute. Gazte eta nagusiek ezberdin bizi dituzte, baina denentzat dira jai bereziak sanjuanak.

Egunero dago zer egin, baina egun onenak ekainaren 23a –bezpera eguna– eta ekainaren 25a direla adierazi dute gehienek.

Ekintza esanguratsuak


Bezpera egunean egiten den Errementari Dantza, su artifizialak, danborrada, makalaren igoera, *Zeuk in zeuk jan* bazkaria... izan dira aipatutako ekintza gustukoak, baina ekintza hauek baino gehiago dira sanjuanak. Lagunekin elkartzeko, ekintza ezber-

dinetan parte hartzea, une zirrargarriak pasatzea... dira askorentzat.

Parte-hartzea sustatuz

Eguraldi ona hasten den garaian dira jaiak, eta arrasatear askok jai izaten dute. Hori horrela, askok egunen bat edo beste herrian geratu, eta gero alde egiten dute. Hala, giro eta jende gutxi dagoela diote batzuek. Hala ere, hori esan arren, bereziak dira batzuentzat, eta aldatzen ari dela esaten dute askok.

Herritar baten esanetan, gazteak gehiago irteten dira gauzez egunez baino, eta hori nabari da. Hala, parte-hartzea handitu behar ko litzatekeela uste du, gazteek indarra ematen diete eta jaiak. Beste baten esanetan, aldiz, danborrada eta Errementari Dantza ditu gustukoak, baina egun ezberdinetan egingo balira, biak hobeto disfrutatuko litzatekeela adierazi du... Dena den, prest daude guztiak aurtengo San Juan jaiak bikain ospatzeko.



ANDONI ALTZELAI
SUDC-EKO KIDEA

"Gazte jendea egunez gehiago ibiltzea gustatuko litzaidake"

"Sanjuanak danborradarekin hasiko ditugu. Bezperan, goizean trago batzuk hartu, hor zehar bazkaldu, arratsaldean beste buelta bat eman, gauean suak ikusi eta lasai-lasai hamabi, hamabi eta erdiak inguruan etxera. Ni egunez ateratzen naiz, dagoeneko gaupasak egiteko ez dugu adinik, nahiz eta zertxobait egiten beti saiatzen garen.

Aurten, Errementari Dantza ikustea espero dut, oso polita da, eta ea aurkitzen dugun tartetxo bat hori ikusteko. Izan ere, urtero-urtero danborradara joaten gara, eta ez dugu ikusten. San Juan bezperan kontu pila bat izaten dira, eta izaten diren gauza guztiak asko gustatzen zaizkit. Lehenengo egunean Monterronen egiten den kontzertua, hirugarren eguneko herri bazkaria... horiek dira, guretzako, sanjuanak. Bestalde, jaietatik aldatuko nukeen gauza bat ere badago: gazteak gauzez irteten dira, batez ere, eta egunez nagusiagoak garenok. Hala ere, parte-hartzea da garrantzitsuena, eta gazte jendea egunez gehiago irtetea gustatuko litzaidake. Gazte giroak asko mugitzen du eta. Dena den, urtero moduan, lasai-lasai ondo pasatzeko asmoa dugu".



ANE ZUAZUBISKAR
GAZTEA

"Urtean zehar egindako lanak plazaratzeko aukera ematen dute sanjuanek"

"San Juan jaiak oso gureak dira, eta barrutik bizi izatea gustatzen zait. Bai herri bazkaria joanda edo Errementari Dantzan... Eguneroko errutina apurtzeko egunak dira, niretako, baina, horrez gain, urtean zehar herrian egiten diren lanak kalera ateratzeko aukera ematen dute; esaterako: kultur taldeen lanak, eragileen aldarrikapenak... euren ere plaza bilakatzen da. Bestalde, jaietatik, Errementari Dantza gustatzen zait gehien, edo, bestela, makalaren igoera.

Herriko jaietan bada aldatuko nukeen gauza bat; adibidez, *Zeuk in, zeuk jan* bazkaria handitzea gustatuko litzaidake, eta egitarauan leku handiagoa hartzea. Badabil indarra hartzen, baina handiagoa izango balu, hobeto.

Uda osoa lanean pasako dut, eta, horregatik, urtero moduan, baina aurten apur bat gehiago festak disfrutatuko ditudala uste dut. Gainera, aste bukatetik gertu jausten dira jaiak; beraz, bikain. 23a, esaterako, egun ederra izaten da, jende gazte asko izaten da kalean triki-poteoan... eta asko gustatzen zait. Hala ere, egun guztiak aprobetxatu eta deskantsatuko dugu gero".



NEKANE ATXA
JAIZALE AMORRATUA


"Jaiak baloratzea zaila da, herritar askok alde egiten dutelako"

"Gogo eta ilusio handiarekin bizi ditut San Juan jaiak. Eguraldi ona hasten da eta lagunekin partekatze momentuak heltzen dira. Hala ere, sanjuanak baloratzea zaila da, jende gutxi egoten da herrian; arrasatear asko, lanean jai izaten dutenez, kanpora joaten dira. Horregatik, herria hilda dagoela esaten dute askok. Ez da nire kasua, ni herrian geratzen naiz; nire ustez, herriko jaiak herrian geratzeko dira, baina antzematen da hori. Hala eta guztiz ere, azken urteetan indarra hartzen dabil poliki-poliki, edo hori pentsatu gura dut.

Lagun artean eta kalean disfrutatuko jaiak dira, eta, bereziki, 23ko arratsalde eta gaua eta 25eko eguneko ekintzak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Txosna-guneak ere buelta bat eman die antolatzen dituzten kontzertuei, eta hori positiboa da, eta umeentzako ekintza ugari izaten dira. Aurtengo jaiak, berri, niretako pertsonalki erosoagoak izango direlakoan nago; egutegiari dagokionez, ondo moldatuko naiz jaiak disfrutatzeke. Gainera, aste bukatuaren bueltan direnez, lagun artean egoteko errazagoa izango da. Espektatiba onak ditut".



San Juan jai zoriontsuak!





ESTEBAN DOLARA
GAITEROA

"Ekainaren 23an eta 24n izaten dugu lan handiena gaita jotzen"

"Oso lanpetuta ibiltzen gara sanjuanetan. Urteko garairik intentsuena eta gogorrena izaten da. Bereziki, ekainaren 23an eta 24an: Errementari Dantza, goizeko dianak, zezentxoak, buruhandiekin kalejira, Arrasate Musikaleko eta Udal Musika Bandako kideekin kontzertuak... Gainerako egunetan lasaiago ibiltzen gara. Egund gogorak dira, baina dagoeneko ohitu egin gara. Era berean, herriko jaietako emanaldiak sanferminetarako entsegu modura hartzen ditugu. Txupinazo egunean Iruñean jotzen dugu urtero, eta berotzeko balio izaten digu. Jaietan gaita eskuetan pasatzen dut denbora luzean, baina lagunekin eta etxekoekin ibiltzeko tarteak ere izaten dit. Herrian egotea gustatzen zait. Gaita jotzeko derrigor egon behar dut Arrasaten, baina ardura hori izango ez banu ere, ez nintzateke kanpora joango. Urtean zehar badaude beste garai batzuk oporretan joateko. Aste Santua, adibidez.

Egun guztiekin gozatzen dut, baina, bereziki, Errementari Dantza azpimarratuko nuke. Herriko Plazan egoten den giroa itzela izaten da: musikariak, dantzariak, herritarrak..."



EVA ROMERO
DANBORRADA KO KIDEA

"Sanjuanak egunez bizi ditut orain; semeekin ibiltzen naiz kalean"

"Errementari Dantza eta danborrada, gaueko ekintzak diren arren, ikusten ditut etxekoekin, baina, bereziki, egunez bizi ditugu sanjuanak. Semeen arrimuan ibiltzen gara jaietan. Egunean egiten diren ekitaldietan parte hartzen eurekin. Bestalde, Arrasateko jai nagusiak dira, eta oso bereziak: lasai egon eta lagunekin eta familiarekin disfrutatzen ditugunak dira guretzat. Herrian geratzen gara. Ekitaldi askotan parte hartzen dugu, eta, bereziki, azpimarratu gurako nuke Arrasaten egoten den giroa. Ekainaren 23 arratsaldetik jai usaina egoten da kalean, eta oso polita da hori. Bestalde, uste dut egitarau zabala prestatzen dutela bai udal arduradunek, eta baita txosnetako kideek ere. Zaila da guztiok asetzeko egitaraua osatzea, baina gustu eta adin guztietarako ekintzak egon izan dira beste urte batzuetan. Esango nuke badagoela non eta zer aukeratu. Akaso, egitarauan faltan igartzen ditut gazteen artean egiten zen patata-tortilla lehiaketa eta elkarteen arteko bakailao lehiaketa. Baina aukera zabala dagoela esango nuke. Guztiok daukagu jaiekin disfrutatzen auzera".



MIKEL BALANTZATEGI
TXORBELA OTXOTEA

"San Juan egunaren bezperako gaua kuttuna da niretzat"

"Jaiak jai dira beti eta sanjuanak hala izaten dira. Gazte garaian ondo ospatu eta disfrutatu ditut jaiak. Aspertu arte kalean ibili izan naiz. Ekintza ezberdinetan parte hartzen. Adinean gora joan naizen heinean, lasaitu egin naiz. Beste jarrera eta ikuspegi batekin begiratzen diet jaiak, baina, betiere, zerbait ospatzeko helburuarekin. Egund alaiak izan daitezke.

Egunero daukagu zer ospatu, baina niri, bereziki, San Juan egunaren bezpera gustatzen zait. Urduri egoten gara. Jaiak noiz hasiko gogoz. Era berean, Errementari Dantza eta haurren zein nagusien danborrada ditut gustuko. Ekitaldi jendetsuak dira, bai parte-hartzaile aldetik eta baita ikusle aldetik ere.

Askotariko ekintzak ditugu aukeran, baina, zerbait aldatzeko eskumena izango banu, Errementari Dantza eta danborrada egund berean ez izatea eskatuko nuke. Horietako bat egunez aldatzea, alegia. Bestalde, egunez egiten diren ekintzetan herritar gehiago egotea gurako nuke. Arratsalde-gau partean giro handiagoa egoten da herriko bazterretan. Egundeko ekintzak indartu beharko genituzke".



MIREN AREXOLALEIBA
DANTZARIA

"Dantzariendako intentsitate handiko egunak izaten dira"

"Herriko jai nagusiak diren aldetik, oso bereziak dira niretzat. Orain arte, Arrasaten egon izan naiz beti. Ez dut arazorik izan jaiekin ez disfrutatzen. Herritar batzuek ohitura dute kanpora joateko. Bereziki, seme-alaba txikiak dituzten familiak. Niretzat, galdu ezinezko egunak dira. Topera disfrutatzen ditugunak. Bereziki, dantzariendako intentsitate handiko egunak izaten dira. Ekitaldi asko izaten ditugu eta gelditu barik ibiltzen gara, baina oso gustura. Akaso, horregatik, Errementari Dantza hunkigarria dela uste dut. Herriko Plazan dantza egiten, hainbeste herritarren aurrean... Ederra izaten da ekitaldi hori.

Dantzarekin aurrera eta atzera ibili arren, beste ekitaldi batzuetan parte hartzeko denbora ere izaten dut. Kuadrillako lagun batzuk kanpoan daude ikasten edo lanean, eta sanjuanak baliatzen ditugu guztiok elkartu eta parrandaren bat egiteko. Elkartzeko egunak ere badira. Kalean ibiltzeko. Eta egitarauak horretarako aukera ematen du: askotariko ekintzak, leku eta estilo askotarikoak, familia osoarendako, gauez eta egunez... Ez dago aitzakiarik".



IÑAKI BARRENA
TXISTULARIA

"Txistua eta gaita ahoan ditudala pasako ditut herriko jaiak"

"Sanjuanetako ekintza dezentetan hartuko dut parte: Haur Dantzari Egunean, Errementari Dantzan, erraldoi eta kilikien konpartsekin, txistularien kalejira, goizeko dianetan... Baina dena ez da musika izango. Familiarekin egoteko tarteak ere hartuko dit: suzko erroberak, Eguzkilaru, errektadoreak, bazkariak... Sanjuanak herriko jai nagusiak diren aldetik, ondo pasatzeko aitzakia dira, baina baita bultzatu beharrekoak ere. Kultura ikuspegitik eta ikuspegi sozialetik. Herria batzeko bide bat dira jaiak. Eragile ezberdinak batzeko. Eta azken hori oso agerikoa da *Zeuk in, zeuk jan* ekitaldian. Izaera parte-hartzailea duen ekintza da: sekulako giroa dago, 500 herritar elkartuta eta aurrekontu txikia. Bestalde, Errementari Dantza ekitaldi zoragarria dela azpimarratuko nuke.

Arrasatear batzuek jaietan kanpora joateko ohitura dute. Sanjuanak barrutik bizi izatera gonbidatuko nituzke. Herrian geratu eta horietan parte hartzera. Bestalde, gauetan bai, baina egunez ere parranda gehiago egitera animatuko nituzke gazteak".

Paraje eder baten kokatua



Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina. Bazkaria hasteko beste modu berezi bat





- Menu bereziak aukerari: 18 €
- Karta

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 043 71 18 81
Faxa: 043 71 18 82

Ondo pasa sanjuanak!

Badatoz sanjuanak, danbor hotsez

Danborradako konpainia zaharreneko eta gazteeneko zuzendariak gogotsu daude jada

ENEKO AZURMENDI | ARRASATE

Suanjuanak oso garai seinalatuak dira Arrasaten, eta, hori hala izanik, hainbat ekitaldiz eta ekin-tzaz ospatzen dituzte.

Ekitaldi horietan artean, garrantzitsuenetako bat, Errementari Dantzarekin batera, danborrada izaten da, umeena zein helduena.

Helduen danborradan, aurten, zazpi konpainiak hartuko dute parte, eta, konpainia guztiak kontuan hartuta, 220-240 parte-hartzaile inguru arituko dira Arrasateko kaleetan zehar. "Oraindik, azken momentura arte, kopuruak ez dira ziurrak", onartu du Andoni Altzelaik, SUDC kultura elkarteko kideak.

Konpainia hauek parte hartuko dute: Montxon, Txalaparta, Ziorla, Eskoziarrak, Kupel-jotzaileak, Beti Gazte, Danbor-jole urdinak eta Danbor-jole gorriak.

Ibilbidea betikoa izango da. Biteri plazan hasi, Zerkaostetatik Kontzezinoko biribilgunera, handik Garibaira, eta, Maala kalean barrena, Erdiko kalerako bidea hartuko dute eta handik herriko plazara iritsiko dira. Bertan bukatuko da danborrada, hainbat kantuko jo ostean.

Orain arte, astelehenetan eta eguaztenetan ibili dira entseatzen, Arizmendi Ikastolako Gaztelupe gunean, 20:30ean. Beraz, datorren astelehenean azkenengo entsegua egingo dute eta ekainaren 22an, eguaztena, entsegu nagusia izango da, ordu berean, Herriko Plazan.

ARANTXA HERIZ | MONTXON KONPAINIAKO KIDEA

"Kanpotik jendea zuri begira egoteak animatu egiten zaitu, momentu polita da"

Montxon konpainia da danborradako konpainiarik beterranoena. Lehenengo urtean hasi ziren eta oraindik ere urtero irteten dira sanjuanetan.

Nagusien danborrada hasi zenetik hartzen du parte Montxon konpainiak, ezta?

Hala da. Dagoeneko 55 urte pasatu dira eta Montxon taldeak hortxe jarraitzen du. Ni lehenengo urtean zaldi gainean irten nintzen eta bigarren urtetik aurrera, urtero, danborra jotzen. **Zenbat lagunek osatzen duzue, gaur egun, konpainia?**

Ez dakit ziur esaten, baina 35-40 bat lagun inguru izango gara.

Aldaketa asko egon dira zuen konpainian urte hauetan?

Bai; jende asko agertu eta desagertu egiten da, urtero daude aldaketak. Gainera, batzuek sanjuanak oporretara joateko baliatzen dituzte, eta hori ulertzen ez dudana zerbait da. Beste batzuek, ordea, hemen egon, eta ez dute nahi izaten parte hartu.

Zergatik?

Egia esan, ez dakit. Gero, gainera, azken momentuan animatu egiten dira eta ederki pasatzen dugu, ez dakit zergatik ez duten hasieratik baietz esaten.

Beraz, giro ona duzue konpainian.

Hala da. Oso ondo pasatzen dugu danborrada egunean, egun polita da, eta herria animatu egin behar da eta tradizioa ez da galdu behar.



GOIENA

Zer da, zuendako, danborradan jotzeak?

Esan bezala, oso giro ona daukagu gure artean eta, gainera, kanpotik jendea zuri begira egoteak animatu egiten zaitu. Oso momentu polita da danborradan jotzen ari zaren hori.

Anekdotarik?

Duela urte batzuk, euriak harrapatu gintuen eta erabat busti ginen. Musikiariak segidan joan ziren aterpera, instrumentuak ez bustitzeko, baina guk jotzen jarraitu genuen. Izan ere, blai eginda geunden eta berdin zitzai-gun gehiago bustitzea. Danbor-jole guztiok plazan jo genuen, euripean.

Noiz arte jarraituko du Arantxak danborra jotzen?

Gorputzak aguantatzen duen bitartean jarraituko dut. Oso ondo pasatzen dut, eta, herriarrok ez badugu herriarengatik egiten, beste inork ez du egingo.

ION MERINO | ZIORLA KONPAINIAKO ZUZENDARIA

"Nire auzoa danborradan ordezkatzeari ohorea da, poztasuna eragiten dit"

Ziorla konpainia sanjuanetako danborradako gazteena da. Auzoko jaiak antolatzen ari zirela sortu zitzairen ideia, eta, orduetik hona, urtero irteten dira. Ion Merino hasieratik da konpainia honetako zuzendaria eta azpimarratu du Ziorla sentimendu bat dela. Gaineratu du luzaroan segituko duela zuzendari lanetan.

Noiz hasi zen Ziorlako konpainia danborradan jotzen?

Duela hiru urte hasi ginen, eta, orduz geroztik, urtero jotzen dugu.

Nola sortu zen taldea?

Auzoko jaiak antolatzen genbiltzen eta norbaitek danborradan ateratzearen ideia atera zuen. Ondo iruditu zitzaigun, eta horrelaxe hasi ginen.

Beraz, auzotarrek osatzen duzue konpainia.

Gehienok auzotarrak gara, bai. Gutxienez, 50 lagun inguruk osatzen dugu konpainia, eta %95 Zigorrolakoak gara.

Zer da danborradan jotzea?

Auzotarrok elkarrekin egiten dugun beste jarduera bat gehiago da danborrada. Olagarro dastaketa eta festak antolatzen ditugun moduan, danborradara ere elkarrekin joaten gara. Azken finean, oso harreman ona daukagu guztiok eta giro ona sortzen da gure artean.

Lagun kuadrilla handi bat da, beraz, Ziorla.

Bai. Zigorrolakoon artean oso ondo



ION MERINO

konpondu izan gara beti. Guztiok ibiltzen gara elkarrekin, ez dago adin tarterik lagunak edukitzeko. Ziorla sentimendu bat bezala da guretzat.

Hasieratik zara taldeko zuzendaria. Zergatik zu?

Hiru urtean ni izan naiz zuzendari, bai. Juan Luis SUDC elkarteko presidentea etorri zitzaidan, zuzendari izan ote nuen galdetuz. Izan ere, idazkari lanak egiten nenbilen orduan, eta, auzotarra nintzen, niri eskaini zidan. Beraz, bi aldiz pentsatu gabe baiezkoa eman nion. Esan bezala, Ziorla sentimendu bat da eta danborradan nire auzoa ordezkatzeari ohorea da, poztasuna eragiten didan zerbait.

Noiz arte pentsatzen duzue danborradan jotzen jarraitzea?

Denbora laburra daramagu oraindik, eta, gorputzak baimentzen digun bitartean, behintzat, jarraituko dugu.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Touran berria



Ondo pasa jaiak!

Erraldoi konpartsa, herria girotzen

Arrasateko kaleetan barrena aritu da taldea urte askoan, euren dantzekin eta musikarekin

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa erreferente da sanjuanetan herriko kaleak girotzen. Gaiteroek lagunduta, askotariko ekitaldietan hartu dute parte San Juan jaietan azken 30 urteetan: Errementari Dantzan, Arrasate Musikaleko bandaren kalejiran... besteak beste.

Erraldoi eta Kilikien Konpartsa herriko hainbat jaitan ibiltzen da Arrasateko kaleetan zehar. Sanjuanetan, santamasetan eta Inauterietan, esaterako. Auzoko jai askotan ere egoten dira, eta orain, sanjuanak gainean direla, gertu daude erraldoi eta kilikiak dantzara ateratzeko.

Taldea sortu zenetik hainbat gorabehera izan dituzten arren, beti egin du aurrera konpartsak. Ahalegin berezia egin dute taldekideek ondorengotza ziurtatzeko, eta azken urteotan gaztetxo ugari batu dira taldera. "Gure helburua konpartsa aurrera ateratzea da, eta beti izan da. Konpartsa txiki, ertain eta nagusiarren zikloa osatuta, proiektuarekin aurrera jarraitzea da gure asmoa", adierazi du Iñaki Arsuagak, konpartsa kideak.

Gaur egun, hiru multzotan batzen da konpartsa: txikien taldean 6 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoak daude; erdiko taldean, 10 eta 14 urte bitartekoak; eta nagusien taldean, 15 urtetik gorakoak. "Jende dezentte batzen gara, baina hobe da soberan izatea faltan edukitzea



Udaletxe aurrean Erraldoi eta Kilikien Konpartsa talde argazkian. | GOIENA

baino. Batez ere, konpartsa ertainean eta handian dugu falta handiagoa".

Urtero moduan, ekainaren 23an, bezperan, Errementari Dantzan izango dira konpartsaokoak, eta 24an, erdiko kaleetan bira egin ondoren, bandarekin elkar-tu eta kalejiran joango dira Seber Altubetik Arbolapetaraino. Ostean, ohorezko aureskua dantzatuko dute udal agintarien eta San Juan Batailatzailearen irudiaren aurrean.



Haurra buruhandiarri bostekoa ematen. | GOIENA

Borondatez, eta gogotsu

Musu-truk, herrian eta herritik kanpora irteten dira konpartsa-koak ahal duten guztietan. Duela urte batzuk berriak jarri zituzten, eta pisu txikiagoarekin hobeto maneiatzen dituzte. Itxuraz berdinak izan arren, material arinagoekin, erraldoia daramana hobeto aritzen da.

"Erraldoi bakoitza eramateko lau pertsona behar izaten dira, nahiz eta txikia, ertaina edo handia izan. Horrenbestez, 60 pertsona inguru behar izaten ditugu lanerako. Hauxe gain, laguntza ere beti izaten dugu, eta behar izaten da, gainera", adierazi du Iñaki Arsuagak.

Emakumezkoen gonbita

Beti izaten dute jendearen beharra konpartsa-koek, eta taldean emakumezko gehiago izateko gogoia adierazi du Arsuagak: "Emakumezko gehiago izatea asko gustatuko litzaiguke. Txikien taldean badago bateren bat, baina ez dela hain gogorra helarazi behar diegu. Pisuak atzera botatzen ditu asko, eta, hain astuna ez dela ikusteko, probatzera animatu gura ditud".

Aurten, gainera, konpartsa ertainetik handira ere pasako da gazteren bat edo beste. Izan ere, duela urte batzuk hasi zuten proiektu berriaren funtsa hori da. Taldeak banatu, ikasten joan eta batetik bestera pasatzen joatea da helburua, batez ere, konpartsa handiak indarra hartzeko.

JUBAR®

ATEAK, S.L.



San Juan jai
zoriontsuak
guztioi!

Ate sektionalak



Ate bilgarria ate azkarrarekin



Neurri handiko ate bilgarriak



Langa mugikorak



Garajeko atea
Segurtasunezko pertsianak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko aginte tresna homologatuak
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak

Aluminiozko ate automatikoak



Jaia ez dadin egun zehatzetara mugatu

Txosna batzordeak prest du bere egitaraua, hilaren 24a eta 26a ere festarako proposatzen dituen

URREZKO DRAGOIA

Festari ekarpena egiten diotenei

Jaiei ahalik eta zuku gehien atera eta, aldi berean, beren jarrerarekin, giro berezia jarri eta beste batzuk ere festan murgil daitezzen baldintzak sorrarazten dituzten pertsonak sarituko dituzte aurten ere, Urrezko Dragoiarekin.



Duela urte batzuetako sarituak. | GOIENA

ARTISAU AZOKA

Askotarikoak erosteko modua

Herriko Plazan izango da aurten artisauen azoka. Herriko artisauen –batez ere– askotariko produktuak ikusi eta erosteko aukera egongo da bertan. Laz ere egin zen azoka, baina txosnagunean. Aurten erabaki dute handik atera eta plazara eramatea, eta bertan egongo da azoka "ia egun denean", Ane Zuazubiskarren arabera. 11:30ean hasiko da.

Artisau gazteak izango dira, batez ere, baina adina ez da muga izango postua jartzerako orduan: "Artisauengana jo genuen eta, antolatuta daudenez, eurak arduratu dira". Eta erosteko moduan egongo direnen artean, halako azoketan ohikoak direnak, bitxiak eta askotariko osagarriak, adibidez.



Artisau lanak azokan. | GOIENA

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Gazteek sanjuanak egunez egun eta egun argiz ere goza ditzaten ahalegina egin nahi izan du aurten Txosna batzordeak. San Juan bezpera eguerdian, 12:00etan, txosnagunean txupina bota eta horrela emango diote hasiera lau eguneko festa tarte trinkoari. Biteri plazan bazkaritan elkartu, eta bazkalostean, txarangak lagunduta, kalerik kale eramango dute makala; 18:00etan Herriko Plazan jasoko dute. Behin jaietan bete-betean murgilduta, gauerdia pasata, 00:30ean, dantzarako aukera erromerian, Fan & Go talde zarauztarrarekin.

San Juan eguna, berriz, Arbolapetako txokolate janarekin hasiko da –edo bezpera amaituko, nahi bada–, eta hurrengo hitzordua izango da 11:30ean, artisau azokaren irekierarekin. 16:30ean hasiko da Street-boulder txapelketa, eta, ondoren, 19:30ean Seberon izango den hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzean parte hartzera deitu dute Txosna batzordetik.

Eta eguneko azken bi hitzordua ere –Dragoi Jana eta su artifizialak– ez dira propio Txos-

na batzordearenak, baina euren egitarauan sartu dituzte, ondoko arrazoiengatik: "AEDko gazte taldeak Txosna batzordean daude, eta beti aprobetxatzen da hori; gainera, hilaren 24a da egun bat gazteak ez direla hainbeste ibiltzen kalean, eta deialdi hauek horretara ere badaude bideratuta, gazteak kalean ibil daitezzen, ez bakarrik parrandarako markatutako egunetan". Su artifizialen kasuan, berriz, Txosna batzordeko kide Ane Zuazubiskarrek dio jendeak ohitura hartu duela horiek txosnagunetik ikusteko, eta hortik egitarauan sartzea.

San Juan biharamuna

Hilaren 25ean *Zeuk iñ zeuk jan* bazkari herrikoian parte hartzeko deia ere egiten du Txosna batzordeak; bazkalostean banatuko dute Urrezko Dragoia, eta dinamizazioa ere izango da.

17:30ean hasiko da martxan elektrotxaranga. Batetik bestera ibiliko dira herrian, eta geldialdiak egiten dituzten aldiro taldekako jolasak egingo dituzte. Egitarauko eguneko azken hitzordua, berriz, 22:00etan, Arkada Social eta Non Servium taldeen kontzertua.

MAKALA

Kaleetan barrena Herriko Plazara

Ordu erdi lehenago –18:00etan– jasoko dute aurten makala: "Bestela, margen txikia geratzen zen gero Salberako-eta; eta horregatik aurreratu da", dio Ane Zuazubiskarrek. Ikusmina izaten da; arazo barik jasotzen dute orain: "Dominatuta dugu urte batzuetatik hona".



Gazteak makalari heltzen. | GOIENA

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK 2016-2017 IKASTURTEA

- 3 urtetik aurrera
- Irakasle kualifikatuak eta tituludunak (jatorrizkoak zein bertakoak)
- Metodologia egokitua, ludikoa eta dinamikoa
- Azterketen prestaketa



since 1999

koma GROUP

Koma Arrasate | Iturriotz kalea 35 - behea | Tel.: 943 71 26 31

Azken eguna

Parranda bete-betean indarrez sentitzen direnentzat, goizaldeko 05:00etarako soka salto *gaupase-roa* iragarri dute, eta, atsedean apur bat hartu ondoren –hala nahi duenak–, 12:00etan, *Hiru handiak* deitu duten ibilaldia egingo dute, Monterron, Santa Barbara eta *Mendia* taberna –Monte– artean. Eta egitarauari amaie-

ra emateko, kirol gehiago, bolo txapelketa 18:00etan, lehenengoz antolatu dutena: "Familia denarentzat bideratuta, umeentzat, gazteentzat, helduentzat..." Hau ere, Zuazubiskarren esanetan, hilaren 24ko eta 26ko egunei ere festa izaera handiagoa emateko ahalegin horretan kokatuta. Azken egunean, gainera, prezio bereziak izango dira txosnagunean.

EKAINAK 23, EGUENA

12:00 Txupina, txosnagunean.

14:30 Herri bazkaria, Biteri plazan.

16:00 Makala herriko kaleetatik, txarangak lagunduta.

18:00 Makalaren igoera, Herriko Plazan.

00:30 Fan & Go taldearekin erromeria.

EKAINAK 24, EGUBAKOITZA

08:00 Txokolatada, Arbolapetan.

11:30 Artisauen azoka, Herriko Plazan.

16:30 *Street boulder* txapelketa.

19:30 Azken egubakoitzeko elkarretaratzea, Seber Altuben.

21:00 Dragoi Jana, Herriko Plazan.

23:00 Su artifizialak.

EKAINAK 25, ZAPATUA

14:30 *Zeuk in zeuk jan*, azokan.

16:30 Urrezko Dragoiaren banaketa eta dinamizazioa.

17:30 Elektrotxaranga eta jolas kritikoak.

22:00 Kontzertua: Non Servium eta Arkada Social.

EKAINAK 26, DOMEKA

05:00 Soka salto gaupaseroa.

12:00 Arrasateko *Hiru handiak*, gaupaseroekin. (Monterron, Santa Barbara eta *Mendia* taberna).

18:00 Bolo txapelketa.

Egun osoan *Outlet* prezioak txosnagunean.



ANGEL MOYA

HODEI BEITIA | ARKADA SOCIAL TALDEKOA

"Non Servium-ekin jotzea izugarria da guretzat, Espainiako talde indartsuena da"

Arkada Social arrasatearrek Non Servium madrildarrekin joko dute San Juan biharamunean txosnagunean. Hodei Beitia aurreneko taldeko baxu-jolea eta abeslaria da, baina badu bigarrenaren berri. Bi taldeek behin baino gehiagotan jo izan dute elkarrekin, eta Beitiak, gainera, eurekin abestu ere egin ohi du.

Gogoz izango zarete Arrasaten jotzeko.

Gogo handia dugu, bai, kontuan izanda, gainera, sanjuanetan dela, ze urte asko dira jaietan ez dugula jo. Egun berezia izango da guretzat. **2015 amaieran atera zenuten *Sin mirar atrás* izeneko diskoa. Hura herrian aurkezteko ere balio du.**

Bai; abendua ezker ari gara disko berria aurkezten. Denetik joko dugu, abesti zaharrak ere bai, baina bai, balioko du lan berria aurkezteko ere. Eta sorpresa handi bat ere egongo da.

Eta, ze harrera izan du orain arte disko berriak eta ze harrera espe-

ro duzue izango dutela disko berriko kantuek Arrasateko jaietako kontzertuan?

Bada, ez dakit. Nik uste dut Arrasaten gehiago entzuten zela lehen musika hau; orain, gutxiago entzuten da, eta ez dakit gazteek nola erantzun duten, baina uste dut jendea egongo dela eta abesti berriak gustatuko zaizkiola. Orain arte aurkeztu ditugun lekuetan harrera oso ona izan dute; kontzertuetan ikusten da nola jendeak letrak eta badakizkien eta nola abesten duten. Oso gustura gaude diskoak izan duen harrerarekin; ez genuen espero Espainia aldetik, adibidez, hainbeste deitza; Madrilen, esaterako, azken urtean lau aldiz jo dugu. Kanpotik gehiago deitzen digute, gustatzen zaie.

Kantu berriak zer dira, betiko ildokoak?

Aurreko diskoaren jarraipena dela esango nuke nik. Abesti gehienak nik ateratzen ditut, eta esango nuke jarraipen bat dela. Ez dut aldatu askorik konposatzeko orduan.

Eta berriz ere Non Serviumekin. Iaz ezagutu genuen elkar, eta azkenaldian zenbait kontzertu jo ditugu eurekin. Eta ikusten dugu elkarrekin jotzen dugunean jendea joaten dela eta gustura egoten dela.

Zer da zuentzako haiekin jotzea? Izugarria da guretzat; nik uste dut Espainian gure alorreko talde indartsuena eurak direla, zalantza barik. Izugarriak dira.

Eta elkarrekin aritzeaz gain, kantatu ere egiten duzu zerorrek eurekin.

Eurekin kontzertuak izan ditugun azken aldietan abesti bat abestu dut eurekin. Horrez gain, euren azken diskoa grabatzen ari zirela, Usubilen, bisitan joan nintzaien, eta gonbidatu ninduten abesti baterako koruak egitera, eta amaitu nuen diskoko koru guztiak sartzen.

Euskal Herriarekin harreman berezia dute, ezta?

Bai; betidanik jo dute hemen. Ni neu ere lehenengo aldiz Madrileren joan nintzenezan harrituta geratu nintzen euren pentsatzeko moduarekin eta. Inpresio onarekin geratu nintzen. Eta Hatortxu Rock eta halako askotan jotzen dute.

Nolako esango zenuke delaeuren musika?

Ikaragarriko makarrak dira. Letrak asko gustatzen zaizkit, azken diskoak, adibidez. Punka, hardcore puntu batzuekin... gauza agresibo bat da, hasten zara ikusten eta... nik, behintzat, *flipatu* egiten dut. Azken aldiz ikusi nituenean, adibidez, ia jotzeari uzteko gogo eman zidan. Izugarriak egiten dituzte, eta jendea nola egoten den, ikaragarria.

Jendea ekarriko dute.

Nik uste dut baietz. Arrasate inguruko jendea etorriko da, eta Euskal Herriko hainbat lekutatik ere bai.

Jai herrikoi,
parte hartzaile eta
parekideen alde

GOZATU
SAN JUANAK!

ehbildu

Raimundo Amador | Abeslaria eta gitarra-jolea

"Gandorrik ez dugu izan, baina gu gara lehenengo ijito punkak"

- ▶ Kontzertua egingo du ekainaren 26an, 20:00etan, Herriko Plazan
- ▶ BB King, Hendrix eta hainbat idolo omenduko ditu Sevillako musikariak

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Fusioaren errege Raimundo Amador (Sevilla, 1959) izango da ekainaren 26an, Herriko Plazan. Goreneko mailako gitarra-jolea kontzerturako gogotsu dago.

Punkaren sorlekura zatoz...

Gu gara, ba, lehenengo ijito punkak: Pata Negra, Veneno eta beste hainbat. Ondo gogoan dut orduan bete-betea zegoela punka... Guk ez geneukan gandorrik, baina gure bizimodua nahiko punka zen. Eta orain ere punkak izaten segitzen dugu, baina helduagoak. [Barre]

Estilo askotako musikariekin jo duzu: BB King, Björk, Kiko Veneno...

Ez zaitu ezerk beldurtzen?

Eta Camaron, Enrique Morente, Miles Davisen inguruan... Musikaren hainbat alderdi ukitu ditut, baina beldurtu? Ez horixe, musika oso gustuko dut eta. Izan ere, benetako dena dut

gustuko, *authentic*, horregatik, baita punka ere.

Flamenkoa, bluesa eta rocka. Zer eskainiko duzu?

Hiruretatik apur bat. Barruan daramadan hori aterako dut, eta bertsio batzuk ere egingo ditugu. *Raimundo Amadorrek idoloak omenduko ditu* izan daiteke kontzertuaren izena; asko ditut, baina baten bat aipatzearren BB King, Jimi Hendrix, The Allman Brothers, Miles Davis... Eta zelan ez, Camaron handia!

Euskal Herrian ezaguna zara; gustura etortzen zara?

Izugarri gustura, benetakoak zarete eta. Gogoan dut lehenengo aldiz Pata Negrarekin etorri nintzela Gasteizko Elefante Blanco diskotekara, urte asko dira dagoeneko; *catering-a* eskaini ziguten eta hotelera itzuli ginenean jan gabe geratutako guztia geneukan: "Hau zuena da, egin nahi duzue-



Raimundo Amador gitarrarekin. | MAUKA

na horrekin", esan ziguten. Ole! Benetakoak zarete! Eta beti hartu izan nauzue ezin hobeto.

Zeinek egin dizu konpainia hobea, gitarra espainiarrak ala elektrikoak? Lekuaren arabera. Espainiarra oso gustuko dut jende gutxi elkar-tzen garenean jotzeko, jai giroan, baina zailagoa da entzule guztiengana iristea. Elektrikoarekin uste dut soinua hobeto lortua dagoela, eta flamenkoa eta guzti jotzen dut horrekin; baita alde-rantziz ere.

Azken diskoa kaleratu zenuenetik sei urte pasatu dira; hurrengoa?

Aspalditik dago bidean, baina neu naiz jabea eta ez diot martxa ematen. Disko batetik bestera beti itxaroten dut sei edo zazpi urte. Gainera, diskoa ateraz gero erosteko izan dadila, orain apenas erosten da eta!

Kultura krisian dagoen sasoiari, zerk bultzatzen zaitu aurrera segitzen?

Musikak eta familiak; musikarik gabe hil egingo nintzateke! Musika, ez bakarrik entzun, egin ere bai; horretarako eman didate gaitasun hau Jainkoak eta nire aitak; berak erakutsi zidan gitarra jotzen. Urte osoa pasatzen dut musika egiten, uda eta negu, nahiz eta diskorik ez egin.

"Diskorik atera ez arren, urte guztia pasatzen dut musika egiten"

SAN JUAN JAIAK 2016

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN

EKAINAK 24 ETA 27, 20:00, 21:00 ETA 22:30

GOIENA TELEBISTA | JAIK SAIO BEREZIA

EKAINAK 29, 22:00

BABESLEA:

ARETXARGI





Goikobalu abesbatzakoak San Juan jaietako kontzertua prestatzen. | XABI GOROSTIDI

Goikobalu eta Anne Etchegoyen batera

San Juan gauean kantaldia egingo dute Monterronen

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Goikobalu abesbatzak eta Anne Etchegoyenek San Juan eguneko gaua girotuko dute. Arrasateko abesbatzak aspalditik zeukan San Juan jaietan abesteko nahia, eta, aurtengoan ez ezik, jaietako egitarauan urtero tartetxo bat

izatea gustatuko litzaiekeela adierazi du Jose Antonio Barriocanalek, Goikobaluko presidentek.

"Batzar orokor batean, herriari gutxi abesten zutela komentatu zuen partaide batek. Zurrumurrurak heldu zitzaizkigun herri-

rentzat gutxi abesten genuela esaten zutenak. Udaletik jasotzen duguna baino gutxiago ematen diogula herriari, alegia. Egia esan, Arrasaten nahi baino gutxiago abesten dugu. Apirilean Arrasate Musikaleko orkestrarekin egiten dugun kontzertuak oso

harrera ona izaten du urtero, eta, hori ikusirik, herriari ekin-tza gehiago egiteko gogoz geunden", adierazi du Jose Antonio Barriocanalek, Goikobaluko presidentek.

Hori dela eta, duela sei edo zazpi urte hasi ziren San Juan jaietan abestea gustatuko litzaiekeela adierazten. "Guk beti esker-tu izan dugu Udalak urtero eman izan digun diru laguntza, eta hori herriari nolabait itzultzeko beharra sentitzen genuen. Horretarako, hobekien egiten dakiguna egitea zen gure helburua; hau da, abestea".

Beraz, aurretik euren borondatea erakutsi arren, aurtengo jaietan euren helburua beteko dute. Anne Etchegoyen abeslari lapurtarrarekin batera elkarbanatuko dute Monterrongo agertokia.

Kontzertu berezia izango da. Hasieran nor bere aldetik arituko den arren, azken hiru abestietan bat egingo dute.

Gaur egun, teknologia berriei esker distantziara entseatzea posible izan arren, entsegu pare bat egingo dituztela jakinarazi du Barriocanalek: "Kontzertu egunean bertan, goiz eta arratsaldean entseatzea da gure helburua. Annek, normalean, gizonetako koru baten laguntza izaten du. Hala ere, gurekin batera abesteko ez du abestien tonua moldatu. Aurretik partiturak jaso ditugun arren, entsegu bat egin ondoren hobeto aterako delakoan gaude".

ANNE ETCHEGOYEN
ABESLARIA

"Herrietako abesbatzekin kantatzea gustuko dudan zerbait da"

Anne Etchegoyen Donapaleuko abeslaria aurtengo San Juan jaietan arituko da. Parisen diskoa grabatzen ari dela erantzun die GOIENAREN galderei.



PRODUCCIONES

Nola sortu zen Goikobalurekin abesteko aukera?

Aurretik egin izan dugun zerbait da. Herrietan jotzen dudanean, bertako abesbatzekin abestea gustuko dudana zerbait da.

Nola prestatzen dituzue era honetako kolaborazioak?

Kontzertu egunean entsegu egingo dugu abesbatzakoekin batera. Eurek badituzte abestien partitura eta bideoak eta euren kabuz lantzen ari dira. Ez entseatzeak ez nau arduratzen, ziur nagoelako dena ondo aterako dela.

Abestiak moldatu behar izan dituzu horretarako?

Ez dut aldaketarik egin. Abestiak diren bezala joko ditugu.

SAN JUAN

*Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zanetan
aurten ere Sain Juan Bautista.
Jesukristoren lehengusua zan
Sain Juan, Sain Juan Bautista.*

*Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.*

*Ibai guztiak agortu dira
arrain gaixoak egarri
datorren urtean mutikotxuak
nun egingo dute igari*

*Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.*



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

*zure
zerbitzura*

Arrasate Musikal, musika zabalduz

Aurten, Monterongo emanaldian RIP taldearen hainbat kanta joko ditu bandak

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Arrasate Musikalek 44 urte beteko ditu aurten, eta, urtero moduan, herriko musikariak kalera irtengo dira San Juan jaietan, herria musikaz betetzera. Gaur egun, 600 ikasle inguru ditu Arrasate Musikalek, eta, guztira, hamabi talde instrumental ditu, musika estilo ezberdinak uztartzen dituztenak. Banda, berriz, 65 musikariz osatua dago, eta Edorta Aiastui Arrasate Musikaleko ekintza arduradunaren esanetan: "Mila polita eskaintzen duen taldea da Arrasateko banda. Bandaren hasierak, 1992an, ez ziren errazak izan, baina, gaur egun, egoera oso onean dago".

Jaietarako hainbat zeregin

Arrasate Musikalek parte hartuko du aurten ere San Juan jaietan. Izan ere, ekainaren 23an, bezpera egunean, Errementari Dantzan Arrasate Musikaleko banda nagusia izango da, urtero moduan, herriko kultura talde ezberdinekin batera.

Ekainaren 24an, berriz, San Juan egunean, ohitura bihurtu den kontzertua eskainiko dute Monterronen, 13:00etan.



Ikusleak Monterronen Arrasate Musikalen kontzertua ikusten. | GOIENA

Hala ere, kontzertuaren aurretik, 11:30ean, Seber Altube plazan *La Domingera* abestia interpretatuko du Arrasate Musikaleko bandak, Arrasateko gaitero eta erraldoiekin batera. Bestalde, 24an, Arrasate Musikaleko haize-taldeak eta gaiteroek herriko kaleak girotuko dituzte Txaragan.

Monterronen arrakasta

Mikel Markiegi zuzendutako Arrasate Musikaleko bandak urtero egin ohi duen moduan, Monterron parkean emanaldia eskainiko du, eta hau izango da errepertorioa: *El Barbero de Sevilla* (G. Rossini), *Mirentxu* (J. Guridi), *La boda de Luis Alonso* (J. Jimenez), *The legend of maracaibo* (G. Gimenez), *Soul Bossa Nova* (Q. Jones) eta aurten bereizgarri, RIP taldearen hainbat kantu ere joko dituzte instrumentalki.

Mikel Markiegi Arrasate Musikaleko tronboi, tuba eta bonbardino irakasleak banda eta gaiterako RIP taldearen moldaketa musikala egin du; hala, *Conde-nado*, *Enamorado de la Muerte* eta *Lepoan hartu eta segi aurrera* kantak joko dituzte.



Ondo ibili
sanjuanetan!

FENIX MATERIAL BERRIA



Argia oso gutxi islatzen da



Arrastoen aurkako digitala




Bakterioen aurkako eraginkorragoa



Garbitzeko erraza



Hidrofugoa



Ukitzean leuna da



Urragorria

carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate

Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Pantaila erraldoia ipiniko dute plazan

Errementari Dantza eta nagusien danborrada guztiek ikusi ahal izateko

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasateko Herriko Plazan, jaietarako agertokiaren ezker aldean, eta Iturriotz kale aldera kokatuta, pantaila erraldoia jarriko du Arrasateko Udalak San Juan bezperan, ekainaren 23an.

Herriko Plazan egiten den San Juan suaren bueltara batzen diren ekitaldiak gura ditu bertan ikusarazi: Errementari Dantza, San Juan sua, alkatearen dantza eta nagusien danborrada.

Herritarrek eskatuta

Arrazoiak, honako hau, Arrasateko Udaletik esplikaturako moduan: "Iaz sanjuanetan hainbat herritar etorri ziren esaten plazako ikuskizunak ikusteko arazoak zeudela. Iazko santamasetan proba moduan jarri genuen pantaila erraldoia, eta erabaki dugu aurretik Errementari Dantza eta danborrada ikusteko aproposa izan daitekeela berriro ere jartzea".

Pantailaren beraren kokapen egokiena erabakitzeke ere herritarren beharrak aintzat hartu dituzte: "Ikuskizuna pantailatik ahalik eta jende gehienak ikusi ahal izateko eta jendeari lekuri ez kentzeko leku egokiena aukeratu dugu".



Nagusien danborradako eskoziarren konpainiako hiru kide, iaz. | IMANOL SORIANO

Bereizmen handikoa

Pantaila jartzeaz Goiena Komunikazio Taldea arduratuko da. 5x3 metroko tamaina duen pantaila izango da. LED sistema baliatzen duena eta bereizmen handikoa.

Emisioari dagokionez, aipaturako ekitaldiei dagokien ordutegian abiaraziko da, eta Erre-

mentari Dantzaren amaieraren ondoren, "Errementari Dantzaren eta nagusien danborradaren etorreraren bitartean ikuskizunik ez dagoela kontuan hartuta eta Herriko Plazan jende ugari izaten dela kontuan hartuta, San Juan jaietako ordura arteko ekitaldiekin irudi bilduma eskainiko diegu bertaratutakoek", esplikatu du

Oihane Agirrek, Goiena Telebis-tako zuzendariak.

Era berean, bertaratu ezin diren herritarrak eta bisitariak ere aintzat hartuta, Goienak streaming bidez eskainiko ditu San Juan bezperako ekitaldi horiek guztiak. Kasu horretan, emisio hori Interneteko ataritik egingo da: Goiena.eus-etik, alegia.

Saio bereziak Goiena telebistan

Bestalde, jaiak eta halako hitzordu bereziak daudenean ohi denez, jarraipen berezia egingo dizkie Goiena Komunikazio Taldeak Arrasateko San Juan jaiari. Hain justu ere, eta Aitor Agiriano kazetari eskoriatzarraren bitartez, ekitaldi esanguratsuetan egon, haien jarraipena egin, protagonistekin eurekin, bereziki, eta horren ondoren saio bereziak ekoiztuko dira: "Ekainaren 24an, egubakoitza, Debagoiena Zuzenean saioa osorik izango da sanjuanei buruzkoa; kasu horretan, ekainaren 23an jasotako eta San Juan eguneko ekitaldiekin ekoiztutako saioa izango da. Eta gero, ekainaren 27an -eguztana- ere beste Debagoiena Zuzenean (DZ) berezi bat ekoiztuko da sanjuanekin; kasu horretan, ekainaren 25eko eta ekainaren 26ko ekitaldi sortarekin osatutako saioa izango da", zehatu du Agirrek. Bi DZ bereziok 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean emitituko dira aipaturako egunetan.

Eta Goienaren eskaintza borbiltzeko, ekaiaren 29an, eguztana, San Juan jaien gaineko saio berezia emitituko du telebistak, 22:00etan.



aurretik doan unibertsitatea

Berrikuntza eta ikerkuntza oinarri dituen unibertsitate gaztea gara. Enprekin zuzeneko eta etengabeko hartu emanean gaude, gizartearen beharrei erantzuteko prest.

Bertako kultura sustraiturik, etorkizuna eraikiz.



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA
☎ 943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA OSTALARITZARAKO,
GARBITEGIETARAKO ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO
MAKINEN SALMENTA.

OSTALARITZAKO PROIEKTU INTEGRALAK

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA
☎ 943 79 12 30

Banatzaile Ofiziala



GURE BEZEROAK:



35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

www.etxe-lan.com



Tel.: 943 79 12 30
etxe-lan@etxe-lan.com

Torrebaso Industrialdea, 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

San Juan bezpera girotzeko, dantzak, sua eta tantaia

Eguenean, ekainaren 23an, Herriko Plaza inguruan izango dira ekitaldiak

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Udako solstizioari ongiatorria egingo diote aretxabalarrek datorren eguenean, ekainak 23, San Juan bezpera. Dantzak, sua eta tantaia izango dira protagonista, beste behin.

San Juan dantza

Leizarra musika eskolakoek gidatutako *Plaza dantza* ekitaldiarekin hasiko dituzte ospakizunak; 18:00etan izango da, Herriko Plazan. Ondoren, buruhandiak eta erraldoiak kalejiran irtengo dira,

herriko txistulariek lagun eginga. Gaueko ekitaldiak, ostera, hasiko ditu Imuntzo eta Beloki taldeak, 21:00etan; dantzaldiaren lehenengo zatia eskainiko dute.

Sanjuanetako kalejirari 22:20an ekingo diote. Mitarte kaleko 8. atartetik irtengo dira dantzariak eta plazarantz joko dute. Herriko Plazara iritsitakoan sanjuanetako zortzikoa dantzatuko dute, eta herritarrek kantuan egingo dute San Juanen omenez, txistularien doinuei jarraituta. Sua isiotuko dute bukatutakoan,

eta han erreko dituzte askok ahaztu gura dituzten kontu zaharrak.

Sasoi bateko ohiturari eutsita, 1998an jaiotako neska-mutilak tantaia iren bila joango dira goiz partean. Eguerdirako ekarriko dute herrira eta gertatze lanetan hasiko dira orduan. San Juan sua itzaltzean jasoko dute hori.

Irak atartez atarte

San Juan egunean, ostera, iraz estalita agertuko dira herriko atarteak, azken urteotan legez. Ira horiek aurreko egunean jaso-



San Juan sua iaz, plazan. | MIRARI ALTUBE

ko dituzte hainbat herritarrek inguruko basoetan, eta goizaldean banatu. Egurrezko gurutzetxoak ere jarriko dituzte hainbat atartetan, "kalterik sar ez dadin".

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak gaur, Herriko Plazan

7x7 Kultura Kalean ekimenaren barruko azken bi ekitaldiak neska-mutikoei begira antolatutako Kultura Saileko kideek. Gaur, egubakoitza, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek *Amalur* ikuskizuna eskainiko diete 19:00etan, plazan; baserriko bizimoduaren berri emango dute kantuen eta kontuen bidez.

Datorren eguaztenean, hilaren 22an, ostera, Kixka antzerki taldea *Bolaluma* antzezlanarekin etorriko da Santa Kurtz kaleko plazara, 19:00etan.

Beinke-Loramendi dantza ikastaroa ekain eta uztailean

Datorren martitzenean, hilaren 21ean, hasita, Beinke-Loramendi dantza ikastaroa egingo du Loramendi Elkarteak. Hastapen ikastaroa da; hau da, dantzaren nondik norakoak ezagutzen ez dituztenentzako proposa, eta ez dago izenik eman beharrik aurrez, nahikoa da entsegura agertzea.

Bost martitzenetan eman- gongo dituzte eskolak; hona hemen egunak: ekainak 21 eta 28; eta uztailek 5, 12 eta 19. Udaletxe zaharrean elkartuko dira 19:00etatik 20:00etara.

Gipuzkoako bigarrenak!

Eskola kiroleko Gipuzkoako finala jokatu zuen domekan, Zubietan, Leintz eskola kiroleko (LEK) neska taldeak. Usurbil izan zuten aurrez aurre, eta partidu polita jokatu ostean bigarren geratu ziren (2-1). Denboraldi ezin hobea egin dute eta oso pozik itzuli ziren jokalaria, finalera iritsi izana "garaipen handia" izan delako.




LORE MARTINEZ AXPE

Gure Ametsa

Gatzaga

Ezkontza berezia eta ahaztezina!



943 71 49 52 • Leintz Gatzaga • www.gureametsa.es

Eskoriatzako San Pedro jaiak ate joka daude

- ▶ Bezpera eguneko pregoia Arizmendi Ikastolako Almen guneak egingo du
- ▶ San Pedro jaietako egitaraua kontsultatzeko aplikazioa prest da

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA
Eskoriatzako San Pedro jaiak hilaren 28an arratsaldeko 19:00etan botako den txupinarekin eta pregoiarekin hasiko dira. Aurten, Arizmendi Ikastolako Almen gunekoek botako dute txupina eta hortik aurrera festak hartuko du herria uztailearen 1era bitartean. Guztira, 47.410 euroko aurrekontuarekin prestatu dira jaiak, eta, urteroko hitzordu nagusiez gain, berritasunak ere izango dira aurten.

San Pedro egunean, ekainaren 30ean, ohiko goi mailako esku pilota partidua gain (Xala/Begino - Saralegi/Murgiondo), estreinakoz, herriko Aritz Zubia eta

Amets Eraña gaztetxo pilotariak lau terdian jokatu dute egun horretan.

Hainbat berrikuntza jaietan
Egunero izango dira buruhandiak, umeek hala eskatuta, haurren danborrada egunean, hau da, hilaren 30ean izan ezik. Bestalde, Gorosarri plazan egingo diren ikuskizunetan, esaterako, hilaren 29an umorezko bakarriketak eskainiko dituzte Jose Cruz Gurrutxaga eta Gemma Martinezek, eta hurrengo egunean, *Begiradak dantzan* izeneko emanaldiaz gozatu ahal izango da.

Herri bazkariari dagokionez, bestalde, asmoa da Fernando

Eskoriatza plazan egitea. Eta txartelak hilaren 23ra bitartean eskuratu ahal izango dira Inkerun eta Goxotxikin. Menu bera erabiliko da aurten helduendako zein umeendako, nahiz eta umeen menuko prezioa merkeagoa izan.

Jaietarako aplikazioa
Eguaztenean, udaletxean egindako prentsurrekoan, mugikorretara deskargatzeko sortu berria den jaietako aplikazioa ere aurkeztu zuten. Doan eta oso modu errazean jaitzi daiteke Udaleko webgunetik, jaietako egitarauko QR kodetik, edota Android mugikorretan Play Storetik, edo Apple mugikorretan iOSetik, *Eskoriatza*



Unzueta, Zubizarreta eta Regidor aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

jarrita. Aplikazioan, jaietako egitaraua ele bitan dago. Egunez egun eta kategoriak dago antolatuta, eta, ekitaldi bakoitzean klikatuta, horri buruzko xehetasunak agertzen dira. Gainera, herritarrek ekitaldiei buruzko iritzia emateko aukera daukate bertan, eta hori erabiltzearen garrantzia azpimarratu zuen Arantxa Unzueta kultura teknikariak.

Azken momentuko oharrak ere jakinaraziko dituzte aplikazioaren bitartez: eguraldiatik ekintzaren bat tokiz aldatu behar bada edo ordutegian aldatetaren

bat baldin badago, adibidez.

Jaietarako aplikazioa
Jaietan ateratako argazkiak aplikazioaren galerian agertzeko aukera ere izango dute herritarrek, eta bi bidetatik bidali ahal izango dituzte argazkiak: alde batetik, Twitterretik #sp2016-tza idatzita edo Whatsappez argazkiak bidalita.

Informazio gehiago:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Mendi Tourraren lehenengo edizioa ospatu da Eskoriatzan

Gaur izango da azken eguna Ibarraundi museoan dagoen 'Emakumeak Hushe bailaran' argazki erakusketa bisitatzeko

I.B. | ESKORIATZA
Eskoriatzako Mendi Tourraren lehen edizioa da aste honetan, eta antolaketan Eskoriatza Kirol Elkarteak, Eskoriatzako Udalak, Baltistan Fundazioak eta Zineuskadik hartu dute parte. Hala, Bilbao Mendi film festibaleko azken edizioako pelikula onenak proiektatu dira martitzenean eta egunean Zaldibar antzokian.

Pelikulak 2T on Chamlang, Urzulo, Eclipse, A line cross the sky, Piztu, Panaroma eta Jeff Lowe's Metanoia izan dira, eta jende dezente izan da ikus-entzuzkoak ikusten antzokian.

Proiektzioekin batera Ibarraundin *Emakumeak Hushe bailaran* erakusketa izan da ikusgai astelehenetik eguenera bitartean.



Baltistan Fundazioko kideak eta alkatea erakusketa ikusten. | I.B.

'Emakumeak Hushe bailaran'
Emakumeak Hushe bailaran erakusketa, Ibon Azpilikueta argazkilaria lana izan da ikusgai. Emakumeak eta neskatok dira

erakusketaren ardatza, gizartean baztertuen dagoen sektorea, eta beren hezkuntza hobetzeko egiten duten lana islatzen du. Jende dezente izan da erakusketan.

2017rako ondasun higiezin gaineke zergak hizpide plenoan

I.B. | ESKORIATZA
San Pedro jaiak ate joka daude, eta jaietako ekintzetan parte hartzerantz animatzeko eskatuz hasi zuen eguaztenean ekaineko ezohiko bilkura Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak. San Pedro jaietako txupinazora, danborradetara, elizara eta jaien amaiera... joateko animatu zituen udalbatza osatzen duten zinegotziak.

Bestalde, aho batez onartu ziren landu zituzten gai guztiak, eta aipatzekoak izan ziren 2017rako ondasun higiezin gaineke zergak onartzea (OHZ) eta EH Bilduk Mandela Arauei buruz aurkeztutako mozioa onartzea, besteak beste.

Zergen igoerak eta jaitzierak izango dituzte herritarrek, baina igoerak ez direla oso nabarmenak izango adierazi zuen alkateak. Datorren urtean aplikatuko da zerga hau, eta irailetik aurrera jakinaraziko die

diputazioak biztanle bakoitzari datorren urterako aurreikus-tzen dutena.

Inguruko herriekin kontratatuta, denek helburu bera dutela adierazi zuen alkateak: "Igoera, batez beste, %3koa izango da, baina, lehen hamar jasotzen bagenuen, hamar jasotzea izango da helburua."

Mandela Arauei onartuta
Aho batez onartu zen, bestalde, Elizateen abstentzioarekin, presoek duintasuna izatea, isolamenduak eta tratu iraingarriak alboratzea eta presoak gizartetik gertu egon daitezen errespetatzea.

Hala, Nazio Batuek onetsitako presoak tratatzeko oinarritzko arauarekin bat egin zuen Udalak, eta, Nazio Batuen gomendioa jarraituz, uztailearen 18a presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna aintzat hartzea erabaki zuten.

Aingeru Guarda ibilbidea, 23

627 140 961 | furgo@ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

IBILTARIAK
CAMPER EKIPAMENDUAK

www.ibiltariak.com

Frutería MARTIN Frutería

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

San Juan sua 1999. urtean jaiotakoek piztuko dute

San Juan eguna Txorimaloaren bila eta datorren urterako lore-sendorra prestatzeko irteerarekin hasiko da ekainaren 23an, 18:00etan. Ondoren, buruhandiak izango dira plazan, eta 22:00etan, 1999an jaiotako herriko gazteek jasoko dute tantaia. Gero, San Juan sua piztuko da, eta, amaitzeko, txistu doinuaren laguntzarekin, erromeria izango da.



Ur jolas-parkearen parkearen kontzeptua irudikatzen duen marrazkia. | ANTZUOLAKO UDALA

Uztailean ur-parkeaz gozatuko dute herritarrek

Elgoibarko Arrizabal enpresak egingo ditu lanak hilabeteko epean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ur jolas-parkea Sagasti auzoan kokatua egongo da, zelaiaren erdian. Irristatzen ez den zementuzko zorua edukiko du eta oinen segurtasuna ziurtatzeko babesgarriak izango ditu. Programazio

jakin baten arabera, modu autonomoan mugituko diren ur txorrotez beteta egongo da. Erabiltzen den uraren % 90 egunero berririo sartzen da zirkuituan. Inor ez badago ez da martxan jarriko sartzean aktibatu egin beharko

delako nahitaez. Elgoibarko Arrizabal enpresak egingo ditu ur-jolas parkeko lanak. "Prezioan, jolas-kopuruan, ur-kontsumoan eta mantenuaren lan-kargan besteen paretsu agertu da Arrizabal enpresa; baina, segurtasunean,

materialen kalitatean eta mantenu zerbitzuan hobeto aurkeztu da. Gainera, instalazioaren zein piezen garantian, eta baita parkea egiteko epean ere, askogatik eskaintza onena izan da", dio Beñardo Kortabarria alkateak. Hala, herriko jaietarako eginda egongo dela azaldu du: "Herriko jaietarako prest egongo da. Baina, ez dugu erabaki herriko jaietan martxan jartzea edo jaiak bukatu ostean abiatzea".

Auzotarrak pozik

Herriarentzat plusa izango dela azaldu zuten Sagastiko auzotarrarekin Udalak egindako bileran. "Kezka nagusia zarata da. Ura mugimenduan jartzeko moto-bonbak behar dira-eta. Neuk, pertsonalki, uste dut zarata handiagoa umeek egin dezaketela, baina hori ere ikusteko dago". Oraindik finkatu ez den ordutegia izango duela eta astean ordubetez ohiko mantenua egingo zaiola gaineratu du alkateak. Belardi osoa metro bateko hesi batek inguratuko du, zakurrik sar ez dadin.

"Esan ere, moto-bonben instalazioak behartzen gaituela argindar hartune berri bat egitera, potentziagatik. Bestetik, ura kolektorerara sartzera behartu gaituzte, eta hortaz kanalizazio berri bat egin beharko da. Ondorioz, obra uste zena baino garestiagoa izango da. Zorionez, Goizperrek 25.000 euroko ekarpena egin du ur-parkerako. Horri esker aurrekontuetan ez dugu zulorik egingo", argitu du alkateak.



Eragileetako hiru batzartuta. | M.A.

Gaztetxoan artean euskara sustatzeko ekimena abian

M.A. | ANTZUOLA

Herriko gaztetxoan artean euskararen erabilera behera egin du eta kezkatuta daude Udala, Uema eta Emun. Hirurek elkarlanean herriko eragileekin batera abiatu dute horri buelta emateko proiektua.

Hala, eguazten arratsaldean, eragile ezberdinekin batu ziren bakoitzak euskararen gainean egin duen diagnostikoa konpartitzeko.

Uemako teknikari Goizane Aranek dio Antzuola euskararen arnagunea dela; baina, egun, arnaguneek ere beheranzko joera hartu dute. "Ikusten den beheranzko joera hori aldatzea da helburua. Horretarako, helduekin lan egingo dugu, gero, gaztetxoengan eragiteko. Izan ere, aukeratutako eragileak dira bereziki gazteekin lan egiten dutenak: eskola, udalekuak, pilota elkarteak, futbol taldeak, gimnasia erritmikoko taldeak...". Proiektu pilotu hau ondoren Uemako herrietara zabaltzeko asmoa dute.

Zehazki, 4 eta 12 urte arteko gaztetxoan artean abian dute euskararen erabilera jaitsi dela. "Identifikatutako zortzi eragileekin elkarrizketak egin ditugu proiektuaren helburuak zehazteko eta azalduko kezka konpartitzeko. Arnaguneak indartzea garrantzitsua da beste herri batzuetako eragileengan, gero, eragiteko", azaldu du Emuneko kide Eguzkiñe Plazaolak.



MIKEL KEREXETA

Denboraldi bukaera borobila

120 lagun batu zen zapatuan AKE eguna ospatzeko. "Dena oso ondo atera zen; bost taldeetako jokalariek, entrenatzaileak, batzordekideak, alkatea eta urtean zehar lagundu digutenak batu ginen. Datorren urtera begira, formatua aldatu eta herri osoari irekitako ekintza bat antolatzea pentsatzen ari gara", azaldu du Mikel Kerexeta lehendakariak.



MAIDER ARREGI

Gimnasten trebezia ikusgai

Eguazten arratsaldean, Ariznoa gimnasia erritmikoko ikasleek urtean zehar egindako lana erakutsi zuten. 53 gaztetxok, aroekin, mazoekin, baloiarekin eta zintarekin duten trebezia aparta erakutsi zuten Antzuolako pilotalekuan. 5 eta 18 urte arteko gimnastek erakustaldi aparta eskaini zuten guraso eta lagunengandik.

Igor Meltxorrek bere bi liburuk aurkeztuko ditu martitzenean Oларanen

Caso Bidegi eta *Gestión a la vasca* liburuen aurkezpena egingo da. Bertan izango da liburuen egile Igor Meltxor (idazlea eta analista politikoa). Ekainaren 21ean izango da liburuen gaineko solasaldia, 18:30ean, Oларan etxean. Besteak beste, ustelkeriaz, politikarien eta enpresa eraikitzaileen arteko erlazioaz jardun- du Meltxor idazleak.

Aurtengo sua gaez piztuko dute San Juan bezpera egunean

Nobedadeekin dator ekainaren 23ko egitaraua. Hala, sua 22:00etan piztuko dute, iluntzen duenean. 20:00etan, arbolak jasoko dute eta Oларanen dantza saioa izango da Herriko Plazan. Aurten, mahaia eta jarlekuak egongo dira plazan bertan gura duenak afaltzeko (jana eta edateko, norberaren kontu).

Zahartzaro aktiboaz jardungo dute eguaztenean Oларanen

Landatxopek antolatua, *Zahartzaro aktiboa* izeneko solasaldia izango da. Ekainaren 22an, eguaztena, arratsaldeko seietan hasiko da hitzaldia, Oларan etxean. Hitzaldia Pili Arin elgetarrak gidatuko du. Besteak beste, zahartzaroan dandenei eta egongo direnei aktibo izateko edo mantentzeko aholkuak emango dizkie.

OHARRAK

TRIKITIA

Trikiti ikasleen emanaldia hila- ren 21ean, 19:00etan Torresoroan.

HITZALDIA

Independentziaren bidea jorratzen solasaldia eskainiko du Txutxi Ariznabarretak ekainaren 20an, Oларanen, 19:00etan.

MUSIKA EMANALDIA

Ekainaren 20an, Bergarako Musika eskolako ikasleen

kontzertua 18:30ean, Torresoroan.

UZARRAGAKO IGOERA

Bihar, Uzarragako igoera, Peña Aiastuiren eskutik 12:00etan.

DEIA

Bihar, Bergarako Irala kalean EH Bilduk kanpaina ekitaldia egingo du, 13:00etan. Antzuolatik, joateko dei egin dute.

Gureia auzoan egin behar dituzten lanen proiektu teknikoa onartu dute

Aldundiak bi hilabeteko epea izango du Udalak onartutakoari behin betiko onarpena emateko

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Atzo egindako ezohiko bilkuran aho batez onartu zuten Gureia auzoan plan foralaren barruan egin behar duten lanen proiektu teknikoa. Udalak LKSri esleitu zion proiektua eta obra zuzendaritza egitea, 15.064,50 eurotan. Orain, Foru Aldundira aurkeztu behar dute proiektua; Aldundiak onartutakoan, lizitazioa aterako dituzte lanak.

Gureian egingo dituzten lanak izango dira: "Euri urak bereizteko saneamendu sarea sortzea; elektrizitatea, kale argiteria eta telefono kanalizazioak eta zoladura lanak", azaldu du Oier Ezkerra teknikariak. Auzotarren kezka ere jaso ditu proiektuak, areken inguruko kezka: "Bideak konpontzen direnean, badirudi autoak azkar ibiltzen direla; kezka horren aurrean, erabaki dugu gaur egun dauden hiru arekak konpontzea, eta laugarren bat gehituko da", dio Lierni Altuna alkateak.

Ehiza barrutia berritu

Ezohiko bilkurak izan zuen beste puntu bat ehiza barrutiaren ustiapenaren alokairuaren baldintzak onartzea izan zen. Aho batez onartu zituzten baldintzak. Aramaioko lur guztiak sartuko dira ehiza barrutian, eurenak ez sartzea eskatu duten jabeenak izan ezik. Aldundira bidali dute onartutakoa, eta ondoren, ustiapenaren alokairuaren esleipena egin beharko dute; lehenbailehen egitea espero du alkateak.



Gureia auzoa, airetik ikusita. | OIER EZKERRA

Desjabetzeen aurrean, Udalaren oharra

Untzila auzoan AHTko lanetan Adifek egin behar dituen desjabetzeen gainean, Udalak azaldu du aipatutako desjabetzeak "berandu" datozela, eta gainera, "larritasunaren izenean", Adifek, hasieran, ez ziela ez proiektua ezta prozedura ere azaldu. Hori "onartezina" dela dio Udalak. Gainera, Udalak eskatu dio Adifi behingoz amai ditzala egiteke dituen lanak eta herritarren segurtasuna berma dezala.



Leire Esparzak jaso du Erain Debagoienaren otzara

Aramaioko Erain Debagoienak zozkatutako otzararen zenbaki sariduna 688 izan da. Elorrioko Leire Esparza izan da txartelaren jabea eta saria jaso duena -Ana Martiarenak saldutakoa-. Hainbat produktuekin osatutako otzara jaso du Esparzak: gazta, ardoa, olio eta kontserbak, besteak beste.

Euskara ikasteko eta garraiorako laguntzak

Aramaioko Udalak bi deialdi egin ditu eta beste bat Arabako Foru Aldundiak egin du

A.E. | ARAMAIO

Aramaioko Udalak euskara ikasteko diru laguntza oinarriak argitaratu ditu. 2016ko deialdian 1.500 euro bideratu ditu Udalak programa horretara. Onuradunak Aramaion erroldatuta egon behar du, eta matrikula osoaren %80 lagunduko zaio diruz, baldin eta ikasturtea gainditu badu eta asistentzia %80koa edo gehiagokoa dela ziurtatzen badu. Eskaera egiteko epea irailaren 10a artekoa izango da. Udalean egin beharko da.

Eskola garraioa

Eskola garraiorako 3.000 euroko diru-partida du Udalak 2016rako. Eskatzaileak uztailearen 26a baino lehen egin beharko du eskaera Udalean. Aramaion erroldatuta egon, eta DBH, Batxilergoa, erdi mailako eta goi mailako ikasketak, eta unibertsitate ikasketak egiten dihardutenei zuzenduta daude laguntzak. Diputazioak ere aurkeztu ditu garraiorako diru laguntzak. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30a da.

Alex Lorenzok jaso du Papargorriren azken saria

Maiatzean zehar otzarak zozkatu dituzte; herriko produktuekin osatuta otzarak izan dira

A.E. | ARAMAIO

Maiatzeko azkeneko egubakoitzeko zenbaki sarituaren jabea Alex Lorenzo izan da. Modu honetan, otzara guztiak banatu dituzte. Sarituak izan dira: Beñat Burgi, Amaia Fernandez, Miren Errasti eta Alex Lorenzo.



Alex Lorenzo eta Maite. | B.M.

Elairen emanaldia

Elai taldeak emanaldia eskainiko du Arrasaten, bihar, zapatua, 20:30ean.

San Juan jaiak ospatuko dituzte Azkoaga auzoan datorren asteko egunean eta barikuan

Ekainaren 23a, San Juan bezpera, datorren egunean izango da. Azkoaga auzoan 18:00etan hasita hainbat ekintza egingo dituzte. Ohikoa den moduan, sua egingo dute gauean, urteko gauza txarrak erre eta berriei ongietorria emateko. Ondoren, su artifizialak egongo dira. San Juan egunean, barikua, meza esango dute 12:00etan, eta ondoren trikitilariak eta pintxo-potea egongo dira.

Libertad Condicion talde gazteak punk doinuak ekarriko ditu Sastiña aurrealdera gaur iluntzean

Arrasateko eta Aramaioko gazteek osatzen duten Libertad Condicion taldearen txanda izango da gaur *Kontzertuak Sastiñan* musika jaialdian. Musikari gazteek punk doinuak joko dituzte Sastiña aurrealdean, 20:00etan hasita. Jaialdiaren hirugarren emanaldia izango da gaurkoa. Hurrengo barikuan, ekainaren 24a, amaituko da kontzertu zikloa: Viento Con Alma taldeak joko du Sastiñan, 19:30ean.

Zuiako Kuadrillako adineko pertsonen topaketa egingo dute uztailearen 8an Elorrioren, XIX. aldiz

Uztailearen 8an, barikua, adineko pertsonen topaketa egingo dute Elorrioren. Autobusa Aramaiotik irtengo da 10:30ean. Uztailearen 27a baino lehen eman behar da izena; horretarako, 26 euro ordaindu beharko dira Kutxabankeko 2095 3224 21 1091573864 zenbakian, eta ordainagiria aurkeztu beharko da Udaletxean edo Zuiako kuadrillan. Bazkaria Apatamonasterion izango da.

Bizikleta lasterketarekin hasiko dira, gaur, Beheko Kaleko Jaiak

San Juan bezperarako, berriz, Amaia DJ eta suziriak iragarri ditu guraso elkarteak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Torrealdeko bizilagunek hirugarren urtez egingo dituzte Beheko Kaleko Jaiak, barikuan. 17:30ean jaurtiko dute etxafuegoa, eta, aurreko urteetan moduan, neska-mutikoendako bizikleta lasterketa —aurten Mendi Criterium kategoriarekin—, jokoak eta buruhandiak iragarri dituzte.

Musikak hartuko du lekukoa 18:00etan; izan ere, afaltzeko ordu-ra arte Amaia DJk girotuko ditu Beheko Kaleko Jaiak.



Neska-mutikoendako jolasak, iaz, Beheko Kaleko Jaietan. | L.Z.

Afalosterako karaokea aurten
Afaltzeko tartea hartuko dute 21:30ean Torrealdean. 50 bat lagun espero dituzte afaltzeko. Afalosterako, berriz, karaokea antolatu du aurten lehen aldiz jai batzordeak. Amaia DJk gidatuko du karaokea, eta, gehienbat, gazte-txoei zuzendua izango da. Gauar-gi taldearen erromeriarekin eta

Mojito Gauarekin luzatuko dute festa Torrealdean. Sorpresak ere iragarri dituzte jai batzordetik.

San Juan bezpera

Eguena San Juan bezpera da, eta guraso elkartetik jakinarazi dute

ogitartekoak banatuko dituztela, 19:30ean, bolatokian. Amaia DJren saioa ere antolatu dute, 20:00etatik 22:00etara. Ondoren, piztuko dute sua, eta suziriak botako dituzte guraso elkarteak eta Bolatoki tabernak elkarlanean.



FRONTENIS TXAPELKETAKO ANTOLATZAILERAK

Frontenis txapelketak baditu irabazleak

Aste bukaeran eman zioten amaiera 2016ko frontenis txapelketari. Emakumeen txapelketa zapatuan erabaki zuten. Finalean, Idoia Elkoro eta Iratxe Bravo nagusitu ziren Raket Zamaioari eta Beatriz Zabalarari 21-25 irabazita. Gizonezkoek domekan jokatu zuten finala. Eneko Maguregi eta Andoni Elorza nagusitu ziren Josu Mañarikuari eta Beñat Arabaolazari 21-25 irabazita. Bederatzi bikote lehiatu dira guztira.

LEINTZ GATZAGA

Uztaileko lau asteetan egongo dira udalekuak

Zenbait ekitaldiz eta irteeraz osatuta egongo dira

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo dira eta kopuru ezberdinetako taldeak osatu dituzte —talde handiena 16 haurrez osatutakoa izango da—.

Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00ra izango dira, baina hauek ere ekintzen arabera aldatu egin daitezke.

Astean behin, behintzat, irteera bat egingo dute eta kanpoan lo egiteko aukera ere izango dute. Kirola sustatzeko, triatlói modu-

ko bat egingo dute, eta, horrez gain, haur zaharrenek monitore lanak egingo dituzte txikienekin.

Haurren gonbidapenak

Gaur, 18:00etan, umeek ludotekan egindako zaku aromatikoak banatuko dituzte herrian zehar, kalejira batean. Honen bitartez, hainbat gonbidapen luzatuko dituzte: San Juan sura gerturatzeko, San Martin eguneko doke txapelketan parte hartzeko —berreskuratzeko asmotan dabilta— eta Lakuan egingo den protestara joateko.

LEINTZ GATZAGA

Deba ibaiaren soinu mapen erakusketa ikusgai udaletxean

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
Datorren martitzenera arte egongo da ikusgai Ibar Ohar izeneko erakusketa ibiltaria Ibaia bertan jaiotzen denez, hemen hasi dute erakusketa, eta, ondoren, herriz herri joango da, ibaiaren ibilbidea eginez. Gipuzkoako urak soinu bidez erregistratzeko egitasmo hau Gipuzkoako Ur Kontsultazioak garatu du, Cristina Enea Fundazioarekin eta AudioLab-ekin elkarlanean.

Gipuzkoako ibaien soinuaren erregistroa eta soinu mapa Deba ibaitik abiatu da. Leintz Gatzagan sortu eta Deban itsasoratu

KZgunera, osasun zentrorra eta Herri Eskolara helduko da zuntz optikoa

L.Z. | ELGETA

Zuntz optikoa heldu da Elgetara. Egunotan kable bobina handiak ikusi ditugu herrian eta jakin-mina piztu du horrek herritarren artean.

Eusko Jaurlaritzak lehiaketa publikoa deitu zuen helburu zehatz batekin: abiadura azkarreko konektibitatea garatzea KZgunetan, osasun zentrotan eta ikastetxe publikoetan. Telefonikak irabazi du lehiaketa hori, eta beharginak

lan horretan dihardute egunotan Elgetan.

Ekimen honekin hiru eraikin horietara mugatuko da zuntz optikoaren hedapena. Ikusteko dago etorkizunean zer nolako erabakiak hartzen diren. Zalan-tza barik abiadura azkarreko konektibitatearen hedapenak aukera berriak eskaini ditzake zerbitzua herriko gainerako eraikinetara zabaltzeko aukera egongo balitz. Oraingoz, ordea, ez da halakorik aurreikusten.

Eskolako neska-mutikoen gaur, barikua, egingo dute ikasturte amaierako ikuskizuna Espaloian

Elgetako Herri Eskolan egunean, hilak 23, emango diote amaiera 2015-2016 ikasturteari. Urtero legez, bazkari berezia egingo dute guztiek batera eskolan, eta 14:00etan hartuko dituzte udako oporrak. Aurretik, ikasturte amaierako ikuskizuna egingo dute Espaloia kafe antzokian. Senitartekoak eta herritarrak gonbidatuta daude gaur, 15:00etan, hasiko den emanaldi berezira.

Hilaren 27an zabalduko du Udalak udaleku zerbitzua eta gaur da izena emateko azken eguna

2005etik 2013ra bitartean jaiotako neska-mutikoei dago zuzenduta Udalak ekainaren 27tik uztailearen 22ra eskainiko duen udaleku zerbitzua. Prezioak dira: astebete 40 euro, bi aste 60 euro, hiru aste 75 euro eta lau aste 90 euro. Bigarren seme-alabarengatik %30eko hobaria dago. Errentaren araberrako hobariak ere aurreikusita daude. Informazio gehiago udaletxean.

OHARRAK

CAMDEN FESTIVAL

Ikasturte amaierako saioa egingo du Camden Town akademiak domekan, 11:30ean, Espaloian.

GAZTELEKU ZERBITZUA

Erabiltzaileendako ginkana jokoak, domekan, 11:30ean, herriko plazatik abiatuta.

ERRETIRATUEN IRTEERA

Martitzenera, ekainak 21, egun

osoko irteera egingo dute erretiratuek Errioxara.

GARBIGUNE IBILTARIA

Salbador kaleko plazan izango da, eguaztenean, hilak 22, 10:00etatik 21:00etara.

ARTE IKASTAROKAK UDAN

Berraondokoan dagoen Rmateria tailerrean. Argibideak: 660 58 49 57 edo info@rmateria.com.

LEINTZ GATZAGA

Puntaik Punta jaialdiaren balorazio positiboa egin dute

Egubakoitzean eta zapatu goizean gura beste jende ez agertu arren, zapatu arratsaldetik aurrera parte-hartze handia egon zela dio Dorleta Elkoro-barrutiak. "Balorazio kualitatiboa ona da; kuantitatiboa, berriz, egunaren eta ekintzen araberrakoa", onartu du.

Izan ere, ekintzetan parte hartu dutenek "izugarri" disfrutatu dutela nabarmendu du. "Hurbildu den jendeak zorion mezuak eman dizkigu antolakuntzan ibili garenoi", azpimarratu du.

Elkorobarrutiak berak zenbait ekintzetan parte hartu zuen; gustura ibili zela dio.

ARRASATEKO SAN JUAN BEZPERA ZUZENEAN

GOIENA.EUS
ATARIAN
STREAMING
BIDEZ



GOIENA.EUS | STREAMING BIDEZ

EKAINA 23, 22:00

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK 2016

GOIENA TELEBISTA | BERRIAK | GIPUZKOAKO HAUTAGAIEKIN ELKARRIZKETAK

LARRAITZ ZEBERIOK AURKEZTUTA

Ekainak 21, martitzena

Eneko Andueza | PSE-EE

Ekainak 22, eguaztena

Josetxo Arrieta | Elkarrekin Batera

Ekainak 23, eguena

Joseba Agirretxea | EAJ

Ekainak 24, egubakoitza

Marian Beitialarrangoitia | EH Bildu



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

TXIRRINDULARITZA

Julen Irizar | Ampo taldeko ziklista

"Helmuga lehenengo zeharkatzean sentitzen dena azaltzea ez da erraza"

- ▶ Castelloko Itzuliko lehen etapa irabazi du
- ▶ Amateur mailako lehen garaipena izan da

XABIER URZELAI | BERGARA

Lokatzako harrobiak emandako ziklista Julen Irizarrek (Bergara, 1995) tarte batean ez du ahaztuko Castelloko Onda herria, ezta herri horretako Jaen izena daraman kale aldapsua ere. Ez da kale luzea, ezta Ondako politena ere. Turistek Almudingo plaza bisitatu ostean Ondako gaztelura igotzeko erabiltzen dute, eta, inoiz Ampoko ziklista Mediterraneoko herri horretara itzultzen bada, seguru ez duela bertatik pasatzeko aukera galduko. "hemen lortu nuen afizionatu mailako lehen garaipena" pentsatuta.

Castelloko itzuliko lehenengo etapa irabaztearekin batera liderraren mailota ere jantzi ahal izan duzu. Esperientzia ederra.

Bai, zalantza barik. Gainera, hasierako asmoa ez zen ni lasterketan egotea, azterketak gainera ditudalako eta ikastea tokatzen delako -Ingurumen Ingeniaritza ikasten dabil-. Baina taldean hainbat lagun gaixorik zeuden, eta azken orduan joatea erabaki genuen.

Eta, bazenuen etaparen bat irabazteko esperantzarik?

Azken lasterketetan txukun nabilen, banekien sasoi puntu onean nengoela, eta taldean ere bazuten horren berri. Duela bi aste Nafarroako Itzulian ondo ibili nintzen, aurreko hamarren barruan, eta joan den astean Euskal Herriko Txapelketan bigarren egin nuen.

Baina ez, ez dugu esango Castelloko lehenengo etapan faboritoen artean nengoenik.

Zelako etapa izan zen?

Rutometroa ikusita ez zirudien lasterketa gogorra izango zenik, 122 kilometro zituelako, eta aparteko mendate gogorrik ez. Baina hasieratik oso lasterketa bizia izan zen, eta bero handia egin zuen. Ihesaldi saiakera asko egon ziren, eta azken kilometroetara iristen genbiltzala taldetik bi txirrindularik aurrera egin genuen. Aurretik ziklista gehiago genituen, lehenago beste ihesaldi bat egon zelako, eta, jendea harrapatzen ibili eta gero, hiru lagun geratu ginen. Bada, azken metroak aldapa gora ziren, eta 400 metrora-edo erasoia jota metro batzuetako abantaila hartu ahal izan nuen.

Eta, zer sentitzen da helmuga lehenengo postuan zeharkatzean?

Ez da azaltzen erraza, poztasun handia, jakinda, gainera, gurasoak bertan zeudela. Amateur mailako lehen garaipena izan da, eta berezia da. Gainera, taldean lan ona egiten dabilen arren,

"Ondo nabil, baina garaipenak konfiantza emango dit, zalantza barik"

emaitzak ez ditugu gure aldeko izan, eta ondo etorri zaigu.

Lasterketako bideoan amorrutik oihu bat entzuten da...

[Barre] Bai, amorruta ere sentitzen da. Iaz ez nintzen batere ondo ibili. Debabarrenan egin nuen kategorian honetako lehen urtea, eta iaz Ampon ez zidaten apartekorik eskatu, baina ez nintzen ondo ibili. Aurten pauso bat aurrera eman behar nuela esan zidaten, sentsazio onarekin nabilen, baina garaipen bat errematatu ezinka. Eta, iritsi da.

Zelako taldea da Ampo?

Lagun talde bat gara. Ez da talde handia, baina gauzak seriozitate handiz egiten dituzte. Eta txirrindulariok oso ondo moldatzen gara. Lasterketa aurretik kontzentratuta egotea garrantzitsua da, dena ezin da izan barre eta algara, baina giro ona izateak presioa kentzen digu, eta lagun-garria da.

Garaipen honek konfiantza emango dizu.

Bai, seguru. Akaso, orain arte hori falta izan zait, eta ziklista batendako oinarrikoa da. Zapatuan Seguran dugu lasterketa, eta domekan Mungian, ea zelan erantzuten duen gorputzak, Castellon lehenengo etapa irabazi arren ondoren ezin izan niolako mailari eutsi. Laster, gainera, oporrak hartuko ditugu, eta denbora luzeagoa eskaini ahal izango diot bizikletari.



Irizar podiumean, liderraren mailotarekin. | VOLTACASTELLO.COM



Ondako gaztelura igotzeko maldan azkarrena izan zen Bergarakoa. | VOLTACASTELLO.COM

Gipuzkoar onena, Eskibel

Iker Eskibel txirrindulari eskoriatzarra Gipuzkoako txapelkun izan zen joan den asteburuan, elite mailan Ataungo 52. San Martin Proban (02:55:45). Euskaldun txapelketaren zazpigarren proban zen, eta sailkapen orokorrean zortzigarren postua lortu zuen Infiesport taldeko ziklistak: "Denboraldia ez nuen oso ondo hasi lesionatuta nengoelako, baina gaur egun ondo ari naiz. Hemendik aurrerako bidea ere hala jarraitzea espero dut".

Eroskikoak podiumean

Kadete mailako ziklistek asteburu bete izan dute. Zapatuan Bergaran egin zuten Gipuzkoako banakako erlojupekoan Aitor Larrañagak jantzi zuen txapela. (08.17) Hirugarrena, berriz, Antzuolako Iñigo Aranburu izan zen, Eroski-Portabicy.com taldekoa. Domekan, osteran, Oñatin egin zuten 31. Olakuako proban Eroski-Portabicy.com taldeko Andoni Azkarate arrasatearra podiumera igo zen, eta mendiko saria Iñigo Aranburuk eraman zuen.

TXIRRINDULARITZA

Erlojuaren kontra Murgiondo izan zen Aizarnazabalen azkarrena

X.U. | OÑATI

Joan den zapatuan Gipuzkoako errepideko txapelketan bigarren sailkatu izanaren arantza martitzenean atera ahal izan zuen Ulma taldeko ziklista oñatiarrak, Aizarnazabalen egindako erlojupekoan -gazte mailan- irabazita (0.19.55). Mikel Arregi taldekide antzuolarra hirugarren sailkatu zen. Seigarren, berriz, talde bereko Ekaitz Txintxurreta izan zen.

Urtea borobiltzen

Aurtengo denboraldia geroago eta borobilagoa izan dadin pauso sendoak ematen dabil Xabier Murgiondo oñatiarra. Gazte

mailako ziklistak Deban eta Uzarragako Igoeran -Antzuola- jaso ditu besoak, eta beste hainbat lasterketatan aurrean ibili da; etxean antolatutako Gipuzkoako klasikoan, esaterako.

Garaipenaren atarian gertatzen diren sorrarazten duen amorruta ere hainbatetan bizi ahal izan du; esaterako, Arantzazuko Igoeran eta Urretxun. Baina, martitzenean pauso bat aurrera eman eta Ulmako mutilak erlojuaren kontra ere ondo moldatzen dela erakutsi zuen. Ia 15 kilometroko zirkuituan segundo batengatik irabazi zion bigarren sailkatu zen Mikel Azparreni.


TXIRRINDULARITZA

Eguraldiak ez du lagunduko Quebrantahuesos proban

X.U. | ARRASATE

Geroago eta gehiago dira zikloturistek eskura dituzten bizikleta martxak, baina 'Quebranta', oraindik ere, 'Quebranta' da. Askori ez zaie Sabiñanigo aldean ezer galduta, martxa horrek duen lehiakortasun neurrigabeagatik, azken urteotan izan duen bilakaeragatik, batzen den jende kopuruagatik, edo dena delakoagatik.

Beste askorendako, ordea, motibatuta egoteko, kilometroak pilotzeko edo norbere buruaren kontrako borrokan jarraitzeko aitzakia ezin hobea da. Eta asko dira azken talde horretan daudenak; izan ere, antolatzaileek azken



Kepa Otxoa, podiumean. | IKER LASPIUR


urteotan parte-hartze zerrendak partekatzen ez badituzte ere, 150-180 debagoiendar inguru batu izan dira urtero irteera puntuan.

Bada, eguraldi iragarpenen arabera, bihar, zapatua, zikloturistak busti egingo dira, batez ere, mugaz bestalde nahiko giro petrala izango delako, euria eta hotza. Beste askok Vitoriana klubak antolatzen duen martxa aukeratu dute, bihar, Gasteizen hasita (203 km).

Kepa Otxoa, podiumera

Bestalde, joan den asteburuan egin zuten Otsagabian hasita Iratixtreme martxan Kepa Otxoa arrasatearra podiumera igo zen -bigarren- Larrauko erlojupekoan egindako denbora onari esker (0.42.43). Emakumezkoetan, berriz, Arrasaten lan egiten duen Amaia Urkidi izan zen onena (0.48.25).

ATLETISMOA



Orain arteko Malen Ruiz de Azuaren saltorik onena, Burgosen (4,22); Espainiako historiako bosgarren onena. | J.PEREZ

Ruiz de Azuaren saltoari esker igo da Bidasoa mailaz

Arrasatekoak marka ondu du asteburuan Burgosen; sanjuanetan dute Espainiako Txapelketa

XABIER URZELAI | ARRASATE

Gaiean daude aire libreko denboraldiko hitzordurik garrantzitsuenak, eta Arrasateko atletak geroago eta finago daude –sanjuanetan izango dituzte Espainiako Txapelketa. Malen Ruiz de Azua da adibideetako bat, joan den asteburuan Burgosen 4,22 metroko saltoa egin zuen –marka pertsonala– eta emaitza hori erabakigaria

ria izan zen haren talde Irungo Bidasoa Ohorezko mailara igo dadin.

Txapelketako protagonista bilakatu zen arrasatearra. 4,27ko markarekin ahalegindu zen, eta listoa 4,22 metrotan gainditzea lortu zuen, estatuko urteko markarik onena ezarrita, eta Espainiako marken artean historiako bosgarren onena –aire librean–.

Klubn arteko txapelketan

Istar Dapena eta Iñigo Urribarren, berriz, Castellon egon ziren Klubn Arteko Txapelketan; Dapena hirugarren sailkatu zen (5 metro) pertika saltoan, eta Maialen Axpe bigarren izan zen (4 metro); salto hirukoitzean, berriz, Iñigo Urribarren bigarren izan zen. Madrilen, berriz, 100 metrotan Ibai Fernandez zazpigarren izan zen (11.28).

Arrasateko Udalarekin haserre

Aste barruan, baina, Arrasateko atletak haserre erakutsi dute, Jonathan Perez entrenatzailearen ahotik. Izan ere, egunotako euri zaparradek eragin zuzena izan dute Espainiako atletismo txapelketa prestatzen dabiltzan atletengan. Hilabeteak dira pertika saltoko koltxoneta estaltzeko toldoa eskatzen dabiltzala, eta salatu dute inork ez diela kasurik egiten: "Herriko kirolariak saritzeko ekitaldiek ez dute ezertarako balio ondoren kirolari horiei ezertan ere laguntzen ez bazaie", adierazi du. "Erretratuan azaltzen diren horiek Espainiako eta Euskal Herriko pertika jauzilari onenak dira, eta begiratu baino ez dago ze baldintzatan entrenatzen dabiltzan. Urrian eskatu genuen koltxoneta estaltzeko toldoa, eta urritik ez dugu inongo erantzunik jaso. Eta hau adibide bat baino ez da".



Ruiz de Azua eta Dapena. | J.PEREZ

UDALAREN ERANTZUNA

Arrasateko atletismo taldekoen haserrearen aurrean, GOIENA Arrasateko Udaleko kirol zinegotzi Ander Garairekin jarri da harremanetan: "Atletismo taldeko ordezkariak arrazoi dute, eta Udaletik gure erantzukizuna onartzen dugu, aspaldi eskatu zutelako koltxoneta estaltzeko toldoa eta ez zaielako erantzunik eman. Egia da toldo horretarako aurrekontua aspaldi eskatu geniola enpresa bati, ez koltxoneta hori estaltzeko bakarrik, Iturripen ere beste toldo bat behar dugulako. Enpresa horren aurrekontuaren zain gaude, baina denbora larregi daramagu zain, eta beste enpresa batengana jo behar genuen lehenago aurrekontu eske", adierazi du Garaik. "Ni beste aldean egondakoa naiz [Mondrako presidente izandakoa da], badakit zer den halako egoerak bizitzea, baina bagabiltza arazoei erantzuna emateko lanean". Atletismoko ordezkariekin harremanetan jarriko direla adierazi dute Udaletik.

EH BILDUREN OHARRA

"Arrasateko EH Bilduk Kirola Kalera Eguna eta Kirol Sariak ekimenen balorazio positiboa egiten du. Garrantzitsua da kirolariak merezitako errekonozimendua ematea, baina are garrantzitsuagoa da herriko kirol eragileei kudeaketa erraztea eta instalazioetan dituzten arazoak konpontzea. Izan ere, kirolaren arloan norabide falta eta kudeaketa arazoa dugu Arrasaten. Kudeaketari dagokionez, duela hilabete EH Bilduk taula bat aurkeztu zuen Udaleko Kirol batzordean, herriko zenbait kirolari eta kirol elkarteren eskariekin osatua. Bertan, inbertsio eta mantentze aldetik egin beharreko lanak daude, premiazkoak. Besteak beste, atletismoko koltxonetak, itoginak edo aldageletako dutxak. Taula horri jarraipen estua egitea da EH Bilduren konpromisoa. Norabidea zehazteko, gure apustua Udalak bultzatu behar duen kirol eredu argi eta garbi definitzea da, eta kirolaren plan estrategikoa egitea". [Oharra, osorik, www.goiena.eus atarian]

MENDIKO LASTERKETA

Bihar, Gabez Takarraranen ibilbideko markaketa indartu egingo dute antolatzaileek

X.U. | ESKORIATZA

Zapatuan egingo dute Gabez Takarraran lasterketako seigarren edizioa (23:00), eta eguraldia lagun izango ez badute ere, antolatzaileek 100 lagun inguru espero dituzte irteera puntuan: "Iragarpenak ez dira aste barruan emandakoak bezain txarrak, eta euria egiten badu, ez da asko izango. Gainera, aste barruan zirkuitua erreparatzen

ibili gara eta zorua gogor zegoen. Zapaturako lokatz apur bat sor daiteke, baina ez askorik", adierazi du Iñaki Uribe-etxeberriak.

Markaketa indartuta

Lasterketak izango dituen 20 kilometroak inoiz baino hobeto egongo dira adierazita: "Iaz erabilitako bonbillak gehitu ditugu, eta zinta fluoreszenteak ere jarriko ditugu".



2014ko helmugan, Nerea Amilibia helmuga gurutzatzen. | IMANOL SORIANO

SASKIBALOA

Bederatzigarren urtez Bergarako San Martin plaza kantxa bilakatuko da asteburuan

X.U. | BERGARA

Gaur bertan hasiko dute saskibaloia jaia Bergaran, plazan egingo duten herriko afariarekin. Jokalarien lana, baina, zapatu goizetik egongo da ikusgai, San Martin plazan bertan jarriko dituzte eta hainbat saski. Denera zazpi kategoria izango dira, benjaminetatik seniorretara (azken honetan bi maila: arrunta eta elite maila). Eta

guztietan emakumezkoen eta gizonezkoen txapelketa bana izango da.

Bihar goizez eta arratsaldez izango dira partiduak, 10:00etan hasita. Egun horretan, elite, senior, junior, kadete eta infantil mailetako norgehiagokak jokatu dira. Domekan, berriz, 10:00etan hasi eta 14:00 inguruan bukatuko da –alebin eta benjamin mailetakoak–.



Jokalaria bat saskira begira, jaurtiketa egiteko gertu. | IMANOL SORIANO

TRIATLOIAW

Gaztetxoenei zuzendutako proba egingo dute zapatuan Bergaran, Agorrosinen

X.U. | BERGARA

Antxintxika taldeak antolatuta, Triatloi Txikiaren bigarren edizioa egingo dute bihar, zapatua, Bergaran. Hala, proba guztiak Agorrosingo gunean edo inguruetan egingo dituzte: igeriketa igerilekuan, korrika futbol zelaiko pistan eta bizikleta ibilbidea Bergarako kaleetan. Eskola Kiroleko gaztetxoekin egingo dute hitzordua, eta adinaren arabera zailtasun ezberdineko zirkuitua prestatu dute: "Gaztetxoenen artean kirolean

parte-hartzea bultzatzea eta triatloia ezagutaraztea dira helburu nagusiak".

09:00etan, kiroldegian

Atleta gaztetxoek 09:00etan Agorrosin egon beharko dute, eta ordu erdi izango dute kirol material guztia boxetan ondo kokatzeko. Ondoren, antolatzaileen azalpenak jasoko dituzte, eta benjaminen 10:30ean hasiko dute lasterketa, 10:45ean irten-go dira alebinak eta 11:00etan infantilak.

KULTURA



Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Aitor Garitano, Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin, entsegu baten, joan zen astean. | JOSEAN ARENAZA

Kilometroak 2016k obra sinfonikoa ere badauka

Domekan estreinatuko da Bergarako frontoian

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Domekan estreinatuko da *Hizkuntza erreinu*, Kilometroak 2016rako Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatu duen obra sinfonikoa, Maddi Iñarraren letra-ekin. "Bergaran egin diren aurreko Kilometroak jaietan ere Udal Musika Bandak kolaboratu izan duenez, eta aurtengoa herrian egiten den hirugarren Kilometroak denez, zerbait berezia egitea erabaki genuen", dio Alfredo Gonzalez Chirlaquek.

Bi zati izango ditu kontzertuak: lehenengoan, Udal Musika Banda ariko da. Bigarrenean, Bandak eta Orkestrak bat eginik, bi obra eskainiko dituzte: *Frozen* eta *Hizkuntza erreinu*; azken hau, ahotsetan, Aranzadi Ikastolako ikasle eta irakasle talde batekin, Aitor Garitano bakarlarri dela.

Doinua barneratu eta idatzi

Obraren letra Maddi Iñarra bergararrak egin du, Kilometroak 2016ko abesti ofizialaren, Emon

taldearen *Demasa* abestiaren, letra egileak. "Hau ere esperientzia berri eta interesgarria izan da. *Demasa*-ren beldurra apur bat gaindituta, lasaiago egin dut

oraingoan. Lana antzerakoa izan da, hala ere: transmititu nahi zena argi izan, doinua barneratu eta erritmoaren gainean idazten hasi", dio Iñarrak.



Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Maddi Iñarra, obraren egileak. | ENEKO AZKARATE

Indarra eta erromantizismoa

Obra deskriptiboa da eta hiru zatitan banatzen da: *Bezpera*, *Mezua* eta *Eguna*. Halaxe izendatu ditu Gonzalez Chirlaquek. Lehen zatian, metalezko fanfarre soinu ozeneko eta koloretsua nabarmentzen da, instrumentu askorekin lagunduta. Bigarren zatian sartu du obraren testua, ahotsekin lagunduta doana, bakar-lariarekin eta korduarekin. Bigarren zati honek "oso musika erromantikoa, intimoa, suabea dauka; melodia nabarmentzen da", dio. Hari-instrumentuek hartzen dute protagonismoa. Azken zatia ezpata dantza da, erritmo euskalduneko. "Oso erritmikoa eta gauzak ondo doazela adierazten du, herria pozik dagoela".

Entzuteko "irrikaz"

Sei minutuko obra da, lehen entzuketan sartzen dena, jendea "parte hartzera animatzen duena". Bergarako herriari eta Kilometroak jaietan "lanean diharduen jendeari esker on" modukoa.

Kontzertura joateko dei egin die herritarrei zuzendariak: "Baita Udal Musika Bandaren ohiko emanaldietara etortzeko ohiturarik ez daukanari ere". Egitarau "dibertigarria" osatu dutela dio. Gainera, ez da emanaldi luzea izango, ordubete ingurukoa, "betiko moduan". Eta letraren egileak nabarmendu du zuzenean eta "orkestra guztiarekin behar bezala entzuteko irrikaz" dagoela.

Hizkuntza erreinu

Zerk egiten du herri bat
desberdin (e)ta berezi?
Zerk ematen dio herriari
bihotza, arima?
Mende(e)tako jakintza
gordailu,
denboran barna zu testigu,
euskara euskaldunon hizkuntza
(e)ta erreinu,
bera gabe zer gina(te)ke ba gu.

Amak emandako altxorra,
erabiliz hilezkorra,
utziz gero baina
bihurtzen da ahul (e)ta
hauskorra.

Gure ondarerik bizi eta
zaharrena,
belaunaldiz belaunaldi,
ahoz aho pasatzen
iraunaraziko duguna.

Kilometro demasak oinguk
Bergaran
herrixa pozik dabil gogotsu lan
eta lan
ospatuizu gurekin eta ikusiko
dozu nolan
aldapa gogorra be errez asko
igotzen dan!

Kilometro demasak oinguk
Bergaran
herrixa pozik dabil gogotsu lan
eta lan
ospatuizu gurekin eta ikusiko
dozu nolan
bidia elkarrekin gustorau itxen
dan,
nahiz eta urrin juan!

Kilometro demasak oinguk
Bergaran
herrixa pozik dabil gogotsu lan
eta lan
ospatuizu gurekin eta ikusiko
dozu nolan
euskeriak itxointzen gaitxuen
helmugan
Kilometroan, Kilometroan!

Maddi Iñarra

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Ekainak 18 | 2016 | Uztailak 16 / Irailak 17 /
Urriak 15 / Azaroak 19

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak konfiantza,
hurbiltasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Goikoetxearen omenezko kontzertua, bihar, Aramaion

Araba Abesbatzak Salaberrik moldatutako Goikoetxearen 'Missa in honorem Inmaculada Concepcion' obra eskainiko du Camerata Gasteiz taldearekin

MIREN ARREGI | ARAMAIO

Bizente Goikoetxea aramaioar musikariaren heriotzaren mendeurrena ospatzen ari dira Aramaion eta bihar, zapatua, izango da urteurren horren baitan antolatutako kontzertuetako bat. Hain zuzen ere, Aramaio San Martin elizan eskainiko du kontzertua Araba Abesbatzak, 19:30ean. Abesbatzak lagun izango du

Camerata Gasteiz hari-taldea. Aramaio Bizente Goikoetxea Abesbatzak ere eskainiko ditu pare bat abesti. Hura izango da kontzertuari hasiera emateko ardura izango duena.

Kontzertuaren ardura osoa Sabin Salaberri musikari aramaiorak hartu du. Izan ere, harenak dira Araba Abesbatzak kontzertuan eskainiko duen Bizen-

te Goikoetxeak konposatutako mezaren moldaketak. Urtebete behar izan du moldaketa lanak egiteko, baina emaitzak merezi izan du, Salaberriren esanetan.

Meza CDan

Ekintza bikoitza izango da zapatukoa, kontzertua aprobetxatuko baita Bizente Goikoetxearen musikarekin osatutako CD bat aurkezteko. Hain zuzen ere, Sabin Salaberrik moldatutako eta Araba Abesbatzak biharko kontzertuan eskainiko duen *Missa In honorem Inmaculada Concepcion* obrarekin osatutako CDA da bihar aurkeztuko den hori. Araba Abesbatzak 2014ko ekainean Gasteizko Santa Maria katedralean grabatu zuen Bizente Goikoetxeak abesbatza eta organorako idatzi zuen meza. Sabin Salaberri musikariak moldatu du partitura eta gehitu dio orkestraren zatia. CDan ere, beraz, Araba Abesbatzak Camerata Gasteiz hari-taldearekin interpretatzen du aramaioar musikariaren obra.



Araba Abesbatza. | GOIENA

Trikitixa Eskolaren soinu bandak herriko kultura elkarteak batu zituen

A. A. | ARRASATE

Txistulariak, gaitariak, erraldioen konpartsa, Lore Gazteak dantza taldea, txalapartariak, Goikobalu abesbatza, Sambamaña batu-kada taldea... izan ziren, besteak beste, Monterron parkean zapatuan Trikitixa Eskolako 25. urteurrena ospatzeko jaialdi ikus-

garrian. "Sekulakoa egin dugu guztion artean. Eskertzekoa da behin eta berriz atea jo diegun elkarte guztiek hasieratik erakutsi diguten prestutasuna. Lan handia eskatu digu, baina, duda barik, merezi zuen", zioen, hunkituta, Maixa Lizarribarrek, Trikitixa Eskolako zuzendariak.

Euskal Herriko trikiti eskola bakarrenetakoa da gaur egun Arrasatekoa, eta Monterronen bildutako jende multzo handiak argi erakutsi zuen herritarren babesa duela. Gozatu ederra hartu zuten jotzera, entzutera edo abestera joan ziren guztiak.

Irailean, ekitaldi gehiago

Ikasurte berriarekin beteko ditu eskolak 25 urteak, eta kalera aterako dira berriz ere herritarrekin batera ospakizuna borobiltzera.



Arrasateko Trikitixa Eskolakoak Sambamaña taldearekin. | IMANOL SORIANO



Egan taldeko Xabier Saldias eta Idoia Uranga zapatuan Oñatin. | A.A.

Xabier Saldias | Egan taldeko kidea

"Garai baten, musika belarrietatik sartzen zen; orain, begietatik"

'Behin batian Loiolan' abestia Eganen ahotik zuzenean entzuteko azkeneko aukerak

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

46 urte bete ditu Egan taldeak plazarik plaza; urrian erretiroa hartuko du taldeko arima den Xabier Saldias abeslariak. Azken bira egiten ari dira; zapatuan Oñatiko Olara auzoan izan ziren.

Zer moduz?

Nekatuta, 65 urte martxoan bete nituen eta.

Hala ere, taularen gainean gustura zaudela ematen du.

Gogorra da emanaldi bakoitzeko hamabi ordu etxetik kanpo egitea. Kantatzea bakarrik izango balitz, 90 urte bete arte jarraituko nuke, baina lehengo garaiak garenok dena egiteko ohitura dugu: kamioia gidatu, tresna guztiak muntatu... Eta horrek erre egiten du. Jendearen aurrean, gero, gustura izaten gara, baina...

Erretiroa hartuko duzu, beraz.

Herriz herri ibiltzetik erretirituko naiz, bai. Hemeretzi urterekin hasi nintzen. Gizarte-segurantzian kotizatzea lortu dut eta orain lanik egin barik pagatu egiten dizutela ikusten duzu; beraz, kitto! Hiru hilabete oparitu dizkiot Ogasunari. Gustura nago garai baten musikan jarduteko hartu nuen erabaki zailarekin.

Eta gero zer, aspertu?

Bai, zera, nik badakit nola bizi: pilotan jokatu... Musikarekin ere gurako nuke jarraitu, baina herriz herri ibili barik. Koru txiki bat sortzea ere gustatuko litzaidake; Golden Apple Quartet-en estilora edo. Mikrofonoa ez dut guztiz itxi nahi.

Saldias beti kantatzen.

Noski, besterik ez dugu-eta ikasi. [Barreak] Negar ere kantatuz egiten dut nik. Etxetik jaso dudana afizioa izan da hori.

Gutxi izango dira Euskal Herrian zuzen beste kilometro egin duenik.

Gure garaian, lauzpabost talde bakarrik geunden; orain, askoz zailagoa da, gehiago gaude eta.

Debagoienean ere askotan izan zarete. Zenbat alditan badakizu?

Oso txarra naiz horrelako kontuak gogoan izateko, baina akordatzeko naiz garai baten Arantzazurako bidea sarritan hartzen genuela, jatetxe baten ez bazen aldamenekoan ospatzen zuten ezkontzan abesten. Oñatiko Errosario Bixamonan ere askotan izan gara; aurten ere, akaso, bertan izango gara; ez litzateke, bada, toki txarra Egan agurtzeko. Uztailearen 16rako Bergaran dugu lotuta.

Zapatuan Pirritx eta Porrotzen diskoi egurra eman zenieten.

[Barreak] Azkenaldian, horrela egiten dugu: haurrentzako kantuekin hasi, gurasoendako beste batzuk tartekatuta, eta gazteak etortzen direnean beste era batekoak jotzen ditugu. Inprobisatzen ibiltzen gara beti, kantu-zerrenda pertsonalizatuak egiten. Jendeak esaten du gaur egun ez dela dantzarik egiten, baina gurekin, behintzat, bai!

Garai berrietara moldatzeko ahalgina egin duzue beti.

Gaur egun, musika-kultura handiagoa dago. Lehen, belarrietatik sartzen zen musika, eta, gaur egun, begietatik. Taldearen formatua aldatu beharra ikusi genuen: Roxi Zubizarreta koreografoa ekarri genuen eta baita nirekin batera abesten duten Idoia Uranga eta Ane nire alaba ere. Horiarekin batera, Ruben Viejo (bateria jolea) eta Imanol Iribarren (teklatuak) daude. Garai baten asko kobratzen genuen; gaur egun, berriz, ahal dena. Aurrekontua murriztu behar izan dugu bizi irauteko!

"Erretiroa hartuko dut, baina abesten jarraitzeko asmoa dut oraindik ere"

Arnaga Etxean jarri ditu ikusgai lanak Iñigo Arregik

- ▶ Eskultore arrasatearren tamaina handiko 25 eskultura jarri dituzte
- ▶ Ekainaren 23an inauguratuko dute eta zabalik egongo da lau hilabetez

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Bizitzako erakusketa" moduan definitu duen proiektua muntatzen ibili da azken bizpahiru egun hauetan Iñigo Arregi eskultore arrasatearra Kanbon (Lapurdi). "Zoragarri gelditu da, oso pozik nago", zioen atzo bertan.

Donostia 2016 egitasmoaren barruan sartzen da proiektua eta datorren egunean, ekainak 23, inauguratuko dute. Kanboko Arnaga Etxeko lorategian jarri dituzte Arregiren eskulturak, *Versalles txikia* izenez ezagutzen den espazioan. 25 lan dira guztira. Horietako asko tamaina handikoak dira eta garraio bereziko kamioietan eraman dituzte Arrasateetik Kanbora. Garabia erabili behar izan dute lanak kamioietatik hartu eta lorategian deskargatzeko. Atzo, eguna, goizean, esaterako, zortzi lagun artean ari ziren eskultura bakoitza bere lekuan jartzen. "Hiru oso handiak dira eta sei, bi metro ingurukoak; besteak txikiagoak dira. Denak dira erakusketa honetarako propio egindako lanak. Bi, loreekin lotutakoak dira eta horiek dira, agian, ezberdinenak, baina gainerakoak nik egiten dudana lanaren kontzeptuan sartzen dira. Ez dira gai konkretu baten inguruan egindako eskulturak", zehaztu

du Kanbotik bertatik Iñigo Arregi artistak.

Materiala ere ohikoa erabili du, Korten altzairuzkoak dira guztiak.

Urte eta erdi

Frantziatik jaso zuen Arregik erakusketa hau egiteko gonbidapena. Parisko galerista batekin jarri zuten harremanetan eta



Garabiaren laguntza ere behar izan dute eskulturak jartzeko. | HODEI ARREGI



Versalles txikia izenez ezagutzen da Arnaga Etxeko lorategia. | HODEI ARREGI

haren bitartez hasi zen prestatzen proiektu hau duela urte eta erdi inguru. "Tokia ondo aztertu, neurtu, genuen eta aurretik pentsatu zein obra non jarri. Oso ondo gelditu da, benetan. Gustura nago. Arteaga Etxea museoa ere bada eta horrek badu bere pisua. Erreferentzia moduan geldituko da erakusketa hau, inguru honetan eta hain tamaina handiko piezak...", dio, pozik, arrasatearrak.

Sistiagarekin

Iñigo Arregiren eskulturak lorategian jarriko dituzte eta Juan Antonio Sistiaga margolariaren pinturak etxetzar barruan; 40 lan. "Ezagutzen dut Sistiaga eta egon naiz ikusten hona ekarri dituen pinturak. Oso polita gel-

ditu da, bai. Gainera, filmak ikus-teko ere prestatu dute barrua, oi-hal beltzak erabilia. Zoragarri muntatu dute", azaldu du Arregik.

Eskultore arrasatearrak esandako moduan, Euskal Herria bi zatitan bereizteko erabiltzen den muga hori kendu gura izan dute erakusketaren antolatzaileek: "Sistiaga eta biok etorri gara hona, eta Iparraldeko beste bi artista joango dira Donostiara euren lanak erakustera".

Ekainaren 23an, San Juan bezperan, inauguratuko dute erakusketa eta zabalik egongo da lau hilabetez. "Ez naiz une oro han egongo, baina etorri barik ere ez naiz geldituko", dio Arregik Kanbotik.



Egun goizean zortzi lagun ibili ziren muntatze lanetan. | HODEI ARREGI



Iñigo Arregi eskultore arrasatearra lan baten aurrean, Kanbon. | HODEI ARREGI

JULHN E27

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA | 'JUL' BOLINAGAREN OMENEZ IAZ MONTERRONEN EGINDAKO JAIALDIA
EKAINAK 22, 22:00



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza berria salgai Lizaria-San Lorentzon. Sukalde-jangela, bi logela eta komuna. Garajea eta igogailua. Dena kanpora begira. Lagarren solairua. Oso eguzkitsua. 695 78 70 26

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabalta. Uztailetik aurrera bi edo hiru logelako etxebizitza baten bila gabiltza errentan hartzeko. Harremanetarako: 660 37 55 92 (Josu) edo 688 89 52 37 (Ainara)

Arrasate. Egoera onean dagoen bi logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Ezin dugu hilean 500 euro baino gehiago ordaindu. 634 07 99 70 edo 603 29 94 29

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 632 92 67 36 edo 602 30 45 86

Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Hilean 350-400 euro ordain ditzaket. Berdin da altzaririk ez badago. 632 77 35 38

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Harremanetarako telefonoak: 666 30 95 61 edo 666 97 05 86

105. ETXEA OSATU

Debagoiena. Neska espainiarrrak logela behar du errentan, azpierrementu kontratuarekin. Urgentea da. 603 45 83 80

Eskoriatza. Baserri osatzeko jende bila gabiltza. Baratzarekin eta naturarekin harremanetan bizi gura duen jendea nahiko genuke. Interesatuok, deitu 19:00ak eta 21:00ak artean, zerbaki honetara: 693 80 40 47

Logela errentan Oñatin. Logela ematen da errentan erdigenetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona ardurasua eskatzen da. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakume bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta 3 eta 6 urteko bi ume zaintzeko. Irailetik aurrera izango litzateke. 685 70 41 81

Arrasate. Emakume euskalduna eta esperientziaduna behar da Arrasaten urtebeteko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goiez 4 ordu. Irailen hasteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 87 81 44

Eskoriatza-Aretxabaleta. Irailetik aurrera umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Orduka izatea gustatuko litzaziguke. Interesatuok deitu hurrengo bi zerbakiak batera: 660 78 90 62 edo 628 44 00 49

Ospitalera joateko laguntzaile. Aldizka, bi astean behin gutxi gora behera, familia bat Bergaratik Txagorritxura mediku kontsultetara autoz garraiatzeko pertsona bat behar da. 637 13 16 23

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Magisteritzako gradua duen 27 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko prest, berehala hasteko aukerarekin. Esperientzia handia daukat. 667 01 66 45

Arrasate eta Bergara. Zaintza lanetan, etxeko lanetan eta garbiketan aritzeko gertu nago. Esperientzia eta erreferentzia onak. 665 38 20 66 edo 686 44 70 38

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzaile gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Arrasate. 58 urteko emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko. 688 66 76 91

Arrasate. Neska gaztea gertu nagusi eta umeak zaintzen eta etxe, elkarte eta abarrak garbitzen lan egiteko. Zerbitzari moduan, sukalde laguntzaile edo dendan ere lan egingo nuke. 612 42 69 37

Bergara. Esperientziadun erizain laguntzaile goizez pertsona nagusiak zaintzeko prest. 696 70 55 09

Bergara. Neska euskalduna eta majisteritzako ikaslea udan haurrak zaintzeko prest. Esperientziarekin eta lan egiteko gogoarekin. 637 36 35 59 edo 943 76 08 97

Bergara. Neska euskalduna udan haurrak zaintzen lan egiteko prest. Esperientzia eta lan egiteko gogoarekin. 655 91 37 16

Bergara. Neska gertu bulego eta lokalak garbitzeko eta nagusiak lagundu edota afariak gertatzeko. 610 34 97 88

Debagoiena. Arotz laguntzaile, eraikuntzan, garbitzen edota margotzen lan egingo nuke. Garrario lanetarako gidabaimena daukat. 602 16 05 93 (Jacobo)

Debagoiena. Arrasaten bizi den emakume pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egingo nuke. Orduetegi aldetik ez daukat inongo arazorik. 629 06 94 11

Debagoiena. Baserri lanetan eta ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut. 631 14 27 02

Debagoiena. Emakumea orduka etxeko lanak egiteko edo emakume nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska orduka zaintza eta garbiketa lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 620 23 58 15

Debagoiena. Etxe garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita ospitalean ere. 655 15 36 59

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota jardun erdiz lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. Nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanetan. 632 46 17 94

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egunez edota gauzez lan egingo nuke nagusi eta gaitxoak zaintzen. Ospitalean ere bai. Erreferentzia onak dauzkat. 631 14 27 02

Debagoiena. Etxeko lanak egiten, egunean zehar nagusiak zaintzen edota denetarik garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. 626 29 55 32

Debagoiena. Etxeko lanak egiten, nagusiak zaintzen edota denetarik garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Kontakturak zerbakiak: 608 49 89 95

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDFENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu. - Profesionalen moduluak.

Debagoiena. Etxeko lanak egiten, nagusiak zaintzen edota denetarik garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 699 86 22 08

Debagoiena. Geriatria ikasketak dituen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. 612 41 17 05

Debagoiena. Geriatriako titulua duen neska prest orduka lan egiteko. Etxean lan egiteko ere bai, orduka. Eskarmentu handia. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketarako, banaketarako, mandatuak etxera eramateko edo denetarik lanak. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Zubi-garbiak eta jaso

- makinak erabiltzeko ikasketak dauzkat. Baita sukaldaritzakoa ere. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako onak ditut. Baita gauzez ere. 631 28 02 98

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Gidari edo banatzaile moduan ere lan egin dezaket. 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta etxean zein medikuntza laguntzaile gertu nago. Baita garbiketarako ere. Hiltegi edota harategian ere jardun naiteke. 600 30 24 68 edo 632 71 47 75 (Fatima)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Kontakturako: 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Tailerlean lan egindakoa ere banaiz. 679 45 97 18

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, lan egingo nuke. Erreferentzia onak dauzkat. Baita gauzez ere. 631 28 02 98

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarako egiten eta abarreetan lan egingo nuke. 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauzez. Etxeak, atariak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. 603 45 83 80

Debagoiena. Neska eta mutil arduratsuak lanerako gertu. Denetarik garbiketarako, nagusiak zaintzen, zerbitzari edo sukalde laguntzaile eta abar. Autoarekin. Orduetegi arazo barik. 602 12 18 27

Debagoiena. Neska gaztea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Esperientzia daukat. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. 631 27 02 83

Debagoiena. Neska gertu goizez zein arratsalde nagusi eta umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 622 24 86 64

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia duen emakumea, garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo etxean bertan lan

egiteko aukera. Aurretik lan egindako familiaren erreferentziak aurkez ditzaket. 697 73 66 01

Debagoiena. Sozio sanitario titulua duen mutila etxeko etxeko laguntzaile gertu. Praktikak Aita Menni ospitalean egin nituen. Berehala hasteko gertu. 634 94 31 59

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen, garbiketarako lanetan, tabernako zerbitzari edo gozoki dendan lan egingo nuke. Nagusiekin gauak ospitalean pasatzeko ere gertu nago. Presazkoa da. Arrasaten, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Eibar. 676 44 85 58

Debagoiena. Umeak zaintzen eta etxe, atari eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. 647 10 58 72

Debagoiena. Zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. 695 40 56 65

Debagoiena. Zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. 603 64 98 53

Debagoiena. Zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Orduka, etxean bertan bizi izaten edo gauetan ere bai. 672 98 20 91

Debagoiena. Zerbitzari moduan edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 632 70 52 82 edo 629 29 11 23

Debagoiena. Zerbitzari, umeak zaintzen eta garbiketarako egiten lan egingo nuke. 637 11 06 35

Lan bila. Aretxabaleta 22 urteko neska euskalduna lan egiteko prest, haurrak zaintzen, zerbitzari moduan, dendari moduan, garbiketarako egiten eta abarreetan. Asteazken zehar zein asteburuetan. 650 20 29 87

Lan bila. Gidari edo margotze lanak egiten lan egingo nuke. Jaso-makina gidatzeko baimena daukat. 602 03 06 20

Lan bila. Neska oñatiarra haurrak eta nagusiak zaintzen edota garbiketarako lanak egiteko prest. Esperientzia dut haurrak zaintzen eta garbiketarako lanak egiten. Autoa daukat eta kontratuarekin egingo nuke lan. Oñati, Arrasate, Bergara, Antzuola, Aretxabaleta edo Eskoriatza. 664 53 28 56

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Ingeles eskolak Bergaran. Maila guztiak. Hizkuntz Eskola Ofizialeko eta Cambridge-ko azterketak prestatzeko ere bai. Uztailen, ikastaro trinkoak. 618 91 32 89

6. MOTORRA

602. EROSI

7 plazakoa. Bigarren eskuko zazpi plazako ibilgailua erosiko nuke. 618 76 34 40

8. DENETARIK

801. SALDU

Logela salgai. Estreinatua gabeko logelako egurrezko altzarriak salgai. 150 cm zabaleko ohea, Pikolin koltxoia jatorrizko

plastikoan, bi gau-mahai eta ispiludun armarria. Kalitate ezin hobea, prezio erdian. Kontakurako, hobe Whatsapppe, zenbaki honetan: 658 71 44 37

802. EROSI

Josteko makina. Josteko makina erosiko nuke, merke, maletatxoan garraiatzeko modukoa. 630 80 55 70

803. EMAN

Belarra. Eskoriatzako Mendio- la auzoan, 8.000 metroko zelaiko belarra ematen da, moztu eta eramatearen truke. 664 61 78 94

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. 699 06 23 95 (Iñaki)

806. GALDU

Mugitxartela. Arrasaten, San Andres edo Erguin inguruan, Mugitxartela galdu dut. Mikel Gonzalezen izenarekin dago. Aurki baduzu, deitu zerbaki honetara mesedez: 659 62 02 49

Mugikorra Oñatin. Mugikorra galdu nuen ekainaren 2an San Lorenzo auzoko aldaia inguruan. Karkasa zuria du. Mesedez, aurkitu baduzu deitu zerbaki honetara. Sarritu da. 610 36 39 94

807. AURKITU

Patinetea Bergaran. San Martin Eskolan, maiatz hasieran patinete bat aurkitu nuen. Zurea bada, deitu zerbaki honetara: 666 09 99 34

Txamarra Aretxabaletan. Maiatzaren 21 eta 22ko aste-bukaeran, Iralabarri plazan ume baten txamarra agertu da. Zurea bada deitu zerbaki honetara: 650 59 24 91



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Hirigintza

IRAGARKIA

HARTU BEHARREKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA ONARTZEA, ETA OKUPATU AURREKO AKTA JASOTZEKO DEIALDIA

2016ko ekainaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ondoko akordioak argitaratzen dira:

- Udal Plenoaren 2016ko ekainaren 7ko akordioa, onartzen duena "Zarugalde kalea 37an dagoen eraikina botatzeko Oinarrizko Proiektua" exekutatzeko eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda.

- Alkatearen 2016ko ekainaren 8ko akordioa, okupatu aurreko aktak jasotzeko deialdia egiten duena, Nahitaez Desjabetzeko Legearen 52. artikulua eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda.

ERANSKINA

| Finka (erlazioaren arabera) | Finka (erlazioaren arabera) | Titularra | Data | Ordua | Tokia |
|-----------------------------|---|--|------------|-------|-----------|
| 1 | Liburukia 496; Liburua 297; Folia 171; Finka nº 15376 Banandua. | D. Juan José Otaduy Echevarria y D ^a . Marina Pérez Mendiguren Fernández de Retana. | 2016/07/05 | 10:30 | Udaletxea |
| 2 | Liburukia 557; Liburua 333; Folia 191; Finka nº 6642. | D ^a . M ^a Begoña Caciaga Abarrategui (erdi bat, banaezina) y D ^a M ^a Aránzazu Caciaga Abarrategui con D. Anton Oquina Aguirre (beste erdi bat, banaezina). | 2016/07/05 | 10:00 | Udaletxea |

Arrasate, 2016ko ekainaren 14an.
ALKATEA
Maria Ubarretxena Cid.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Magali Manzano Fernandez
Ekainaren 23an, 12 urte. Gurasoen eta familiaren partetik, zorionak eta disfrutatu zure egunean.



ESKORRIATZA
Unax Aramendi Altuna
Ekainaren 21an, 5 urte. Zorionak, bihotza! Primeran pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolote bat Iradiren eta etxeko danon partetik. Asko maite zaittugu eta horrela jarraitu. Mua!



ANTZUOLA
Lore Kortabarria Arana
Ekainaren 21an, 8 urte. Zorionak, Lore. Ondo-ondo pasatu zure egunean eta aprobetxatu opor luze hauek.



BERGARA
Sara mendia Beldarrain
Ekainaren 21an, 3 urte. Zorionak printzesa!! Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko danen eta bereziki Anen partetik



ARAMAIO
Maddi Avila Hernando
Ekainaren 20an, 14 urte. Zorionak Maddi!! Ondo pasa zure urtebetetze egunean ta merezitako oporrak aprobetxatu!!! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
Unai Sotil Domenech
Ekainaren 19an, 4 urte. Zorionak, Unai! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat etxekoen eta, bereziki, Aratzen eta Sararen partetik!



BERGARA
Ekaitz Elgoro Urzelai
Ekainaren 19an, 4 urte. Zorionak eta ondo pasa, demasa, Tomasa.



BERGARA
Unai Zangitu Garmendia
Unai Zangitu Garmendia Ekainaren 18an, 2 urte. Gure txikixak honezker bi urte... Zorionak, Unai! Patxo handi-handi bat danon partetik eta primeran pasatu eguna!



ESKORRIATZA
Iker Fernandez Sedano
Ekainaren 18an, 15 urte. Zorionak arrea Juneren eta gurasoen partetik. Ondo pasatu zure eguna!



ARRASATE
Oier Pujana Ibabe
Ekainaren 18an, 3 urte. Zorionak Oier! Ondo pasa zure eguna eta muxu handi bat etxekoen partez.



BERGARA
Nora González Moreno
Ekainaren 18an, urtebete. Zorionak bihotza! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko guztien, eta bereziki, Urko eta Iratin partetik!!!



OÑATI
Jon Garitano Moia
Ekainaren 17an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, Jontxo! Ze handixa egin zaren! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Pello Alzola Loiti
Ekainaren 16an, 2 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zeure bigarren urtebetetze eguna! Patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
Luken Horrillo Tierno
Ekainaren 15an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Kai Luengo Elgoro
Ekainaren 14an, 3 urte. Zorionak, artista! Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Ederrena, Aisharena eta Lukenena.



BERGARA
Anartz Calleja Arribillaga
Ekainaren 14an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetzian! 9 urte, mutil handi! Jarraitu hain atsegina eta alai izaten! Familia guztiaren partetik, muxutxuak, maittia!



BERGARA
Irati Rodriguez
Ekainaren 14an, urtebete. Zorionak, printzesa! Urtebete! Patxo potolo bat, etxeko guztien eta, bereziki, Urkoren eta Noraren partetik.



ARAMAIO
Jare Lasaga Garai
Ekainaren 14an, 11 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
Ane Pescador
Ekainaren 13an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetetze eguna, Leireren, Oierren, Aratzen eta Ekhiaren partetik.



ARRASATE
June Barandiaran Garai
Ekainaren 13an, 6 urte. Zorionak, laztana! Zure egunean egun zoragarria pasatuko duzula espero dugu, emozioz, poztasunez eta maitasunez bete. Gure ahaleginak egingo ditugu horretarako. Izugarri maite zaitugu! Muxu handi bat eta sei tirakada belarritik, familiako denon partetik.



ANTZUOLA
Anuska Valor Valor
Ekainaren 13an, Urtebetetzea. Zorionak Amaaaa!!! oso ondo pasa genuen denok ospakizunean! Jarraitu orain bezalako indartsu izaten eta jakin asko maite zaitugula!!! Muxi pila bat familia guztiaren partetik, baina berezienak Iban eta Aitana.renak!!!



ARETXABALETA
Uxue Galdos Arrate
Ekainaren 12an, 6 urte. Amama Tinaren, lehengusinen eta familiako guztien partetik, zorionak eta patxo handi bat!



ARETXABALETA
Oier Del Fresno Lezeta
Ekainaren 11n, 7 urte. Zorionak, Oier! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Aitaren, amaren eta Aneren partetik, patxo potolo bat!



BERGARA
Izar Gonzalez Agirrezabal
Ekainaren 11n, 3 urte. Zorionak, pitxin! Etxeko danon eta, batez be, zure anaia Jurgiren partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunian!



ESKORRIATZA
Juan Luis eta Xuban Markaide
Ekainaren 10an, 6 urte. Xubanek 6 urte eta aitaok...z enbat dien be ia gogoratu bez. Zorionak! Ondo pasatu eta topera disfrutatu! Muxutxuak, etxekuen partetik.



ARETXABALETA
Alai Leiba Arenaza
Ekainaren 10an, urtebete. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Haizea eta Unax Mujika Beistegi
Ekainaren 10an, Urtebetetzea. Haizeak ekainaren 2an, 6 urte eta Unaxek ekainaren 25ean, 4 urte. Zorionak, bikote! Asko maite zaituztegu. Muxu handi bat, amatxoren eta aitaixoren partetik.

Urte askotarako!

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Zatof ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

ZORION AGURRAK

GOIENA TELEBISTA | KORAPILO

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA



ASTEAGOIENAN



IMANOL SORIANO

'Jul' Bolinagaren omenezko kontzertua

Iaz Monterronen JULHNE27 (Jul Harro Nago Ekainak 27) izenpean egindako 'Jul' Bolinagaren omenezko jaialdia eskainiko da eguaztenean telebistan. Musikari eta lagun ugari elkartu ziren, eta bost kamerarekin grabatutakoa ikusi ahal izango da.

'Kontzertua: JULHNE27'
Eguaztena, 22:00



GOIENA

Erronka berriak ikusgai, eguenean

Ikus-entzunezko Komunikazio-ko ikasle Unai Gil oñatiarra eta Iñigo Otaegi izango dira *Bota erronka*-ko saioko aurkezleak hurrengo astean. Gaintitu beharreko erronken artean daude txitarro txikiak garbitzea edota piraguan Getaria-Zarautz egitea.

'Bota erronka'
Eguena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 17

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Bota erronka
13:30 Korapilo
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Bota erronka
15:30 Jokoz mintzo
16:30 Berriak
17:00 Aizank!
18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Kantari
19:30 Bota erronka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Amaia DJ
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak
01:00 Bota erronka

ZAPATUA, 18

09:00 Kantari
09:30 Platopic
10:00 Korapilo
10:30 Kantari
11:00 Debagoiena zuzenean
11:55 Astea iruditan
12:00 Bota erronka
12:30 Amaia DJ
13:00 Ikusi irratia
14:00 Harira
14:30 Jaiak: San Juana jaiak
15:15 Debagoiena zuzenean
16:00 Astea iruditan
16:05 Platopic
16:30 Kantari
17:00 Korapilo
17:30 Amaia DJ
18:00 Bota erronka
18:30 Jaiak: San Juan jaiak
19:15 Debagoiena zuzenean
19:55 Astea iruditan
20:00 Kantari
20:30 Amaia DJ
21:00 Harira
21:30 Bota erronka
22:00 Debagoiena zuzenean
22:55 Astea iruditan
23:00 Hurbilean
00:00 Jaiak: San Juan jaiak

DOMEKA, 19

09:00 Kantari
09:30 Platopic
10:00 Korapilo
10:30 Kantari
11:00 Hurbilean
12:00 Jaiak: San Juan jaiak
13:00 Debagoiena zuzenean
13:55 Astea iruditan
14:00 Bota erronka
14:30 Ertzak
15:00 Geure altxorak
16:00 Platopic
16:30 Kantari
17:00 Korapilo
17:30 Debagoiena zuzenean
18:25 Astea iruditan
18:30 Amaia DJ
19:00 Harira
19:30 Bota erronka
20:00 Kantari
20:30 Debagoiena zuzenean
21:25 Astea iruditan
21:30 Harira
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:25 Astea iruditan
23:30 Bota erronka

ASTELEHENA, 20

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Korapilo
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ikusi irratia
18:00 Platopic
18:30 Berriak
19:00 Kantari
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Amaia DJ
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak
01:00 Harmailatik

MARTITZENA, 21

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Ertzak
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
14:40 Hurbilean
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ertzak
18:30 Berriak
19:00 Bota erronka
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak
01:00 Harira

EGUAZTENA, 22

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harira
13:00 Ertzak
13:30 Korapilo
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Bota erronka
15:30 Ertzak
16:00 Ur eta lur
16:30 Berriak
17:00 Amaia DJ
17:30 Ikusi irratia
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Harira
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak
01:00 Harira
01:30 Debagoiena zuzenean
02:00 Berriak

EGUENA, 23

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Bota erronka
13:00 Korapilo
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Geure altxorak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ikusi irratia
18:00 Harira
18:30 Berriak
19:00 Hurbilean
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Bota erronka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Bota erronka
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratu zapatuan eta domekan 10:00etan

Bihar, zapatua, egingo den baseritarren azokari buruz hitz egingo dute Enplegu eta Garapen sailek teknikari Marga Garmendiak eta arrautza ekologikoak ekoizten dituen Jon Azkoaga arrasatearrak. Kulturaren AZEK zabaldu duen erakusketa ere izango da berbeta gai gainbegiratu.

'Uda giroan' saioak hartuko dio erreleboa 'Igo autobusera'-ri

Hurrengo astean denboraldiko azken saioak egingo ditu *Igo autobusera!* irratsaioak, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etan. San Juan jaien lekuko izango dira azken irratsaio horiek, eta, hilarren 27tik aurrera, *Uda giroan* irratsaioak hartuko dio autobusera lekukoa Arrasate Irratian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

| | | | |
|-----------------|-----------------|--------------------------|--------------|
| Egubakoitza, 17 | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| Zapatua, 18 | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 19 | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 20 | IRIZAR | Erquin, 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 21 | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 22 | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 23 | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |

BERGARA

| | | | |
|-----------------|---------------|------------------|--------------|
| Egubakoitza, 17 | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Zapatua, 18 | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 19 | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 20 | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 21 | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 22 | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 23 | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |


OÑATI

| | | | |
|-----------------|---------|----------------|--------------|
| Egubakoitza, 17 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Zapatua, 18 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 19 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 20 | ANDUAGA | San Lorenzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 21 | ANDUAGA | San Lorenzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 22 | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 23 | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |


Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 17°
Min. 10°



Max. 19°
Min. 11°


ZAPATUA, 18

Eguneko edozein unetan zirimiria egingo du eta eguraldia nahiko aldakor egongo da zapatu guztian zehar.

DOMEKA, 19

Eguraldi antzerakoa izango da domekan ere. Euria egin dezake tarteka, nahiz eta tenperatura zertxobait igoko den.

EUSKAL HERRIA



Ipar-mendebaldean giro ilun eta umela gailenduko da. Hegoaldean, haizeak traba egingo du.

GAZTE INFORMAZIOA

GIDAK

Udan lana bilatzeko gida. Estatuko Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak argitaratu du, udan lana bilatzeko baliabideen gida. Besteak beste jasotzen dira: baliabideak lana bilatzeko: Au-Pair, itsas bidaietan, ostalaritzan, sorosle, ur-parkeetan edo jolas-parkeetan, edo nekazaritzan lana bilatzeko baliabideak. http://www.sepe.es/contenidos/que_es_el_sepe/publicaciones/pdf/pdf_empleo/trabajar_verano.pdf

Europa helmuga gida. Gazte Behatokiak argitaratutakoa, lanaz gain, European Mugitze-ko aukerak jasotzen ditu: lana, hizkuntzak ikasi, boluntariotza, informazio praktikoa (dokumentazioa, mugikortasuna europar herrialdeetan...). www.gazteaukera.euskadi.eus

LANA

Liburtegi laguntzaileen lan poltsa. Legutioko Udala. Baldintzak: batxilergoa edo ILH, euskararen 3. HE. Azken eguna haxe izango da: ekainak 30.

Euskara Irakasleen lan poltsa. Eibarko Udala. Unibertsitateko diplomatura, lizentzia, gradua edo horien baliokidea den titulazioa, 4. HE. Azken eguna haxe izango da: uztailak 22.

Hezitzailea. Txatxilipurdi Elkarte. Ludoteketan aniztasun funtzionalean lan egiteko. Kontuan hartuko da: lehen hezkuntza edo hezkuntza bereziko gradua, begirale titulua, informazio praktikoa (dokumentazioa, mugikortasuna europar herrialdeetan...). haurrak@txatxilipurdi.com helbidera.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:


Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



HILDAKOAK

- Rafael Iburguren Uribe.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 88 urte.
- Luis Maria Barrena Berezibar.** Arrasaten, ekainaren 3an. 74 urte.
- Mario Ugarte Lazkano.** Arrasaten, ekainaren 4an. 75 urte.
- Juan Migel Epelde Narbaitza.** Arrasaten, ekainaren 5ean. 79 urte.
- Ines Aranguren Alberdi.** Antzuolan, ekainaren 5ean. 90 urte.
- Felisa Oianguren Kortabarria.** Bergaran, ekainaren 6an. 92 urte.
- Frantzisko Javier Bailez Peñin.** Aramaion, ekainaren 6an. 59 urte.
- Luxi Elortza Guridi.** Oñatin, ekainaren 7an.
- Pedro Lizarralde Lizaur.** Oñatin, ekainaren 9an. 86 urte.
- Jose Maria Berezibar Irasuegi.** Arrasaten, ekainaren 10ean. 70 urte.
- Bixen Gonzalez Lasa.** Arrasaten, ekainaren 10ean. 50 urte.
- Camila Rodriguez Fernandez.** Oñatin, ekainaren 11n. 63 urte.
- Martin Osoro Loidi.** Elgetan, ekainaren 11n. 90 urte.
- Javier Arkauz Etxebarria.** Arrasaten, ekainaren 12an. 79 urte.
- Roberto Herrera Moreno.** Arrasaten, ekainaren 12an. 52 urte.
- Luis Lpz de Aretxaga Agirregabiria.** Arrasaten, ekainaren 13an. 96 urte.
- Felix Ajuria Velar.** Arrasaten, ekainaren 14an. 92 urte.

URTEURRENA



Lucio Lizarralde Mujika



2015eko ekainaren 2an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2016ko ekainaren 17an.

URTEURRENA

Ramon Iribecampos Garaizabal



2015eko ekainaren 3an hil zen, 79 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2016ko ekainaren 17an.

OROIGARRIA


Bixen Gonzalez Lasa



*Bixen, zenbat pozten garen zu ezagutu izanaz!
Beti izango zaitugu bihotzean.*

Zure lagunak.
Arrasaten, 2016ko ekainaren 17an.

MEZA



Jose Gabilondo Alberdi



(Pasiotarra)
Elosuko Agirre baserrikoa

2016ko maiatzaren 30ean hil zen, Bilbon, 80 urte zituela.

Haren aldeko meza domekan izango da, ekainaren 19an, 13:15ean, Elosuko San Andres parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Elosu), 2016ko ekainaren 17an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
 - Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €
- Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

- ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
- OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
- ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



Manolo eta Puri

Manolo Zubillagak eta Puri Beltran de Herediak ezkondu zireneko 50. urteurrena ospatu dute asteon. "Zorionak, aita eta ama, eta eskerrik asko etxekoon partetik, beti hor babesten eta laguntzen egoteagatik! Onenak zarete. Mila muxu, denon partetik".



Yudith eta Gorka

Yudith Familiar eta Gorka Bergaretxe arrasatearrak zapatuan, ekainak 18, ezkonduko dira. "Lagunen partetik, egun zoragarria pasatu eta ondo ibili eztei-bidaian!".



Angel eta Amparo

"Azkenean, heldu da eguna! Zapatu honetan ezkonduko dira Angel eta Amparo. Zorionak, bikote, familiaren partetik!".

ARETXABALETA Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak

Amalur ikuskizuna eskainiko dute, *7x7 Kultura Kalean* ekimenaren barruan. Ikuskizuna aire zabalean egingo dute. Hortaz, sarrera doakoa da guztiendako. Kantuak eta dantzak izango dira nagusi: *Amalur*, *Euri tanta*, *Maite zaitut*, eta beste hainbat.

Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:00etan.



IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

ARRASATE 'JULHNE27' DVDaren aurkezpena

Jul Bolinaga zenaren omenez iazko ekainean Monterronen egindako ekitaldi "hunkigarria" bi DVDtan jaso dute antolatzailleek. Salgai ipini aurretik (hamar eurotan), herritarrei erakutsiko diete.

Ekainaren 21ean, Amaia antzokian, 20:30ean.

MUSIKA**ESKORIATZA Ikasturte bukaerakoa**

Behoko Errota musika eskolako ikasleen kontzertua.

Gaur, egubakoitza, Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

ARRASATE Ikasturte bukaerakoa

Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertua.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

OÑATI Ikasturte bukaerakoa

Jose de Azpiazu musika eskolako kontzertua, *Kalean* programaren barruan. Eguraldi txarra egiten badu, Santa Ana aretoan izango da.

Gaur, egubakoitza, Foruen plazan, 18:30ean.

ARAMAIO Libertad Condicional taldea

Kontzertuak Sastiñan musika jaialdiaren barruan, etxeko taldearen kontzertua.

Gaur, egubakoitza, Sastifian, 20:00etan.

ARAMAIO Bizente Goikoetxearen omenezkoa

Aramaioko musikariaren heriotzaren mendeurrenako kontzertua egingo dute Araba Abesbatzak, Camerata Gasteiz taldeak eta Bizente Goikoetxea Abesbatzak. Sarrera, doan.

Bihar, zapatua, San Martin parrokiaren, 19:30ean.

ARRASATE Elai taldea

Aramaioko Papargorri abesbatzako Elai taldeak egingo du emanaldia.

Bihar, zapatua, parrokiaren, 20:30ean.

ANTZUOLA Musika eskolakoak

Bergarako ikasleen kontzertua. Sarrera, doan.

Ekainaren 20an, Torresoroan, 18:30ean.

ERAKUSKETAK**OÑATI 'Estruktural'**

Pablo Soruluzeren eta Jon Marguelloren eskulturak. Argi, itzal, espazio, forma edo konposaketa guztien gainetik, bi pertsonen bizitzan zehar izandako ibilbidearen aurrean duten lotura, egoiteko era eta erlazioaren fruitua da. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute.

Ekainaren 30era arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

EKAINA 17

EKAINA 23

ESKORIATZA 'Emakumeak Hushe bailaran'

Ibon Azpilikueta argazkilariaren bilduma. Azken egunak.

Ekainaren 18ra arte, Ibarraundin.

BERGARA Jose Luis Goenaga

Espressionismoan oinarritutako pinturak ikusteko aukera. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute.

Uztailaren 3ra arte, Aroztegin.

ARETXABALETA Eskulan ikastaroa

Rosa del Aguilarekin ikastaroa egin duten ikasleen lanak.

Ekainaren 29ra arte, Arkupean.

ARRASATE Vasco-Navarro trenua

Arrasate Zientzia Elkartekoaren erakusketa.

Uztailaren 8ra arte, Kulturaten.

ANTZERKIA**ARRASATE 'Aingeru ala kurriloi'**

Dokeren azken lana. Hiru ahizpa eta iloba baten arteko harremana kontatzen du. Mariasun Pagoaga, Arantza Ezkurra, Mainer Alzelay eta Dorita Murgia oholztan.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 20:00etan.

ARETXABALETA 'Bolaluma'

Eibarko Kixka antzerki taldearen emanaldia, *7x7 Kultura Kalean* ekimenaren barruan. Txotxongi- loen laguntzarekin istorio bitxia kontatuko diete umei: makilatxo magikoa gaizkilearen esku dago eta lehenbailehen berreskuratu beharko dute, mundua okertzen hasi aurretik.

Ekainaren 22an, Santa Kurtzeko plazan, 19:00etan.

OSPAKIZUNAK**OÑATI Txokolata eta opila**

Erretiratuen Asteko ekintza.

Gaur, egubakoitza, Pake Lekun, 17:30ean.

BERGARA 'Gau erotikoa'

Gaztetxearen 16. urteurrenako ekintza: 20:00etan *Mantazpitik* poesia musikatua, 21:30ean pis- kolabisa eta 22:30ean *Sexijentziak askatuz* saioa.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, aipatutako orduetan.

OÑATI Elkar Hezi Eguna

Askotariko ekintzak egongo dira langile, irakasle, ikasle eta fami-

lientzat: *Altxorraren bila*, punkari buruzko tailerra, bizikletak konpontzeko tailerra, eskulana, puzgarriak, xaboi-ponpa erraldoiak, eta globoflexia. Zubikoa kiroldegian bazkalduko dute. Bihar, zapatua, ikastetxean, 09:00etan.

OÑATI IV. Trauti Eguna

Elbarriendako aproposak diren laguntza teknikoaren erakusketa egongo da. Era berean, elbarrien tresnekin jolasak egingo dituzte umeendako.

Bihar, zapatua, Foruen plazan, 11:00etan.

ARRASATE Umeen danborrada

200 ume inguruk parte hartuko dute, eta, lehen aldiz, helduen danborradaren ibilbide bera egingo dute.

Bihar, zapatua, herriko kaleetan, 17:00etan.

ARAMAIO Arabako odol emaileen eguna

Egitarau zabala prestatu dute: hamarretakoa ogitartekoarekin, urteko ohiko batzarra, meza San Martin elizan eta bazkaria. Araba osoko emaileak elkartuko dira. Odol-emaile egiteko aukera ere egongo da.

Etzi, domeka., Aramaion, 11:00etan.

BERGARA Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoa

Alfredo Gonzalez Chirlaquek Kilo- metroak 2016rako konposatu duen *Hizkuntza erreinua* lanaren lehen emanaldia.

Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

OÑATI Herriko bi nagusiri omenaldia

Erretiratuen Astearen azken ekitaldia: udal ordezkariak, Oñatz taldeko kideak eta bertsolariak egongo dira ekitaldian. Aurretik, 12:00etan, meza egingo dute parrokiaren.

Etzi, domeka, kiroldegian, 14:00etan.

ARAMAIO Eskolako jaialdia

Ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute gurasoendako.

Ekainaren 22an, kultura etxean, 11:00etan.

GAZTELEKUAK**BERGARA Bosgarren urteurrena**

Askotariko ekitaldiak: 11:30ean atea zabalduta; 12:00etan solasaldia Xabi Solanorekin; 13:00etan paela lehiaketa eta ostean, bazkaria; 18:00etan jolasak; 20:00etan kontzertua; eta 21:30ean afaria. Gaztelekua 00:30ean itxiko dute.

Bihar, zapatua, Xabaloten, aipatutako orduetan.

OÑATI Futbol txapelketa

Kuboko erabiltzaileendako partiduak, Azkoagainen.

Etzi, domeka, futbol zelaiaren, 16:00etan.

OÑATI 'Gaztekonkis'

Kanpaldia egingo dute Topalekuo kideekin, Iturrigorriren. Izen-ematea, gaztelekuan.

Ekainaren 22an, 23an eta 24an.

BERTSOLARITZA**ARRASATE Sanjuanetako saioa**

Nerea Elustondok, Julio Sotok, Arrate Illarok eta Joanes Igeregik egingo dute saioa, AED-k gonbidatuta.

Bihar, zapatua, Monterronen, 22:30ean.

TURISMOA**ELGETA Jasokunde Amaren parroikia**

Parroikia bera, baina, bereziki, XVI. mendekoa eta Santiago apostoluari eskainitako erretaula ikus-



REGGAE ES

teko aukera. Izenak: 943- 79 64 63 telefonoan, alde aurretik. Bihar, zapatua, parrokian, 12:00etan.

OÑATI Madalenako ermita

Bi urtez Borjako San Frantzisko bizi izan zeneko ingurua ezagutzeko aukera. Ermitan haren kapera dago. Izenak: 943- 79 64 63 telefonoan, alde aurretik. Etzi, domeka, ermitan, 12:00etan.

DANTZA

BERGARA Ikasturte bukaerakoa

Dantza eskolako ikasleen emantaldia: talde bakoitzak koreografia bat egingo du, Eneko Galdosen gidaritzapean. Gaur, egubakoitza, Espoloi, 22:00etan.

ELGETA Ikasturte bukaerakoa

Bergarako Candem dantza akademiako kideen emantaldia. Etzi, domeka, Espoloi, 11:30etan

HITZALDIAK

BERGARA Karlistaldien garaia

Petit de meurville, Pietro Bubani: bi naturzale europar Euskal Herrian karlistaden garaian delako berbaldua. Etzi, zapatua, Laboratoriumen, 11:30etan.

ANTZUOLA 'Independentziaren bidea jorratzen'

Independentistak taldeko kide Txutxi Ariznabarretak egingo du berbaldua. Ekainaren 20an, Orlaranen, 19:00etan.

OÑATI Sabino Cuadra

Haustura Demokratikoaren aldeko borrokaren ikasgaiak delako gaia landuko du. Moderatzailea Larraitz Ugarte izango da. Ekainaren 21ean, Foruen plazan, 19:00etan.

ANTZUOLA Zahartzaro aktiboaz

Pili Arinek egingo du berba gai horren inguruan; bereziki, erretiratuendako. Ekainaren 22an, Orlaranen, 18:00etan.

BESTELAKOAK

ELGETA Udalekuetako izen-ematea

2005tik 2013ra bitartean jaiotako neska-mutikoendako zerbitzua izango da. Izen-ematea, udaletxean.

ELGETA Irteera Errioxara

Xalbadorpe elkartearen irteera. Pradejonen txanpinoiak nola sortzen diren ikusiko dute eta Azagran bazkalduko dute. Ekainaren 21ean, Mendizaleen plazan, 08:15ean.

BERGARA Eguazteneko azoka

Baserriko eta bertako produktuak erosteko aukera. Gainera, umeendako ur-jolasak egongo dira. Ekainaren 22an, Oxirondon, 18:00etan.

ARRASATE Igerilekuen irekiera

Ekainaren 20an zabalduko dituzte Musakolako kanpoko igerilekuak. Ekainaren 23ra arte goizez bakarrik egongo dira zabalik. Ekainaren 20tik aurrera zabalik.

OÑATI Sorosle zerbitzua Usakon

Irailaren 11ra arte egongo da soroslea, arratsalde, 15:00etatik 20:00etara. Irailaren 15era arte.

DEIAK

BERGARA Diploma banaketa

Musika eskolako ikasleendako ekitaldia. Ostean, kontzertua egingo dute. Gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 18:30etan.

ARETXABALETA Gazta tailerra

Ikastaroa egingo dute aste bukarran. Informazioa eta izen-ematea: 943-79 06 03 (Amaia). Aipatutako egunetan, Azatza gunean.

OÑATI Fan Hemendik Eguna

Egitaraua: 12:30ean triki-poteoa, 14:30ean bazkaria, trikitilarienkin; 18:00etan elektro-txaranga; 19:00etan manifestazioa; eta, 21:30ean, kontzertua Txipiturekin, Autobus Magikoarekin, Kolpatuekin eta beste talde batekin. Bihar, zapatua, hainbat gunetan, aipatutako orduetan.

OÑATI Udalekuetako batzarra begiraleendako

Ekintzak antolatzeako batzarra. Ekainaren 20an, kiroldegian, 12:00etan eta 17:00etan.

OÑATI Arantzazuko harrobiaren gaineko batzarra

Handitze proiektuaren inguruko informazioa emateko bilera irekia. Ekainaren 20an, udaletxean, 19:00etan.

OÑATI Udalekuetako bilera gurasoendako

Bi batzar egingo dituzte Txalokako kideek: 18:00etan gazteleeraz eta 19:00etan euskaraz. Ekainaren 22an, gaztelekuan, aipatutako orduetan.

KIROLA

OÑATI Kaloriak erretzeko saioa

Hainbat ariketa egingo dituzte. Bihar, zapatua, kiroldegian, 10:00etan.

BERGARA Hiruko saskibalo txapelketa

Benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, juniorrak, seniorrak eta eliteak lehiatuko dira, zapatuan eta domekan. Aipatutako egunetan, San Martin plazan.

ARAMAIO Plater-tiro txapelketa

Kurtzetagain Tiroplato Elkartek antolatutako saioa. Bihar, zapatua, Krutzetan, 16:00etan.

BERGARA Udaberri txapelketa

Kadeteen, gazteen eta nagusien mailetakoa partiduak. Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 19:00etan.

ESKORIATZA Gabez Takarraran

Egunean bertan eman ahal izango da izena: 21:00etatik 22:00etara arte. Aurretik, *Kirolprobak.com* atarian. Helduendako eta gazteendako lasterketak. Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 23:00etan.

ARETXABALETA 'Kirola kalera'

Zapatuan eta domekan askotariko kirol ekintzak egingo dituzte: boloak, patinak, dokea, pilota, pala... Aste bukaeran, herriko hainbat lekutan.

JAIK

ARRASATE Sanjuanak

Ekainaren 23an txupina bota ostean hasiko dituzte ekitaldi nagusiak. Egun horretan egongo direnetako batzuk: herri bazkaria, makala jasotzea, salbea parrokian, Errementari Dantza eta nagusien danborrada. Ekainaren 23an, hainbat lekutan.

AURKEZPENA

ANTZUOLA 'Caso Bidegi' eta 'Gestión a la vasca'

Igor Melchor egileak egingo du aurkezpena. Ostean, solasaldia. Ekainaren 21ean, Orlaranen, 18:30etan.

IKASTAROAK

ARETXABALETA Dantza ikastaroa

Hasiberriendako Beinke Lora-mendi dantza ikastaroa egingo dute: ekainaren 21ean eta 28an, eta uztailearen 5ean, 12an eta 19an, udaletxe zaharrean, 19:00etatik 20:00etara arte. Parte hartu gura duenak ikastaroaren lehen egunean agertu beharko da. Ez da aurretik izena eman behar. Izen-ematea, aipatutako lekuan.

DEBAGOIENA Abentura eremuko eskalada

Gipuzkoako Mendizale Eskolak egingo du ekainaren 25ean eta 26an, Atxarten. Izen-ematea: *www.gmf-fgm.org* atarian. Izen-ematea, aipatutako lekuan.

ARETXABALETA Zaldien heziera

Uztailaren 6tik 8ra egingo dute tailerra. Informazio eskatzeko edo izena emateko deitu 943-79 06 03 (Amaia) telefonora. Izen-ematea, aipatutako telefonora.

IZEN-EMATEAK

ARRASATE 'Udaixe'

6ak baietz eta *Gazte extrem* ekimenetan izena eman daiteke oraindik, ekainaren 22ra arte. Izen-ematea, Gazte Bulegoan.

OÑATI Udako kirol kanpaina

Ekainaren 27an hasiko dute lehen txanda, eta oraindik lekua dago hainbat taldetan. Besteak beste, mendiko bizikletan, mini-tenisean, xakean, igeriketan, eskaladan eta gurasoendako eta seme-alabendako patinajean. Izen-ematea, kiroldegiko bulegoan.

ANTZUOLA Koadrilen arteko jokoak

Herriko jai nagusietan egingo dituzten jokoetan izena emateko epea zabalik dago ekainaren 24ra arte: 943-76 62 46 telefonoan edo *kultura@antzuola.eus* helbidean. Izen-ematea, Gazte Bulegoan.

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

Mayo de 1940

Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Ninjas turtles

Zapatua eta domeka: 17:00.

Mayo de 1940

Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

Grandes familias

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Ninja turtles

Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

Albert (euskaraz)

Zapatua: 17:00.

Albert

Domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

El capitán Kobic

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Astelehena eta martitzena: 17:00, 18:45.

Un doctor en la campiña

Egubakoitzetik domekara: 18:30. Astelehena: 20:30.

Mil y una noches 1: el inquieto

Egubakoitzetik martitzenera: 17:30.

Mil y una noches 2: el desconsolado

Egubakoitzetik martitzenera: 20:00.

Mil y una noches 3: el embelesado

Egubakoitzetik domekara: 22:30. Astelehena eta martitzena: 21:00.

Dos buenos tipos

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30. Astelehena eta martitzena: 17:00.

Si Dios quiere

Egubakoitzetik domekara: 20:00. Astelehena eta martitzena: 19:15.

Ninja turtles

Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 20:00, 22:30. Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.

Expediente Warren

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:30. Astelehena eta martitzena: 17:15, 20:00.

Grandes familias

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:30. Astelehena eta martitzena: 17:15, 20:00.

Fatima

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30. Astelehena eta martitzena: 17:15, 20:00.

Rumbos

Egubakoitzetik domekara: 18:30. Astelehena eta martitzena: 17:00.

Warcraft: el origen

Egubakoitzetik domekara: 22:30. Astelehena eta martitzena: 21:00.

El libro de la selva

Zapatua eta domeka: 12:00.

El reino de los monos (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Angry birds

Zapatua eta domeka: 12:00.

Alicia a traves del espejo

Zapatua eta domeka: 12:00.

Albert (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD

Expediente Warren

Zapatua: 23:45. Egubakoitzetik martitzenera: 18:15, 19:40, 21:00, 22:20. Zapatua eta domeka: 15:30, 17:00.

Ninja turtles

Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30, 00:00. Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30. Domeka: 15:30, 17:30, 20:00, 22:30. Astelehena eta martitzena: 17:30, 19:00, 20:00, 21:30, 22:30.

Ninja turtles 3D

Egubakoitzetik domekara: 16:30.

Warcraft

Egubakoitzetik domekara: 16:00, 18:30, 21:00, 23:30. Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30. Zapatua: 15:30, 18:00, 20:30, 23:00.

Domeka: 15:30, 18:00, 20:30. Astelehena eta martitzena: 17:30, 18:30, 20:00, 21:00, 22:30.

Dos buenos tipos

Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 17:40, 20:10, 22:40. Zapatua eta domeka: 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.

X-Men: apocalipsis

Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:00, 00:00. Domeka: 21:00. Astelehena eta martitzena: 18:00, 21:00.

Alicia a traves del espejo

Egubakoitzetik martitzenera: 17:50, 20:10, 22:30. Zapatua eta domeka: 15:30.

El libro de la selva

Egubakoitzetik martitzenera: 18:15. Zapatua eta domeka: 16:00.

La bruja

Zapatua: 00:30. Egubakoitzetik martitzenera: 20:30, 22:30.

Angry birds

Egubakoitzetik martitzenera: 18:10. Zapatua eta domeka: 16:00.

Rumbos

Zapatua: 00:15. Egubakoitzetik martitzenera: 20:15, 22:15.

El reino de los monos

Zapatua: 15:45.

Nuestros amantes

Zapatua: 00:50.

Buscando a Dory

Domeka: 18:00.

KRITIKA

Klasikoa eta modernoa

Izenburuak adierazten duen bezala, Arnaud Desplechien azkeneko filma hiru zatitan banatzen da. Paul Dedalusek bere bizitzako hiru momentu esanguratsu gogoratzen ditu. Alde batetik, haurtzarora ezagutuko dugu: amaren arazo psikikoak familiaren bizitza markatuko du. Beste alde batetik, ikasle garaian Minksera egingo duen bidaia baten, Sobiet Batasunetik ihesi doazen pertsonak nola laguntzen dituen. Eta, azkenik, Estherrekin izandako maitasuna istorioa. Azken hori izango da pelikularen ardatza.

Tres recuerdos de mi juventud nahiko lan apetatsua da. Zuzendariek biraketa nabarmenak ematen dizkio istorioari, baita hori kontatzeko moduari ere. Pertsonaia nagusiaren oroimenak dira eta oroimen horietan tonu desberdinetakoa gertaerak daude: umorea, melankolia, momentu bitxiak... Musikak eta literatura pisu handia dute. Adibidez, mota desberdinetakoa musikak agertzen dira, bai pertsonaiek entzuten duten musika, baita ikusleari zuzendutako musika. Irudiari dagokionez, badago pantaila lau zatitan banatzen

TRES RECUERDOS DE MI JUVENTUD ★★★★★

Zuzendaria: Arnaud Desplechin.

Aktoreak: Quentin Dolmaire, Lou Roy-Leconillet, Mathieu Amalric.

duen eszena, eta baita zinema mutuan planoak ixteko edo zabaltzeko erabiltzen zuten teknika.

Desplechinek istorioari ez dio tonu errealistik ematen. Hirugarren zatian, amodio istorioa kontatzerakoan, literaturara asko hurbiltzen da. Paulen ahotsa agertzen da istorioaren narratzaile gisa. Istorioa 80ko hamarkadan kokatzen bada, pertsonaiek ez dute garai eta adin hartako pertsonen moduan berba egiten. Narratzaile bat izateaz gain, istorioa pertsonaiek idazten dituzten eskutitzen bitartez garatzen da. Bikotea kamerara zuzentzen da idatzitakoa ahoskatzeko, eta erabiltzeko hitzek zerikusi handiagoa dute eleberri erromantikoen pertsonaiekin, gure garaiko pertsonaiekin baino. Horrela, klasikotasunak eta modernotasunak bat egiten dute.

ANTONIO ZABALA

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Uxarte jatetxean prestatutako paella.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-06-17

BUKATZEKO

Oñati bihotzean duen iparramerikarra

- ▶ Michael Brunelle Idahokoa da eta 1974an etorri zen lehenengoz institutuko hainbat kiderekin
- ▶ Marraztea oso gustuko du eta lagunei berak egindako Aizkorri eta Urbiako mapa banatuta joan da

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Virginian (Ameriketako Estatu Batuak) bizi den Michael Brunelle Oñatiko lagunei oparia utzita joan da etxera: Aizkorri eta Urbiako mapa. Hiru dimentsiotan jaso ditu inguru hartako xehetasunak, baita nabarmendu ere garrantzitsuenak: trikuharriak, tumuluak, txabolak, bideak...

Boisetik Oñatira

Boisekoa (Idaho) da Brunelle eta 1974an etorri zen lehenengoz Oñatira: "Boiseko unibertsitatearen bitartez 90 amerikar etorri ginen orduan agustindarren ikastetxera: erdia, euskal arbasoak zituztelako, eta beste erdia, jakin-mina genuelako". Ondoren, beste hainbatetan itzuli zen. Madrilen egin zituen ikasketak 1981 eta 1982 artean, eta 1982an oñatiar batekin ezkondu zen. Hurrengo urtean Boiseran joan ziren bizitzera; gero Brooklynera (New York), eta gaur egun Virginian bizi dira; dagoeneko 26 urte daramatzate. Milaka kilometrotara bizi arren, sarri etorri izan dira senar-emazteak Oñatira, eta hemendik aurrera, are sarriago: "Seme-alabak hazi egin dira, librea go gaude. Virginia eta Oñati artean ibiliko gara".



Michael Brunelle, Oñatin, mapa esku artean duela. | MIRARI ALTUBE

Mendi inguruak eta kaleak

Arte Ederrak ikasi zituen, lehenengo, eta gero, Industria Diseinua: "Orain argitaratutako mapa aspalditik dator. Brooklynengoela hasi nintzen horrekin, etxe-orrazak diseinatzen zituen arkitekto batekin lan egin nuenean. Pentsa noiztik datorren kontua... Orduan ez zegoen Google Earth!". Argazkiak lagun hartuta eginda-

ko mapa izan arren, sarri egon izan da bertan, Urbian: "Izugarri gustatzen zait parajea, natorren guztietan joaten naiz hara".

Ez da egin duen lehenengo mapa; 1983an Oñatiko kaleak jaso zituen: "Garai hartan pintura erakusketa bat jarri genuen beste lagun batek eta biok. Udal ordezkariaren batek ikusi, eta Oñatiko alde zaharraren mapa

eskatu zidan egiteko. Bidaurreta, Kale Barria, Kale Zaharra, unibertsitate ingurua, parrokia... Herrian garrantzitsuak direnak jaso gura izan nituen. Etxeen aurrealde guztiak irudikatzen ahalegindu nintzen, eta mapak erakusten duena benetakoa da; banan-banan kontatu nituen leiho eta ate guztiak", dio, orain dela 30 urtetik gorako kontuak gogoan. Tinta txinatarrarekin egin zuen hura, eta akuarelekin koloreztatu. "Etxe guztietan banatu zuten. Eta originala Pake Leku erretiratuen elkartearen daukate oraindik".

Egunean marrazki bat

Marratzen jarraitzen du Brunellek. Poltsan beti daramatza bloka eta koloretako arkatzak: "Egunean marrazki bat egin gura izaten dut. Oñatik paraje ezin politagoak ditu horretarako: paisaia, arkitektura, historia...". Bidaurretako detailea, San Lorentzo ermita, hilerriko zuhaitza eta Foruen plazako xehetasunak jaso ditu, besteak beste, azken bisitan, baina orain dela 40 urte marraztutakoak ere gordeta ditu. Zalantza barik, azken urteotan herriak izandako aldaketan erakusgarri izango dira.

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Minigona debekatua

Gure amama, aitaren aldekoa, oso zen tradizionala. Gure ama minigonarekin joaten zen baserrira, nobio garaian. Eta amama gonatik tiraka aritzen zitzaion. Gona luzatu nahian. Genovevaren arabera, gonak belauak estali behar zituen. Eta ukalondoek ere estalita egon behar zuten. Eta papparra ere ezin zen bi behatz baino gehiago erakutsi. Apaizak esandakoak ondo ikasita zituen.

Irratian entzun nuen aurrekoan: minigona eramatea galazari dutela. Eta eskoteak. Emakumeak ezingo direla edonola jantzita agertu. Italiako berri bat zen. RAI 3 telebista katean hartutako erabakia, emakumezko aurkezleentzat.

Gure amamak esaten zituenak gogoratu nituen. Eta beste hainbat emakumek kontatutakoak. Ezin zutela bainujantzirik jarri. Ilea horiz tindatzen zuenari puta fama jartzen ziotela. Eta bizikletan ibiltzea ere bekatutako bidea zela.

Eztabaida askoren ondoren hartutako erabakia ei da RAI 3 katekoa. Italiako telebista saio askotan emakumea sexu objektu bihurtu dutelako. Erdi biluzik agertzen delako, gizonaren apaingarri moduan. Eta kontraesana badirudi ere, ados nago erabakiarekin. Apaizek egiten zutena horixe bera baitzen: emakumea haragi zati bat bezala ikusi, menpean har daitekeen tentazioa.

2 Ray-Ban OPARI
ERREFLEXUEN AURKAKO LEIARRAK EROSTEAN
www.multiópticasgipuzkoa.com
BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Ray-Ban MONTURA 1
Ray-Ban+ EGUZKITAKO 1

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan